

ttipi-ttapa



Izaro BIDEGAIN | Saharaztan elkarte

**«SAHARARREI EMATEN
DIEGUNA BAINO GEHIAGO
HARTZEN DUGU BUELTAN»**

Udan Mendebaldeko Saharako haurrak etxean hartzeko
gonbita luzatu du Bidegainek. / 8

Malerrekako pilota erronka abian

Ados pilota elkarteak eta Malerrekako Mankomunitateko gizarte zerbitzuek pilota txapelketa antolatu dute. / 29

SINADURAK



**'Ez erran inori'
liburua argitaratu du
Maddi Ane
Txoperenak** / 10



**Caparrosoko
makroetxaldeaz eta
abeltzaintza ereduaz
Lorea Floresekin** / 18



**Aitor Bazterrika
Elizondoko alkatea
turismoaz, auzolanaz
eta hainbat kontuz** / 44



ZOKKETA / 60

BERA LESAKA

Agenda 2022

**APIRILA
MAIATZA**

www.berakoagenda.eu
www.lesaka.eu

21 ORTZEGUNA LESAKA	KONTZERTUA NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA 19:30 Harriondoa Kultur Etxea Sarrerak 6€ www.lesaka.eu
22 ORTZIRALEA BERA	SOLASALDIA ARROZ UREZ (Mikel Antza) 18:00 Herri liburutegian Antolatzailea Bortzietako Euskara Mankomunitatea
22 ORTZIRALEA BERA	KONTZERTUA VELUTINE 21:00 Katakun
23 LARUNBATA LESAKA	LITERATURA GERALDIK IRAKURRALDI MUSIKATUA ARTTZ GALARRAGA ETA IBON RG (GOGOAN DUT) 19:00 Harriondoa Kultur Etxea Doakoa
23 LARUNBATA BERA	MUXIKOAK DANTZAN 18:00 Toki Onako estalpean
24 IGANDEA BERA	ANTZERKIA HARRI MINAK BON BON BELTZ 18:30 Kultur Etxean Sarrerak 5€ (aitzinetik Agara prentsan)
24 IGANDEA LESAKA	NAFARROAKO BANDA SINFONIKOA 12:30 Harriondoa Kultur Etxean Antolatzailea Nafarroako Banden Federazioa KULTURA ZINEMA HARRIONDOAN 17:00 Harriondoa Kultur Etxean Sarrerak 2€ (egunean bertan) Antolatzailea Irain eta Tantiur-mairu Ikastetxetako gurasoak
30 LARUNBATA BERA	AZIENDA ERAKUSKETA FERIA Goiztan zahar ANTZERKIA ALTSASU LA DRAMATICA ERRANTE KONPAINIA 19:00 Kultur Etxean Sarrerak 7€ (aitzinetik Agara prentsan) Iraupena 80 min
1 IGANDEA LESAKA	AZOKA ARTISAU AZOKA 10:00 Beheko Plazan Antolatzailea Argitsu Elkarte ANTZERKIA "VIVA LA REPUBLICA" 19:00 Harriondoa Kultur Etxean Sarrerak 6€ www.lesaka.eu Iraupena 80 min
5 ORTZEGUNA BERA	LIBURU AURKEZPENA HAMAZAZPIGARRENEAN AIDANEZ BEHELAINOAK ERREZTALDI MUSIKATUA 19:00 Beralandetan
ETXEPARE SARIA APIRILAREN 25ETIK MAIATZAREN 6A ARTE HAURRENTZAKO ALBUM ILUSTRATUAK SORTZEKO ERAKUSKETA 14:00-20:00 Lesakako Liburutegia IREKIERA EKITALDIA APIRILAK 25 - 17:00etan "Nola zaletu haurrek euskaraz irakurtzena?" Inza Alkainen hitzaldi irekia gurasoei zuzendua. ITXIERA EKITALDIA MAIATZAK 6 - 17:30etan "Dorotea (kontaketa -collage tailerra)" Amaia Egidazu (adin tartea: 6-10, iraupena: kontaketa 30' ; collage tailerra 60')	
30 LARUNBATA LESAKA	NAFARROAKO GOMA GAINEKO 4X4 SOKATIRA TXAPELKETA Udal Pilotalekua Antolatzailea Beti-Gazte

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

Diseinu grafikoa | Publizitatea

PANELAK-TOTEMAK

INFORMAZIO PANELAK
Egurrezko egiturekin edo gabe

Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta materialen aukerak

ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan

PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan

METAKRILATO
Gardenak eta opakak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

ROLL-UP

ROLL-UP
Garraio poltsarekin
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK

AZIDOAK

ELEKTROSTATIKOAK

GARDENAK

MIKROBENTOSAK

MIKROPERFORATUAK

POLIMERIKOAK

GAUZA GEHIAGO

OLANAK

PEGATINAK

INFORMAZIO GEHIAGO:
 Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eu · www.kulturkari.com

2 ttipi-ttapa | 804 zk. | 2022-04-21



NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Adi

Leihotik sartzen diren eguzki printzen azpian dago etzanda, luze-luze eginda, goxo. Sagarra jaten sumatu nauenean, begiari ireki ditu, eta, jaiki gabe, lepoa luzatu du ea aditutakoa egia den hobeki ikusteko. Bai, sagarra da, eta badaki bukatzen dudanean berari emanen diodala bihotza. Hortaz, poliki-poliki buelta eman eta aitzineko zangoak luzatu ditu, ipurdia eta buztana ahalik eta gehien altxatu bitartean, yoga eginen balu bezala.

Gero, gorputz osoari astinaldi ederra eman dio ezker-eskuin hiruzpalau aldiz, eta bere ile fin xuri-beltzak nonahi sakabanatu ditu. Gibeledu zangoetako bat erdi lokartua duenez, mainguka etorri da niregana, eta hortxe jarri da esperoan, adi, frutari begira.

Burura etorri zait, orduan, etxekook tontakeriak irakatsi dizkiogun bitartean (eseri, etzin, xutik, txiribueltza...), berak zenbat irakaspén baliotsu eman dizkigun. Sagarrarekin bezala: guk horren bihotza baino ez diegu ematen, baina beraiek oso-osorik eskaintzen digute beraiena.

**«GUK TONTAKE-
RIAK IRAKATSI ETA
BERAK IRAKASPEN
BALIOTSUAK...»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Merke eta ona... txorizo Pamplona

ekoiztea kostatzen zaiena baino guttiago kobratzen dutelako esnea arraka botatzen duten abeltzain horietaz gogoratu milaka apalez betetako megadendan brika 60 xentimotan erosten duzunean. Edo dendarik gabe gelditu den herriaz, *paquete de Amazon* erantzuten dutenean ataritik. Norbere sakelari begiratu behar diogu, garai hauetan gehiago, baina...

NABARMENTZEKOAK



**BIXENTE
IGARTZABAL**
LESAKA



**MAITE
ITURRARTE**
LEITZA

Garaipen handia lortu zuen apirilaren 9an Vianan Bixente Igarzabal lesakarrak duatloian. Hamabigarren izan zen orokorrean, nafarren artean hirugarrena izan eta beteranoetan bizkorrena.

Maite Iturrarte Leitzako txirindularitza zale handia arduratu zen Leitzatik abiatu zen Itzuliko etapako zinta mozteaz. Horrekin batera, hunkituta hartu zuen udalak emandako lore sorta.

ATZERA BEGIRA



2012-04-05 · TTIPI-TTAPA · 563 zk.

Sarako zahar etxe berriak hamar urte

2010eko urrian hupatzen hasi eta 2012ko urtarrilean finitu zituzten Sarako zahar etxe berriko lanak. 9,2 milioi euro gosta zen eta 111 lagunentzako tokia prestatu zuten. «Hego eta Ipar Euskal Herriko adinekoentzako zabalik» zegoela aipatu zuen Battit Laborde auzapezak. Ordura arteko ibilbideaz ere aritu zen: «Gaur egun gaztetxea dena izan zen Sarako lehenbiziko zahar etxea. 1883an Sarako auzapez izan zen Jean Dithurbide medikuak eraikin hori eta bere ondasunak herriari eman zizkion, Sarako adineko jendearentzat zahar etxea egiteko». Gerora bertze zahar etxea egin bazuten ere, 2012an estreinatu zutenari Dithurbideren izena eman nahi izan zioten, «bera omentzeko eta bere filosofiarekin segitzeko».



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maidor Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garnio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztekoa
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerrekako 42€
Leitza 33€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 98€
Amerika eta Australia 147€



KOLABORAZIOAK

XABIER MARITORENA ZUBIETA

Hiretako, 'Laxkanberri'

Lehenbiziko notiziak ailegatzan hasi zirelarik berehala hasi gintuan elkarri deitzen. Ez gintuan seguru hi ote izanen hintzen edo ez, eta azkenean hala konfirmatu zigutean. Ez duk posible... ez duk posible... Ez zekiat zenbat aldiz erran izanen ote genian gure barnerako.

21 urte miserable, dena aitzinetik egiteko, bizitzeko. Ez zian hala izan behar Mikel, sobera goiz joan hintzen gure artetik.

Tanatorioan hire gurasoak, arreba, neska-laguna, familia eta lagunak hola ikustea zaila izan zuan. Alua, banitian urteak negarrik egin gabe eta hik lortu huen. Hezten gintiztean 'gizonek ez ditek negarrik egiten' ideia ergel horrekin hazia nauk ni ere, baina badakik zer? Neure buruarekin trankilago sentitu ninduan negar egin ondolik.

Ez zekiat ze ostia ari hintzen maldan beheiti joan hintzelarik, inguruko aziendei begira, mugikorrarekin, burua bertze nonbait edo zer, baina afera duk orain ez hagoela gurekin. Bertzeok ikasiko ahal diagu gidatzen beti atentzioa horretan behar dugula paratu? Egia erran, Mikel, hi hil hintzenetik kotxean trankilago ibiltzen nauk, ze N-121 karretera zikin horretan... Partxeak han eta partxeak hemen, baina horko trafikoa arazoak hor segituko dik. Ikusiko diagu zenbat denbora pasatzen den bertze istripu baten notizia leitu aitzinetik.

«**HIK UTZITAKO
MARKA BETI
GUREKIN
ERAMANEN DIAGU**»

Ematen dik mantso-mantso gure lehenagoko bizitzeko manerara bueltatuko garela. Hik majo laguntzen huen Baztandarren Biltzarreko organo edo herriko bestak antolatzen. Baina ez ezak pentsatu egun horietan bakarrik oroituko garenik hitaz.

Hire meza egunean dena akitu zelarik ere, hitaz solasean aritu gintuan, beti bahuen pitokeria bat egiteko. Batek erran zian nola zapatilak xuri, garbi-garbi, zituelarik hire lehenbiziko lana hire zapatilekin bereak zikintzea izan zela. Bertze batek gogora ekarri zian laxoko pilota hartzera monoak bezala igan hintzela elizako sakristia gaineko teilatura eta ahuntzek baino salto handiagoa emanda bajatu hintzela.

Eta horixe eginen diagu hemendik aitzinerat ere Mikel. Fisikoki ez hago gure artean, baina hi bezalako batek utzitako marka beti gurekin eramanen diagu eta irri goxo batekin oroituko gaituk egiten hituen gauza guziez.

Edonon hagoela ere, besarkada handi bat, bai hiretako, bai Joxe Marirendako, bai Ixarendako, bai Leire eta Iñakirendako, bai Aialarendako, baita maite haugun guziendako ere.



IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Bestondoa

Bukatu da. Orain bestondoa pasatzea tokatzen da, baina pasatutakoa ahaztu gabe. Apirilaren 10ean Korrika Donostiara ailegatu zen. 2.575 kilometrotan Euskal Herri osoa zeharkatuz, elur, kazkabar, euri eta eguzki artean, gau eta egun euskararen alde korrika eginez, hamar mila «ero» zoragarrik Remigio Mendiburuk egindako lekukoa esku esku pasatuz.

Duela 42 urte lehenengo Korrika Oñatitik abiatu zen eta Bilbon bukatu zen. Garai haiek ez ziren gaur egungoak bezalakoak. Gizartearen egoera politikoa ezberdina zen; muga fisikoak bizirik zeuden, oztopoak ikaragarriak, AEKko egoitzak, kasu gehienetan, oso zaharrak... eta traba guztien gainetik, alfabetatze eta euskalduntze irakaskuntzan buru-belarri ziharduten irakasle boluntario asko jo eta ke lanean.

Korrikako prestakuntzan familia guztiak hartzen genuen parte, dirulaguntzak dendaz denda biltzen, tokatzen zitzaigun tartea antolatzen, aurretik egiten ziren ekitaldietan lagunduz... Txiki-txikitatik bizipen zoragarriak ditut. Askotan pentsatzen dut zein ote den momenturik politena, eta dudarik gabe, momenturik hunkigarriena muga pasatzea izaten zen. Iparraldera pasatzeko Espainiako poliziaren eta Frantziako jendarmeen presentzia egunero jasan behar

«**KARMELE JAIAREN
HITZAK BETETZEKO
KONPROMISOA HAR
DEZAGUN**»

erakutsi beharra eta beraiek nahi zutena egin beharra. Muga pasatzeko eta askatasunean aurrera jarraitzeko oztopoa apurtzea Korrikak soilik lortzen zuen. Mugaren alde batekoak baita besteok ere, askatasun horretaz gozatzen genuen Korrikan. Pentsa zein den euskarak duen indarra, bertako harreria gainditzea lortzen baitzuen!

Gaur egun ere, badaude mugak. Nafarroan ezohiko toki zoragarrietatik Korrika egitea tokatu zaigu baimenak aitzakia. Baina hala eta guztiz ere, Korrikak aurrera egin du. Ez gaituzte geldituko.

Karmele Jaiaren hitzak zoragarriak izan dira. «Euskara eztairitik ateratzen den irrirtzia» dela esan digu. Euskara oso merkea dela, izan ere, «debalde hartzen dugulako herriaren ahotik eta debalde ematen diogulako herriaren belarriari».

Eta sinistu beharreko zerbait ere esan digu; «euskara ez dela daukagun zerbait, garen zerbait baizik». Eta aurtengo Korrika ikusi ondoren, sinisten hasiak garela iruditzen zait.

Ez ditzagun ahaztu bizitu ditugun hamar egun hauek, eta 2024. urteko Korrikarako Karmele Jaiaren hitzak betetzeko konpromisoa har dezagun!

Lerro hauek eskerrak emateko ere erabiliko ditut. Eskerrik asko euskara hiltzen uzten ez duzun horri. Jarraitu horretan, buru-belarri, gero eta gehiago izanen garelako.

Zorionak Korrikako antolatzaileei, laguntzaileei, korrikalari guztiei eta euskaldun eta euskaltzale guztiei!

Bejondeigula!

11 GALDERA LABUR

JULIA ARTIEDA VILA BERAKO GAZTEA

«Nire zaletasunak jendeari erakusteko proiektua da Kiribil»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Neska alaia, sortzailea eta lagunkoia naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Eskulanak, musika, dantza eta lagunekin bidaiatzea.

Zer ikasten ari zara?

Barne diseinua, Gasteizen.

Noiz erabaki zenuen barne diseinua ikasi nahi zenuela?

Etxean egongelako sofa ia hilabetero lekuz aldatzen genuen, probak egitea gustuko nuen baina egia erran ez nuen azken momentura arte argi izan hori ikasi nahi nuela. Familian beti erraten zidaten sormen hori nire etorkizuna izanen zela.

Zer da Kiribil proiektua?

Ttikitatik gustatu izan zait eskulanak egitea, margotzea...

nire zaletasun hori jendeari erakusteko modua da proiektu hau. Hasieran telazko poltsak bakarrik margotzen nintuen, orain, laminak edota bertzelako apaingarri eta opariak egiten ditut.

Produktuak pertsonalizatzen dituzu, ezta?

Bai, argazki batetik ateratako marrazkiak egiten ditut poltsa eta laminetan. Animalia, pertsona zein paisaien marrazkiak egin izan ditut eta hagitz gustura nago. Modu honetan, bezeroa nolabait proiektuaren barnean sartzen da, aitzinera segitzeko gogoia piztuz.

Noiz hasi zinen proiektuarekin?

Konfinamenduaren ondotik poltsak margotzen hasi nintzen ahizparekin eta saltzen saiatu ginen. Harrera ona izan zue-



nez, proiektua sortzea erabaki nuen. Denbora faltagatik ahizpak ezin dit lagundu baina aunitz eskertzen dut berak eta bertze batzuek eskainitako laguntza.

Non ikasi duzu hau egiten?

Amari aunitz gustatzen zaizkio eskulanak eta ttikitatik aritu gara biok gauzak sortzen, bera bezalako irakaslerik ez dut inon aurkituko.

Nondik saltzen dituzu produktuak?

Ikusgarri daude instagramen eta bertatik, whatsappetik,

korreoz edo telefonoz hartzen ditut eskaerak. Bidalketak ere egiten dizkiet eskualdeko eta kanpoko jendeari.

Zure asmoak epe motzera?

Arropa sortabatean pentsatzen nabil, baita Bilbon egiten den merkatu batean ere, baina denak bere denbora behar du...

Eta epe luzera?

Interiorismoa abiapuntua izanik, nik diseinatutako dekorazio elementuak sortu eta saltzeko estudioa irekitzea.



Bilduma berria

1951tik

Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toailak

Edredoi-azal nordikoak



HEMEROTEKA



«Ardura handiko postua da [Baikoko kirol zuzendaria da], baina baita erronka polita ere. Ilusio handiz hartu dut. Pilotatik kanpo egon arren, kontaktua nuen enpresarekin, eta, halako batean, bildu egin ginen. Bilera horretan eskaini zidaten kirol zuzenari izatea (...) Ez nekien zer eskainiko zidaten. Baina Joserrak [Garai, Baikoko zuzendari nagusia] oso argi esan zidan zein lan nahi zuen nik egitea. Seguituan esan nuen baietz (...) Ni orain saiatu behar naiz pilotariak gustura egon daitezen, baina baita enpresa ere. Nik oso argi dut enpresa gustura egonen dela pilotariak emaitza onak lortzen badituzte, eta pilotariak emaitza onak lortuko badi-tuzte, haiek gustura egon behar dutela (...) Bakoitzak jakin behar du zein tokitan dagoen. Baina, niretzat, garrantzitsue-na da pilotariak gustura ego-tea. Kirolaria gustura dagoe-nean ematen du bere onena.»

AIMAR OLAIZOLA
BAIKO-KO KIROL ZUZENDARIA
BERRIA. 2022.04.01



«Korrikaren bi helburuak arras garrantzitsuak dira (...) Batetik, euskararen aldeko kontzientziadun herritarrak izatea, euskaltegiak eta euskara bera sendotzeko baliagarria da. Eta bertzetik, diru bilketa arras garrantzitsua da, euskaltegien eguneroko lana indartzeko ezinbertzekoa zaigulako, batez ere administrazioetik hartzen ditugun dirulaguntza edo baliabide ekonomikoak ez dire-lako nahikoa. Gure egunero-koari aurre egiteko Korrika behar dugu (...) Lehenik eta behin, hizkuntza politika berri eta eraginkorrak aitzinera ateratzeko hautua egitea eta hiru lurraldeetan normalizaziorako urrats sendoak egitea behar du euskarak. Oinarrian, ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatzea edo bermatzea eta hori guztia doakoa izatea (...) Bestalde, administrazioetako langileen hizkuntza eskakizunak zehatzak izatea eta euskarabertan egonen dela bermatzea eskatzen dugu.»

ALIZIA IRIBARREN
AEK-KO KOORDINATZAILEA
NAIZ.EUS 2022.04.03

BOTA BERTSOA

JULEN ZELAIETA IRIARTE
BERAKO BERTSOLARIA

Langilearen eguna
Doinua: Kantuz sortu naiz eta



*Apirila badoa
berea emanez,
bosgarren hila ere
bete zaigu planez.
LAB, ELA, EHNE, ENBA
USO, Comisiones, ...
Ez dugu deus lortuko
geldirik egonez.
Maiatzaren lehena
igandea denez,
aurten atsedetik ez
atseden egunez.*

*Erregulazioak,
jendea kanpora,
eta lan-istripuen
kopuruak gora.
Lan erreformarekin
ez goaz inora,
Euskal langilegoa
ez dago gustora, ...
hobekuntzarik izan
nahi bada gerora
Aurten ere kalera
irten beharko da!*



IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Nahiko lan' edo 'nahikoa lan'?

Biak zuzenak dira. Funtzio aunitzetan erabiltzen da *nahiko* hitza. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ikus daitekeenez, erabilera malgua du, bai kokapenari buruz bai artikulua erabilerari buruz. Aditz bati dagokionean bakarrik du artikulua premia.

Zenbatzaile gisa izenarekin doanean haren ezkerrean nahiz eskuinean joan daiteke, artikulua nahiz artikulurik gabe, eta *nahiko(a)* bera ere artikulua nahiz artikulurik gabe:

- Nahiko lan genuen / Nahikoa lana genuen / Nahikoa lan genuen / Nahiko lana genuen.
- Lan nahiko genuen / Lana nahiko genuen / Lan nahikoa genuen / Lana nahikoa genuen.

Hala ere, tradizioan izenaren aitzinetik doa gehienetan, eta mugagabeen:

- Nahiko(a) lan genuen.

Adberbio gisa izenondo bati edo adizlagun bati dagokiola doanean, haren ezkerrean, artikulua nahiz artikulurik gabe joan daiteke.

- Nahiko(a) berandu zen bazkaltzeko.
- Nahiko(a) handia zen.

Adberbio gisa aditz bati dagokiola doanean, artikulua nahiz gabe:

- Nahikoa iraun digu.

Nahikoa izan aditza ere, artikulua nahiz gabe:

- Ez da nahikoa egoskor izatea.

Kalko ustelak

'Lagundu baino...' edo 'Lagundu baino gehiago'?

Euskaltzaindiak dioen bezala, konparazio-perpausetan, *baino* hitzak berekin behar du *-ago*. Ez dira egokiak honelako itzuliak:

-**Lagundu baino, kalte egiten du* > Lagundu *baino gehiago*, kalte egiten du. Edo *lagundu beharrean/ordez...* kalte egiten du.

-**Irabaztea baino aritzea da helburua* > Irabaztea baino *gehiago aritzea* da helburua.

-**Hondartza baino, mendia gustatzen zait* > Mendia *gehiago gustatzen zait* hondartza *baino*.

Era honetako esaldietan, gainera, zenbaitetan, ez dago konparazioa erabili beharrik:

-Mendia gustatzen zait, ez hondartza.

Hieroglifikoa

Zertan ari da?



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61



Izaro Bidegain Saharara egindako bidaian.

«Sahararren sufrimendua gehiegi luzatzen ari da»

IZARO BIDEGAIN ZUBELDIA SAHARAZTAN ELKARTEKO KIDEA

Bi urteko geldialdiaren ondotik, udan Mendebaldeko Saharako haurrak etxean hartzeko Oporrak Bakean programa abiatu du Saharaztanek. Herritarrei parte hartzeko deia egin die Bidegainek

G. PIKABEA | ARIZKUN

Gatazka hasi zenetik 47 urtera, hizpide izaten segitzen du Saharak. Azken asteotan Marokok Sahara Mendebaldeko 2007an proposatu zuen planarekin bat egin du Espainiako Gobernuak eta horrek ekarri du lehenbiziko lerroa. Egoera ez da ona, eta urteak daramatzate horrela. Baina Mendebaldeko Saharako herriari laguntzea helburu duten elkertasun keinuak ere etengabeak dira, baita gurean ere. Baztan-Bidasoko Saharaztan elkertasun taldeak, errate-rako, urte saila daramatza Mendebaldeko Saharako herriarilaguntzen, Oporrak Bakean programaren bitartez hango haurrei harrera eginez, edo

bertzelako hainbat jarduera prestatuz. Bi urteko geldialdiaren ondotik, aurten ere Oporrak Bakean programa antolatu du, eta Izaro Bidegain Zubeldia (Arizkun, 1994) Saharaztaneko kidearen hitzetan, «inoiz baino beharrezkoagoa dute laguntza». **Nolako bilakaera izan du Saharaztanek antolatutako Oporrak Bakean programak urteotan?**

Saharaztan taldea 2008an sortu zuten eta geroztik Oporrak Bakean programaren bitartez Saharako haurrak ekartzen ditu. Baina taldea sortu baino lehenagotik gaur egun Saharaztanen dauden kide batzuek Saharako haurrak beraien etxeetan hartzen zituzten. Urte batzuetan harrera familiek goiti egin zuten.

Gure etxean, adibidez, 2011n ekarri genuen lehendabiziko aldiz Saharako haur bat, bederatzi urteko neska bat, eta uste dut urte hartan 21 Saharako haur ailegatu zirela eskualdera. Azken urte hauetan, beriz, aunitz jaitsi da harrera familien kopurua, bai gure eskualdean, baita Nafarroa osoan ere.

Nola doa aurtengo kanpaina?

Badakit eskualdean baten batek informazioa eskatzeko deitu duela, baina Nafarroa mailan harrera familiek eskas omen dira. Ea gehiago animatzen diren. Aurtengoan zortzi urteko haurrak etorriko dira, hau da, 2014an jaiotakoak. 50 gradutik goiti, ia jatekorik gabe eta baliabide eskasak dituzten ba-

samortutik ateratzea eta hemen mediku azterketak egitea izan da beti helburu nagusia. Beraiendako arras garrantzitsua da mediku azterketak egitea eta elikadura ona izatea. Aurten, ordea, bertze helburu bat gehitu zaio kanpainari. Izan ere, 1991n Rabatekin sinatutako su-etenakordioa 2020ko azaroan hautsi zuen Marokok, eta gerra hasi zen. Mutil gazte eta gizonen gehienak gerran daude. Hortaz, izenak erraten duen bezala, oporrak bakean pasatzeko helburua du aurtengoak, gerran eta kanpalekuetan arnasten duten tristuratik urrun.

Bi urtez Mendebaldeko Saharako haurrak ez dira Euskal Herrira etorri. Egoerak okerrera egin du?

Bai, pandemiagatik bi urtez ez dira gure artera etorri, horrek dakartzan ondorioekin. Bi urtez ez dute inongo laguntzarik hartu, ezin baikenuen hemendik deus bidali, ez jatekorik, ez sendagairik... Hortaz, osasun arazoak areagotu dira, eta zailtasunak dituzte hain baliabide eskasekin aitzinera segitzeko. Pandemiak guregan eragina izan du, ba imajinatu normalean hain baliabide eskasak dituzten leku batean, inongo laguntzarik hartu gabe... Gainera, hori guti balitz, tarte horretan gerra hasi da eta kanpalekuetan zeuden mutil gazte eta gizonak gerrara joan dira. Beraien egoera aunitz okertu da. Abenduan kanpalekuetan egon zirenek diotenez, orain arte egindako aurrerapauso guziek gibelera egin dute, eta oinarrikoak diren gauza batzuk lortzeko arazoak dituzte. Aurten inoiz baino beharrezkoagoa dute laguntza.

Nolako esperientzia da harrera familia izatea?

Gure kasuan hasierak gogorrak izan badira ere, esperientzia arras polita eta positiboa izan da guretako, eta gehienendako. Egokitzapena egin behar da, beraiendako dena berria baita: ohiturak, kultura, hizkuntza, elikadura... Lehendabiziko udatik bigarren udara sekulako alde nabaritzen da, bigarren urtean ezagunak baitituzte fa-

milia eta lekua. Guretako oinarrikoak direngauzekin harritzen dira: txorrota edeki eta ura ateratzea, itsasoa, mendi berdeak, errekek... Hala ere, guk haiei ematen dieguna baino aunitzez gehiago hartzen dugu bueltan. Nola disfrutatzen duten ikustea arras polita eta pozgarria da, baina beti mantentzen dute familia biologikoarekin duten lotura. Zenbatetan aditu ote dugu ez dutela sorterrira joan nahiko hemen dituzten gauza guziekin. Baina ez da horrela. Denek itzuli nahi dute beraien basamortuko etxe xumeetara. Hemen gauza materialak dituzte baina Saharako familiarekin duten lotura aunitzez indartsuagoa da. Duguna gehiago baloratzen ikasi beharko genuke. Haurrak familian kide bat gehiago izateaz gain, beraien familia biologikoarekin ere lotura polita sortu ohi da. Positiboa izanen da hartu-eman, familia gehienek errepikatzen baitugu eta tikiak ere gogotsu bueltatzen baitira.

Apirilaren 15ean akitu zen aurten-go Oporrak Bakean kanpainan parte hartzeko epea. Oraindik norbaitek nahi badu egin dezake? Saharaztango edozein kideri erratan ahal digu edo ANAS Sahararen Nafarroako Lagunak Elkartera dei dezake, informazioa eskatzeko bada ere.

Saharaztanek Saharako herriari elkartasuna adierazteko ekimen gehiago ere egiten ditu...

Urtean zehar hainbat ekimen egiten ditugu: Otsailaren 27a sahararrek SEAD Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuten eguna izan zen eta egun hori oroitzen dugu, Baztango eta Malerreka-ko ferietan tonbola egiten dugu, haurrak ailegatu baino lehen hainbat jatetxetako otorduen zozketa egiten dugu, gaupasak ere egin izan ditugu, hitzaldiak...

Urtean zehar nolako harremana duzue Saharako herriarekin?

Familia bakoitzak bere etxean egondako haurarekin harremana izaten dugu. Baina horrez gain, Saharaztanek hango beharrak asetzen laguntzeko lagun-



Arizkungo gaztea Saharako haurrez inguratuta, Saharara egin zuen bidaian.

tza ematen du. Adibidez, jatekoa, sendagaiak... bidali izan ditugu hainbertzetan, edo ekonomiko koki hango proiektuetarako laguntza eman izan dugu. Horietako batean, ur deposituak erosi eta banatu genituen.

Zer dio Saharaztanek Espainiako Gobernuko presidentearen azken adierazpenen harira?

Gure ustez, bertze behin, ez dute sahararren eta haien eskubideengan pentsatu. 47 urte daramatzate autodeterminaziorako erreferendumaren eta soluzio baten esperoan eta ez diete aukerarik ematen haiena den herriarekin zer egin aukeratu ahal izateko. Ez dute sahararrera dena errespetatzen, ezta beraien eskubideak ere. Sahararren sufrimendua gehie-

gi luzatzen ari da. Errefuxiatuen kanpalekuan eta hain baliabide gutirekin denbora gehiegi da. Gainera, handik ateratzea arras zaila dute.

Zer informazio duzue Mendebaldeko Saharatik?

Badakigu kezkatuak eta haserre daudela, baina informazio eskasa ailegatzen zaigu handik. Beraien segurtasunagatik hango egoeraren, mugimenduen edo gertakarien berri nahi baino gutiagotan izan ohi dugu.

Marokok publiko egin du Espainiarekin egindako akordioa...

Bere intereseko akordioa da, aspalditik dago Maroko horren esperoan. Mendebaldeko Sahara baliabide naturalen aldetik lurralde aberatsa da, munduko fosfato meategi haundien eta-

rikoa du, baita arrantza banku erraldoia ere, edota, petrolio, gas, burdin, kobrea eta uranio erreserbak.

Saharako hedabideetan toki guti duela uste duzue?

Saharako berri guti aditzen dira hedabideetan, blokeo informatiboa izugarria da. Uste dut dena interes kontua dela, Espainiako Estatuari ez zaio komeni Saharako gatazkaren errealitatea ikustea. Ukrainako gerraz aintz solastatzen da, eta irudi ugari ikusi ditugu. Saharako gerra hasi zenean, berriz, ez zen deus ikusten eta aditzen.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Haur bat hartzeko eta esperientzia zer den probatzeko animatuko nuke jendea, Saharako haurrek munduko bertze edozein tokitako haurrek dituzten eskubideak dituzte. Eman diezaiegun aukera bat. Bertzetik, eskualdeko jendeari eskerrak eman nahiko nizkieke, Saharaztanek egiten duen deialdietan erantzun positiboa hartzen baitugu.

«GUK HAI EI EMATEN DIEGUNA BAINO GEHIAGO HARTZEN DUGU BUELTAN»

«ERREFERENDUMAREN ESPEROAN 47 URTE DARAMATZATE»



Maddi Ane Txoperena martxoaren 16an Donostian, *Ez erran inori* liburua aurkeztu zuen egunean. ELKAR ARGITALETXEA

«Haurtzaroko sexu abusuez solastatzea garrantzitsua da»

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN 'EZ ERRAN INORI' LIBURUAREN IDAZLEA

Haurtzaroko sexu abusuei buruz idatzi du *Ez erran inori* liburuan. 2020an Igartza saria irabazi zuen eta horren emaitza izan da bere bigarren liburua

G. PIKABEA | LESAKA

Haurra zela sexu abusu bat pairatu zuen Lidek, etxean bertan, Donapaleun. Gertakaria memoriaren zoko batean erdi baztertua eduki du urtetan, baina gaztarotan, Baionan bizi dela, trumilka datozkio irudiak gogora. Halaxe dio Maddi Ane Txoperena Iribarrenen (Hendaia-Lesaka, 1994) *Ez erran inori* liburuak. Lide da protagonista eta honek haurtzarokoan izan zituen sexu abusuak ditu hizpide. Txoperenak berak ere hurbiletik, zoritxarrez hurbilegitik, ezagutzen duen gaia da. Bideak gogorretik ere izan omen du, baina prozesua «aberasgarria» izan dela aitortu du. *Ene baitan bizi da* eleberriaren

ondotik, hauxe du bere bigarren lana. Idazle gazteentzat antolatutako Igartza saria irabazita, Elkar argitaletxearekin argitaratu du.

Ez duzu gai erraza aukeratu...

Aunitzek erraten dute gai gogorra dela, ez dela erraza. Baina iruditzen zait adjektibo horiek ez dutela aitzakia izan behar gai hori ez aipatzeko. Haurtzaroko sexu abusuak izugarritzat ditugu, eta izugarri izate horrek itsutasuna sortzen du: «Sobera gogorra denez hobe ez aipatzea». Nahiz eta gogorra izan, banuen gaia ateratzeko gogoia, garrantzitsua delako haurtzaroko sexu abusuari eta tabuak diren bertze gai batzuei buruz solastatzea.

Zoritxarrez, gaia hurbiletik ezagutzen duzula erran izan duzu. Horrek bultzatu zaitu liburua idaztera?

Bai. Nik ere ttikitari halako esperientzia bat izan nuen. Hala ere, aunitzetan jendeak nahasteko tentazioa izaten du eta garbi utzi nahi dut liburuan ageri dena ez dela niri gertatutakoa. Gaztetatik izan dut gai honekin halako obsesioa. Niri ere pasatu zitzaizkidan, gaiari buruz gehiago jakiteko dezente leitu izan dut eta hainbat tailerretan ere parte hartu izan dut. Horrek sortu zidan honen inguruan solastatzeko gogoia eta beharra. Fikzioaren bidez kontatzea erabaki nuen, alde batetik, idazteak betitik

lagundu izan didalako, terapia moduko bat delako niretzat, eta bertzetik, fikzioa idazteak gaia niregandik urrundu eta bertze zerbait sortzeko aukera eman didalako.

Fikzioa izanda errazagoa izan da?

Nik bide hori aukeratu dut... Aldi berean, fikzioak eta orokorrean arteak, musikak edo bertze espresio batzuek, teoriarekin esplikatzeko zailak diren kontu batzuk esplikatzeko laguntzen dutela iruditzen zait. Sexu abusuari buruzko modu teorikoan aritzen ahal zara, baina nire ustez, istorio bat kontatuta hobekiago esplikatzeko dira emozio, sentipen eta gogoeta batzuk, bertze modu batera.

Idazketa prozesua gogorra izan da?

Alde materialetik begiratuta, joan den udaberrian, lanean bi hilabeteko eszedentzia hartu nuen, eta horri esker idatzi ahal izan dut. Niretzat hagitz garrantzitsua da idazteko denbora izatea eta denbora hori jarraitua izatea. Bi hilabete horietan erabat barneratu nintzen istorioan. Azkenean, idaztea lan bat da. Bertze aldetik, istorioan murgildu izana gogorra egin zait, nahiz eta fikziozko istorio bat kontatu, nik bizitako sentimendu eta emozio batzuekin konektatu baitut. Idazten dudanean pertsonaien barrenean sartzen naiz, eta pertsonaiak gauza gogorrak bizi izan baditu, nik ere modu gogorrean bizitzen ditut, leitzen ari zarenean, pertsoniarekin empatia izaten ahal duzun bezala. Baina prozesuaren emaitza hagitz aberasgarria izan da, sendatzailea, nahiz eta gogorra izan, hortik zerbait atera dudalako.

Sufrimendutik gauza ederrak ateratu daitezkeela erran izan duzu. Zer?

Ez dut esaldia gaizki ulertzea nahi. Bat egiten dut esaldiarekin, baina horrekin ez dut sufrimendua justifikatu nahi. Ez bagenu sufritu beharrik izanen, puskaz hobekiago. Baina zerbait jasan duzunean, horri aurre egiteko bide horretan,

sorkuntza tresna bat izaten ahal da. Artista aunitzek sufri-mendutik artea sortu dute. Literatura, kantak... gauza politak sortu dituzte.

Nabari da gaia landu duzula...

Kontziente nintzen gai garrantzitsua zela, aunitzi hurbilekoa egiten ahal zitzaioa, eta ez nuenedozein gauza idatzi nahi, errespetuz landu nahi nuen. Horregatik dokumentazio lana egin dut: liburu teorikoak edo saiakerak, fikziozko lanak, literatura, pelikulak, podcasta... Eskura nituen baliabideak erabili ditut. Eta tamalez, inguruan badut horrelako esperientziak bizi izan dituen jendea, eta haiekin egonda ere informazioa bildu dut.

Gaia gero eta gehiago aipatzen da hedabideetan, baina tabua izaten segitzen duela uste duzu?

Nik uste dut baietz. Azken urteotan Elizaren baitan egin diren sexu abusuez gehiago solastatzen da, eta hori azalera higitz garrantzitsua da, kontuan hartuta, Eliza bezalako erakunde batek eraso horiek nola babestu dituen. Baina familian eta ingurune hurbilean gertatzen diren sexu abusuen kasuan oraindik tabu haundiagoa dela erranen nuke. Familian edo ingurune hurbilean gertatzen den sexu abusu bat kontaktzen duzunean, ematen du familiaren kontra ari zarela, familia puskatzen duzula. Gure gizartean, eta eskualde honetan ere bai, familiararen instituzioa higitz garrantzitsua da gizartea antolatzeko, eta horrek isiltasun hori haustea oztokatzen du. Hortaz aparte, komunikabide batzuek batetik, ikuspegi morboso batetik, eta bertzetik, ikuspegi kuantitatibo batetik lantzen dute gaia, hau da, datuak ematen dituzte baina ez gara hainbortze saiaten zer gertatzen den ulertzen.

Isiltasuna aipatu duzu. Zaila da isiltasuna haustea?

Bai. Haurtzaroko sexu abusuen gaiaren ezaugarrietako bat hori da, isiltasuna, eta orokorrean sexu eraso guziena. Hori sexu



Txoperena *Ez erran inori* liburua eskuetan duela. TTPI-TTAPA

abusuak pairatu dituen pertsonak sentitzen duen lotsarekin eta errudun sentimendurekin lotuta dago. Nahiz eta biktima zu izan eta zuri egin dizuten eraso, aunitzetan errua zurea dela eta lotsa sentitzen duzu, eta are lotsa handiagoa, gertatutakoa publikoki aitortzen baduzu. Baina nire ustez, isiltasun hori da sexu abusua gertatzea ahabidetzen eta zigorgabetasuna sortzen duena. Horrekin ez dut erran

nahi sexu abusua bizi izan dituzten guzietan kontatzen hasi behar dutela; bakoitzak ikusi behar du noiz eta nola kontatu, edo kontatu edo ez. Baldintza batzuk ere behar dira inguruan hori kontatu ahal izateko. Baina orokorrean, gaiari buruz solastatzea garrantzitsua iruditzen zait, gizarteko arazo garrantzitsua delako. Estatistiken arabera, bortsu umetatik batek jasaten ditu, eta emakumeen kasuan hirutik batek.

Horrek erran nahi du jende pila dagoela hori bizitu duena, nahiz eta hainbat modutan bizitzen ahal den.

Liburuan Lideri ere kostatzen zaio kontatzea...

Lideri isiltasun horrek ematen dio min handiena. Nola aterara kanpora, errudun sentitzen delako eta lotsa duelako. Ez daki erotuta ote dagoen, egia tan pasatu zaion pasatu zitzaiena... Min handia sentitzen du eta bere estrategiak paratzen ditu martxan gertatu zaionari aurre egiteko. Estrategia horietako batzuek min ematen segitzen diote, bertez batzuek ez... **Piztiak hor segitzen baitu... Posible da hortik ateratzea?**

Gai honi buruz aritzen garenean, aunitzetan gaintzeari

«LIBURUAN AGERI DENA EZ DA NIRI GERTATUTAKOA, FIKZIOA DA»

«HAURTZAROKO SEXU ABUSUEN EZAUGARRIETAKO BAT ISILTASUNA DA»

buruz mintzatzen gara. Baina nik uste dut ez dela gainditzen. Ezin duzu bizitza hutsetik hasi, pasatu zaizuna hor egonen da eta horrek modu batera edo bertzera eraginen dizu, baina hori borratzea ezinezkoa da. Horrekin nola bizi ikasi behar duzu.

Gizartean gaia nola ikusten duzu?

Lehenbiziko gauza, gaiari buruz solastatzea da. Bertze alde batetik, ni ez naiz aditua, baina uste dut haurrei ematen diegun hitzaren inguruan hausnartu beharko genukeela. Aunizetan haurren hitzari ez diogu helduenaren balio bera ematen, eta eman beharko genioke. Sexualitatearen inguruan ere gehiago mintzatu beharko genuke, gehiago eta modu onean. Sexu abusuei ez badiozu hitzik paratzen, zailagoa da salatzea eta horri buruz aritzea.

Esaldi eta erreferentzia aunitz ageri dira liburuan...

Idazten ari naizen edo idaztea burutan dudan bitartean, leitzen dudan guziak gai horretara eramaten nau. Eta bertze liburuak leitzerakoan esaldiak azpimarratzeko eta apuntatzeko ohitura handia dut. Liburuan ageri diren erreferentziak gai honekin lotutako gogoetetan lagundu didaten esaldiak dira. Interesgarriak iruditzen zaizkidalako sartu ditut, eta beharbada, bertze batzuek nik baino hobekiago azaldu dutelako...

Horietako bat Mari Luz Estebanena da: Zure inguruko faktoreak kontrolatzen ez dituzunean eta egoerak gainezka egiten dituzunean, zure gorputza da modelatu dezakezun bakarra...

Mari Luz Esteban nire irakasle izan zen Antropologia ikasketetan, hagitz irakasle ona da eta pertsona umila. Berarekin egin genuen ikasgaiari gorpuzaren bidez ikertzeko teknika bat landu genuen eta berarekin egin nuen gradu bukaerako lana. Sexu eraso zehatz bat hartu eta eraso hori jasan zuten emakume batzuk elkarrizketatu nituen, euren gorputzean



Elkar argialetxeak jakinarazi duenez, Txoperenaren liburua argitaratu denetik asteko libururik salduena izan da. TTIPI-TTAPA

sentitzen zutenean arreta jarriz, nahiz eta ez dudan uste burua eta gorputza bereizten ahal direnik. Hagitz aberasgarria eta interesgarria izan zen, eta uste dut nire liburuan eragina izan duela. Lideren gorputzean gertatzen dena kontatzen dut, eta hor dago piztiarena. Erasoak sortu dion piztia bere barrenean dago. Mari Luz Estebanena aipu hori Lideri gertatzen zaiona da. Egoerak gainezka egiten dio eta bere gorputzaren bidez saiatzeko da modu batera edo bertzera horri aurre egiten, sexuaren bidez, droga kontsumituz... Hainbat ihesbide ditu. **Mari Luz Esteban eskertu nahi izan duzun jendearen zerrendan ageri da, baina ez da bakarra. Zerrenda luzea da...**

«SUFRIMENDUTIK GAUZA EDERRAK ATERA DAITEZKE»

Liburu bat idaztea hagitz prozesu bakartia izaten da, eta beharrezkoa da bakarrik egotea. Baina nik inguruko jendearen babes behar dut. Uste dut horrela behar duela eta horrela izaten segitzea nahi nuke. Hortaz aparte, nahiko pertsona soziala naiz eta alde sozial edo jende horren babesik gabe, ezin izanen nukeen bakarkako lan hori egin. Liburu idazten ari nintzen bitartean jende aunitz izan dut ondoan, eta garrantzitsua iruditzen zitzaidan eskerrak ematea. **Liburu bidaideei eskaini diezu...** Liburu idazteko prozesuan eta aitzinetik gai honi lotutako bidelagun aunitz izan ditut. Hasieran *bidelagun* idaztea

«LIBURUA IDAZTERAKOAN JENDE AUNITZ IZAN DUT ONDOAN»

pentsatu nuen, baina batzuk bidelagun eta bertzeak bideetsai izan ditut. Etsai horiek ere epe luzera lagundu egiten dute. Modu batera edo bertzera bide honetan lagundu didaten guziei eskaini nahi izan diet.

Eta azalean neska gazte bat. Lide izan daiteke?

Azala Garazi Conde Orubek egin du, aitzineko liburuaren azala bezala. Hagitz eskertua nago, eta hagitz polita gelditu da. Alde batetik, Lideren kokapen fisikoa izaten ahal dena adierazten du, nobelan eszena aunitz bere etxeko terrazan gertatzen direlako, eta bertze alde batetik, azala nahiko iradokitzailea dela uste dut: Lide bizkarrez ageri da, bera bakarrik eta urrutira begira. Bakar-dade sentimendua erakusten du.

Hirugarren libururen bat izanen da?

Badut zerbait buruan, baina momentuz lasai hartu nahi dut.



Toki Ona Institutua

HEZKUNTZA BEREZIA

DOH2-EBO2.
LHZB-CFPE B modalitatea.

DBH1, DBH2, DBH3 eta DBH4

A, B eta D ereduetan
*Izen-ematea: maiatzak 14era arte
webeko loturatik*

Batxilergoko 1. eta 2. mailak

Zientziak eta Ingeniaritza eta
tecnologia, Osasun zientziak,
Humanitateak eta Gizarte Zientziak
modalitateetan D eredu.

*Izen-ematea: maiatzak 14era arte
webeko loturatik*

Erdi Mailako Lanbide Heziketa.

Mantentze Elektromekanikoa
D eredu

*Izen-ematea: apirilaren 29tik
maiatzaren 10era arte*

Goi Mailako Lanbide Heziketa.

Mekatronika industrialia D eredu.

*Izen-ematea: apirilaren 29tik
maiatzaren 10era arte*

*Hazi, hezi, lagun egin.
Aukera bertan, bertan Bortzirietan.
Hemen dugu ikasteko aukera.
Bortzirietako eragilea.
Bortziritarren aukera.*


Zatoz Toki Onara!



AURREMATRIKULA ONLINE



Gure web orrialdean bertan aurkituko duzue
ere aurrematrikula online egiteko galdetegia



Eztegara Pasealekua, 34 - 31780 BERA
T. 848 431 710 /Faxa: 948625 032
Posta Elektronikoa: iesbera@educacion.navarra.es
web orria: tokionabhi.web.educacion.navarra.es

Bideoa >>



Salles herriarekin senidetza nola egin lantzen ari dira

Udazkenerako bi herrien arteko topaketa bat antolatzeko asmoa dago

A. LARRETxea

Iazko udazkenean sinatu zuten Berako eta Sallesko Udalek senidetza ituna. Sallesko ordezkari bat Beran izan zen lehenik ituna sinatzen, eta ondotik Berako ordezkariak bisita itzuli zien Sallesera.

Bisita hori egin ondotik, senidetza hori lantzeko eta bi herrien arteko harremana bultzatzeko lan talde bat lanean ari da. Helburua Berako Ikastetxeak, musika eskola, kultur eta kirol taldeak Salleskoekin harremanetan jartzea da, elkarren ezagutza bultzatu eta

elkarren arteko harremana sortu eta sendotzeko.

Hainbat bilera egin ondotik, harremanetan dira herriko lau ikastetxeetako, musika eskola, bandako eta Gure Txokoa Futbol Taldeko arduradunak, eta bakoitzak bere alorretik, hainbat ekintza proposatu dituzte: ikasleak elkar ezagutzea, musika piezaren bat elkarrekin interpretatzea...

Talde bakoitzak egingen dituen ekintzez harago, udazkenerako topaketa bat egiteko asmotan dira. Aitzinerago zehaztuko dute eguna.



Kaxernan egiten ari dira, eta udarako bukatzea espero dute. TTIPI TTAPA

Babes ofizialeko etxebizitzetan izena emateko deia egin du udalak

A. LARRETxea

Nasuvinsa 35 urtetik beherako gazteentzako eta desgaitasunen bat dutenentzako alokairu sozialerako zortzi pisu egiten ari da Kaxernan. Bi eta hiru logelakoak izanen dira eta energetikoki efizienteak. 2022ko abenduaren 1ean esleituko dira etxebizitzak, Nasuvinsako

alokairu poltsan izena emanda daudenen artean. Izen-ematea modu telematikoan, zein aurrez aurre Nasuvinsako bulegoetan egin daiteke.

Udalak baldintzak betetzen dituztenei izena emateko deia luzatu diete, Berako etxebizitzaren premia erreala zein den ikusteko.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Astelehenerdik
ortziralera:
07:15etik
aitzina

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzina

LABE ZAR

948 631 076 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

Ansonena ostatu • jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 • BERA

EYSKALDYNA
OSTATU JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuko menua
Karta
Pintxoak
Errazioak
Bokatak
Plater konbinatuak

MAIATZAK 1
18:00etan

Irekiera bestara
gonbidatu nahi
raitugu!

Eztegara 2 • BERA • 651 78 67 31

IGONE

LIBURU-DENDA
PAPER-DENDA
JOSTAILU-DENDA
MARGO-DENDA

Kanttonberri, 4 BERA
Telefonoa eta 948 630 626
papeleriaigone@gmail.com

Apirilaren 23an
Liburuaren eguna
Apirilaren 20tik 26ra
%10eko deskontua
liburuetan

**Eskaintza eta
promozio
gehiago dendan**

1977tik
zuen zerbitzura



Lekukoa eskuz esku eraman zuten beratarrek. UTZITAKOA

Jendetza bildu zen apirilaren 9an Korrikaren bueltan

Bertsu bazkariko txartel guztiak salduta, 80 lagunetik goiti elkartu ziren Gure Txokoa elkartearen

A. LARRETXEA

Ordu erdi pasatxoko atzerapenarekin, baina, apirilaren 9an ailegatu zen Korrika Berara. Berara ailegatu aitzinetik Berako hainbat elkarte Sunbillaatik Igantzira bidean osatu zituzten beren kilometroak, eta ondotik ailegatu zen herrira Korrika. Bidasoko Bide Berdetik barrena Agerran sartu eta Ibardingo kaskora bitartean Berako hainbat elkarte eta ikastetxe eraman zuten lekukoa. Jende olde batek bete zituen Berako karrikak, eta haur zein helduk euskararen aldeko aldarri egin zuten.

Besta batzordea hasi da aurtengo bestak prestatzen

Azken bi urtetan Berako bestak ospatu gabe egon ondotik, aurtengo bestak antolatzeke asmotan da udala. Udalarekin batera besta batzordea arduratzen da besten antolatetaz, eta dagoeneko bi bilera egin dituzte aurtengo egitaraua zehazten hasteko.

Giro ederra bertso bazkarian

Korrikaren aitzakian bertso bazkaria antolatu zuten Berako Gure Txokoa elkartearen egun berean. Bazkaritarako txartel guztiak egun batzuk lehenago bukatu ziren, eta, denera 80 lagunetik goiti elkartu ziren bertsolarien jarduna aditzeko. Saioa Alkaiza eta Ekhiñe Zapiain ziren kantatzekoak, baina, azken orduan Alkaiza ezin izan zen bertaratu, eta Eneko Fernandez lesakarra aritu zen bere ordezt bertsoan. Bertso bazkariaren ondotik, Elektrotxufa elektrotxaranga alaitu zituen karrikak.

Azienda feria eginen dute apirilaren 30ean

Bi urteko geldialdiaren ondotik, borzgarrenez azia erakusketa feria eginen dute apirilaren 30ean, larunbat goizean. Herriko ganaduzaleek beren azia erakusteko parada izanen dute, eta bertzelako postuak ere egonen dira ikusgai.



Toki Ona Institutuko estalpean izanen dira mutxikoak. UTZITAKOA

Bortziriak Dantzan ekimenaren barrenean, mutxikoak apirilaren 23an

A. LARRETXEA

Bortziriak Dantzan ekimenaren barrenean, mutxikoak eta bertzelako dantzak dantzatzeko aukera izanen dute apirilaren 23an Jaiki Hadi taldearen eskutik. Toki Ona Institutuko estalpean izanen da, 18:00etan hasita. Erdizka Lauetan taldeak antolatu du

ekitaldia, Gure Txokoa elkartearen eta Berako Udalaren laguntzarekin.

Bertzalde, Gure Txokoa Dantza Taldea Beran martxoan egindako emanaldiaren ondotik, apirilaren 30ean Ataunen izanen da bertako Otsok dantza taldearekin elkartrukea egiteko.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Album ilustratuen erakusketa eta ekintza osagarriak

Etxepare sariketako lanak ikusgai izanen dira apirilaren 25etik maiatzaren 6ra liburutegian

AITOR AROTZENA

Azken urteotan Nafarroako hainbat toki entitatetako euskara zerbitzuek, tartean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Etxepare sariketa antolatu izan dute, haurrentzako album ilustratuen sormena bultzatzeko helburuarekin. Duela bi urte saritutako albumekin erakusketa bat antolatu zuten euskara zerbitzuek, eta Lesakan egonen da ikusgai, apirilaren 25etik maiatzaren 6ra. Erakusketaz gainera bi jarduera osagarri antolatu dira, haur zein gurasoei zuzenduak.

Erakusketa liburutegian egonen da ikusgai, apirilaren 25etik maiatzaren 6ra, astelehenetik ortziralerara, 14:00-20:00 bitartean. Etxepare sariketan saritutako album guzirik liburutegian daude, maileguan hartzeko moduan.

Solasaldia

Erakusketaren irekiera ekitaldi modura, apirilaren 25ean hitzaldi bat izanen da, *Nola erakarri haurrak euskaraz irakurtzera?* izenburupean.

Galtzagorri Elkarteko Intza Alkain izanen da hizlaria. Guraso, irakasle zein gai honetan interesa izaten ahal duen edozeini irekia da.

Dorotea tailerra

Erakusketari akabaila emateko, maiatzaren 6an *Dorotea* ipuin kontaketa eta collage tailerra izanen da 17:30etik 19:00etara, Amaia Egidazuren eskutik. Hain zuzen ere, Egidazuk irabazi zuen Etxepare Sariketa 2021 urtean, *Dorotea* album ilustratuarekin. Tailer hau 6-10 urte bitarteko haurrei zuzendua da, eta gehienez ere 20 haurrek parte hartu ahal dute.

Erakusketa Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatu du, Lesakako Udalaren eta Lesakako Liburutegi Publikoaren laguntzarekin.

Bertzalde, aipatzekoa da Literatura geraldia egitasmoaren barrenean, *Gogoan dut* irakurraldi musikatu eskainiko dutela Aritz Galarragak eta Ibon RG musikariak apirilaren 23an, larunbatean 19:00etan Harriondoan.



UTZIZAKOIA

Alondegia buruz lehen saio irekia

Alondegia berrasmatzeko udalak deitutako lehen saio irekia egin zen apirilaren 2an liburutegian. Udalaren arabera, «saioa ezin hobe joan zen. Alondegia etorkizuna zehazteko aitzinera pausoak ematen eta herri kohesioa hobetzen jarraitu genuen». Hurrengo saioa maiatzean egitekoa da.

Bixente Igarzabal Nafarroako duatloi txapelketan bikain

Apirilaren 9an Vianan jokaturako duatloian 12. izan zen Bixente Igarzabal, veterano mailan lehenbizikoa. Nafarroako txapelketa ere bertan erabaki zen eta, ezustean, hirugarren izan zen Beti Gazteko kirolaria. Beraz, bitan igo zen podiumera, veteranoetan garaile eta Nafarroako txapelketako hirugarren koxkan.



UTZITAKO ARGAZKIA



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina.tolosaechepare

XAGU
LIBURUDENDA

Tel./ Fax: 948 638 232

Apirilak 23
liburuaren egunean

10% eko **DESKONTUA**
liburuetan



'Liburu gozagarri' programak idazleak ekarri ditu eskolara

Castillo Suarez eta Yolanda Arrieta izan ziren martxoaren 30ean eta 31n Landagain eskolako ikasleekin

IRUNE ELIZAGOIEN

Martxoaren 30ean eta 31n Castillo Suarez eta Yolanda Arrieta idazleak Landagain eskolan izan ziren, Nafarroako Gobernuaren *Liburu gozagarri* programaren barrenean. Proiektu honen helburu nagusiak irakurzaletasuna bultzatzea eta emakume idazleen ikusgarritasuna areagotzea dira. Aitzinetik ikasgeletan idazle hauen *Krispeta hegalaria*, *Letren jolaslekua*, *Mari Xor* eta *Nitaz ahaztu dira* liburuak landu zituzten eta ondotik, beraiekin jorrazteko aukera izan zuten.

Bukatzeko, idazleek liburuak sinatu zituzten.

Mugikorrek erabiltzen ikasteko ikastaroa

Mugikorreren oinarritzko erabilpena ikasteko ikastaroa antolatu dute Kultur Etxean. Hasi berrientzat modu praktikoa eta errazean mugikorraren ohiko erabilpena erakutsiko dute. Asteazken arratsaldetan (5 egun) izanen da 16:00etatik 18:00etara, apirilaren 27an hasita. Ikastaroan izena emateko 948 63 53 86 telefonora deitu behar da arratsaldean.

Herriko Arkupeak elkarteko kideen besta igandean

Arkupeak elkarteko herriko bazkideek apirilaren 24an egingen dute ospakizuna. Igandean 12:00etan meza nagusia izanen dute eta 13:30ean bazkaria La Basquen. Ondotik mus txapelketa jokatu dute. Izena emateko 666 74 54 85 telefonora deitu behar da.

Sagardotegira gazteen ateraldia apirilaren 30ean

Apirilaren 30ean Adunako Aburuza sagardotegira bazkaltzera joanen dira herriko gazteak. Autobusa 13:00etan abiatuko da herri sarrerako aparkalekutik eta 03:30ean itzuliko da Hernanitik. Izena emateko 20 ordaindu behar dira Herriko Ostatuan.



LANDAGAIN ESKOLA

Korrika txikia apirilaren 8an

Korrika txikia egin zuten Landagain eskolako ikasle eta irakasleek apirilaren 8an. Eguerdian eskolako ataritik abiatu eta gurutzera, Landaburua, Larraburua, Arroseto Iturria, Errandonetik pasatuz, plazan bukatu zuten ibilbidea. Hainbat herritarrek Korrika 'handian' ere parte hartu zuten.



HERRIKO OSTATUA

Mus tximista txapelketa Herriko Ostatuan

Apirilaren 9an mus tximista txapelketa jokatu zuten Herriko Ostatuan. Hamahiru bikotek hartu zuten parte eta horien artean txapeldunak Xabier Berrueta eta Jon Santesteban suertatu ziren eta bigarrenak Manuel Retegi eta Angel Mari Iribarren. Zorionak!

www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijiro zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoan kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

MARTIX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

USOA

Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244

ETXALAR

«Enpresaren helburua gu isilaraztea da baina ez du lortuko»

LOREA FLORES COMPAINS GREENPEACEKO HEGO EUSKAL HERRIKO KOORDINATZAILEA

Caparrosoko makroetxaldeak sortzen dituen kalteen inguruko txostena «iraingarrizat eta kalumniatza» jo du enpresak, eta hark deituta adiskidetze ekitaldi batean parte hartu du Floresek

G. PIKABEA | LESAKA

Caparrosoko makroetxaldearen jabea den Valle de Odieta enpresak deituta, hamalau elkartetako hamabortz lagunek parte hartu zuten martxoaren 30ean Nafarroako Justizia Jaurerian egin zuten adiskidetze ekitaldian. Hamalau eragileek makroetxaldeak eragiten duen kutsadurari buruz txostena aurkeztu zuten joan den irailean Nafarroako Parlamentuan eta enpresak iraingarrizat eta kalumniatza jo zuen txosten horretan aurkeztutako informazioa. Hamabortz lagun horietako bat izan da Lorea Flores Compains lesakarra.

Zein balorazio eginen zenuke adiskidetze ekitaldiaren inguruan?

Bi kontu nabarmenduko nituzke. Batetik, adiskidetze ekitaldia pauso formal bat baino ez zen, irainengatik eta kalumniengatik salaketa paratu aitzinetik enpresak bete behar zuena. Enpresak txostenean ageri den informazioa faltsua dela onartzea eta barkamena eskatzea eskatu zigun, eta hori onartu ez genuenez, ez zen adostasunik izan. Abokatuak bakarrik sartu ziren, eta erran digutenez, enpresak salaketa egiteko asmo garbia du. Bertzetik, pozgarria izan zen epaitegiaren atarian babesa emateko hainbertze jende bildu izana. Jende dezentte bildu zen eta hagitz kontent gaudere erantzunarekin.

Adiskidetze ekitaldiaren oinarrian, hamalau eragileek iaz aurkeztutako txostena dago. Espero zenuten?

Ez. Greenpeaceko kide bat naiz, eta joan den urtean, adibidez, desobedientzia zibila erabiliz ekintza zuzena egin genuen eta horregatik prozesu batean gaudere. Horrena espero genuen. Baina kasu honetan, hainbat eragileren artean dokumentu ofizialak eta datu ofizialak bilduz txosten hau aurkeztu genuen Nafarroako Parlamentuan, agintariei leitu eta administrazioak neurriak hartzeko, Caparrosoko makroetxaldea nahi duena egiten ari dela iruditzen zaigulako. Bertzerik gabe, txostenak informatzea zuen helburu, eta ez genuen horrelako ondoriorik espero.

Txostenean behitegiko irregulartasunak eta horrek ingurumenean duen eragina azaldu zenuten...

Alde batetik, enpresak dituen zigor espedienteen inguruko informazioa ageri da. Ebroko Ur Konfederazioak, Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuak... Hainbat erakundek

enpresak ustez egin dituen lege hausteak bildu dituzte. Badira irekiak dauden prozesuak, salaketak... Horietako aunitz geldirik daude enpresak errekurtsioa aurkeztu duelako. Eta bertzetik, bertze datu aunitz bildu ditugu txostenean: makroetxaldeak sortzen dituen hondakinei buruzkoak, gorotzak zabaltzeko behar duen lur kopuruaren planari buruzkoak, Marcilla, Caparros, Villafranca eta inguruko herrietan sortutako ingurumen kalteen ingurukoak... Batez ere uraren kalitateari buruzko informazioa da, ikusi baita 2010etik herri horietako uraren kalitatea okerrera doala. **Datu ofizialak edo datu ofizialetan oinarritutako txostenak direla diozu. Dena publikoa da hortaz?**

Bai. Dokumentu aunitz administrazioek egingakoak dira, eta adibidez, uraren kalitateari lotutakoa eragileok egina da, baina Nafarroako Gobernuak bere web orrian dituen uraren



Lorea Flores martxoaren 30ean epaitegiaren atarian adierazpenak egiten. GREENPEACE

kalitatearen jarraipen sareko datuekin osatua. Nitrato neurketak gobernuaren webgunean daude, eta hor ikusten da nitrato kopurua igotzen ari dela. Txostenak 178 orrialde ditu eta zazpi bakarrik dira sarrera moduan guki idatzitakoak, nolabait ondotik heldu den dokumentazioaren interpretazioa egiten dutenak. Gainerakoa informazio ofiziala da.

Enpresak irainak eta kalumniak leporatu dizkizue...

Zazpi orrialde horietan idatzitakoa hartu dutela uste dugu. Beharbada hizkera arruntean erabiltzen ditugun adierazpenak ageri dira, zorrotz begiratzen hasita zuzenak izan ez daitezkeenak. Adibidez, irekitako zigor espedienteen inguruan, lege hauste horiek beteak diren galdetu dugu txostenean. Hor, igual, «ustezko lege hausteak» erran behar genuen... Hori erabiliz haien izen ona zikindu dugula leporatu nahi digute. Baina zerk du indar gehiago guki idatzitako zazpi orrialde horiek edo ofizialak diren gainerako 171 orrialdeek? Datu guztiak egiak dira, eta gauzak ez direla ongi egiten ari adierazten dute. Hortaz, zer da enpresaren izen ona kaltetzen duena? **Adiskidetze ekitaldi iraileko joateko deia eginda, zuek gibelera egitea espero zuten enpresak?**

Iduri duenez bai. Gure ustez, enpresaren helburua ez da guri isun ekonomikoa jartzea; haien helburua gu isilaraztea da. Neurri batean gu ikaratzea eta guki gibelera egitea espero zuten. Azkenean, abokatuaren arteko giroa ez zen batere goxoa izan, eta prozesuarekin segitzeko intentzio garbia omen dute.

Eta hamalau eragileek elkarlanean segituko duzue?

Bai, dudarik gabe. Hamalau eragile eta hamabortz lagun gara, eta guztiak bat gatzoz aitzinera segitu behar dugula erraterakoan. Neurri batean txosten bat egin eta horrelako prozesu batean sartu izanak hasiera batean ezinezona sortzen du, baina argi dugu honekin ez gaituztelako isilduko, eta

aitzinerara segituko dugula. Enpresak urte bat du salaketa egiteko, etabitarlean, guklanean segituko dugu, hasierako helburuarekin; alde batetik, administrazioak Caparrosoko etxaldea eragiten ari den kalteak ekiditeko neurriak har ditzan, eta bertzetik, Nafarroan dagoen abeltzaintza industrialaren ereduak aldatzeko momentua dela dio.

Zer espero duzue urtebeteko epean?

Ikusiko dugu. Gure asmoa ahalik eta indar gehien egitea da. Gizartearen erantzuten ari da, eta babes handia hartzen ari gara. Ez gara hamalau katu, jende aunitz gara eredu honen kontra gaudenak. Ea horrek enpresari bi aldiz pentsarazten dion. Salaketa mantentzen badute kontuak hedabideetan segituko du, eta seguru hori ez dela sobera ona eurentzat.

Nafarroako abeltzaintza industrialaren ondorioak behin baino gehiagotan salatu izan dituzue..

Batez ere 1980az geroztik sekulako aldaketa izan du Nafarroan abeltzaintza ereduak. Familiako etxaldea izatetik ustiategi erraldoietara pasatu da, kanpoko baliabideen menpe dauden eta hondakin pila sortzen duen eredura, eta horrek ondorioak ditu. Nafarroan, batez ere, Iruñetik hegoaldera, Ebro ibarrean arazo handiak dituzte uraren kalitatearekin. Gune aunitz hagitik kutsatuak daude, baina ez abeltzaintza industrialagatik bakarrik. Inguru horretan ugaritu den nekazaritza eredu industrialak ere badu zerikusia. Uraren kalitatearen egoera eta kanpoko baliabideekiko menpekotasuna ikusita eredu aldatzeko momentua da. Elikadura burujabetzan oinarritutako ereduaren alde egin behar dugu. **Nafarroako Gobernuari makroetxalde gehiago ez baimentzeko eskatu diozue. Zein jarrerarekin ikusten duzu gobernuak?**

Batzuetan iduri du baduela nolabaiteko borondatea. Izan ditugun bileretan, hitzak onak izan dira. Lege batzuekin saiakera batzuk egin dituzte, nahiz eta azkenean ez diren atera edo



Lorea Floresek Nafarroako abeltzaintza industrialaren eredu aldatzeko momentua dela dio.

auzitegiek ez dieten arrazoirik eman. Halere, aukera on aunitzi alde egiten uzten ari dira. Adibidez, berriki, aldaketa klimatikoaren legea onartu dute, eta abeltzaintza industrialak aldaketa klimatikoarekin duen lotura ikusita, lege hori ezinbertzeko tresna zen abeltzaintza ereduaren aldaketa sustatzeko. Alde horretatik, lege hori hanka-motz gelditu da. Hitz politikak bai, baina ekintzak ez dira behar bezain eraginkorrak. **Zein etorkizun ikusten diozu Nafarroako abeltzaintzari?**

Aldatzen ez bada, latza. Ukrainako gerrarekin eta horrek sortu duen erregai fosilen garestitzearekin, pentsuak eta lehengaiak izugarri garestitu dira. Kanpoko baliabideen ha-

lako menpekotasun sakona duen eredu bat mantentzea zaila izanen da eta horrek kalte zuzenak ditu ingurumenarentzat eta sektore horretatik bizidun jendearentzat. Gero eta prekarioagoa da hor lanean dabilen jendearen egoera. Eredu lehenbailehen aldatzen ez bada, epe luzera ez da jasagarria izanen. Baina ez ingurumenagatik bakarrik, baita sortzen dituen eragin eta ekonomiko eta sozialengatik ere.

Valle de Odieta enpresa da Sorian 23.520 behiko ustiategi bat eraiki nahi duena. Zertan da proiektua? Baimenak falta dituzte. Duero-ko Ur Konfederazioarekin izaten ari dira oztopo handienak, baimen dezente ukatu dizkiete. 23.520 behiren ustiatagia man-

tentzeko sekulako urkontsumoa behar da, eta konfederazioa kezkatua dago Duero-ko arroan ez ote den ura aski izanen makroetxalde hori irekitzeko. Estatutuan ere behi ustiategiaren inguruko lege batekin ari dira. Bi alde horiek ustiategiari fretoa paratzen ahal diete, baina Nafarroako egoera ikusita ezin da lasaitu. Nafarroan legeak urratu dituzte, gauzak gaizki egiten ari dira eta halere, iaz 3.000tik 7.000 behitara handitzeko baimena eman zieten. Baimena Nafarroako Gobernuak eman zien. Hasieran foru dekretu baten bidez ukatzen saiatu ziren, baina Nafarroako Auzitegiak dekretu horrekin ezin zela handitzea eten erran zuten. Gobernuak dio behartua dagoela baimena ematera, baina izanen ziren geldiarazteko bertzeko moduak. Auzitegiaren hitzetan enpresaren interesen kontrakoaren gobernaren dekretua, baina nola liteke enpresaren interesak baino guttiago balio izatea sortzen dituen kalteak?

«DATUAK EGIAK DIRA ETA ENPRESA EZ DELA ONGI ARI ADIERAZTEN DUTE»

«ABELTZAINZTA EREDUA ALDATZEN EZ BADA ZAIL DU ETORKIZUNA»

IGANTZI



Korrika ttikia, Korrika 'handia' eta lasterketaren ondoko gosaria.

Animazio handia ekarri du Korrikak aurten ere herrira

Bezperan Korrika Ttikia egin zuten eskolako haurrek eta Korrika handiaren ondotik ere zenbait ekitaldi egin ziren

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Korrikaren inguruko ekintze-kin bezperan hasi ziren herrian, eskolako haurrek Korrika Ttikia ospatu bait zuten.

Apirilaren 9ko ordu ttikitan ailegatu zen Korrika gurera ere. Errotondan hartu genuen lekukoa igantziarrok eta Eskola, Guraso Elkarte, Gazte, Biltoki eta Udalaren eskutik pasatu ondotik, lekukoa lesa-karrei pasa genien Aisteneko-

bordan. Giro ezin hobean aritu ginen lasterka eta ondotik indarberritzeko eta besta giroari segida eman nahian, Biltoki elkarteak gosaria antolatu zuen.

Eguerdian partean berriz, gazteek antolatuta triki-poteoa izan genuen eta ondotik bertso bazkaria eguerdiko 14:30ean Baratzondon Josu Sanjurjo eta Joanes Illarregi bertsolariekin.

Apirilaren 20tik aitzinera jubiloteka zerbitzua eskainiko dute asteazkenero

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen eskutik jubilotekaren aurkezpena burutu zen Baratzondon apirilaren 7an. Bertan talde polita elkartu zen jubiloteka martxan jartzeko ilusioz. Astean behin bilduko dira, asteazkenetan 16:30etik 18:30era.

Aipatu dutenez, hainbat alor jorratuko dituzte, hala nola gorputz ariketak, eskulanak, buru ariketak... beti ere partehartzaileen gustuetara egokituta. Ekintza guzti hauen dinamizatzailea Olaia Loiarte



Asteazkenero bilduko dira.

izanen da. Jubiloteka aste honetan, apirilaren 20an, martxan jartzekoa da eta antolatzaileek 60 urtetik goitiko herritar guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte.

Canabal-Aldabe Erregearen Kopan ere txapeladun

Oian Canabal Etxarte eta Joseba Aldabe Etxeberria herriko pilotariek klubaren arteko Errege Kopa txapelketako finala irabazi dute, Oberenarekin. Apirilaren 10ean Labriten jokaturako finalean Huarte klubeko Yoldi eta Beroizi irabazi zieten (2-10, 10-2 eta 2-5). Bertze kopa bat herrira! Zorionak bikote!



UTZITAKO ARGAZKIA

Arduo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136



744 484 361
ttipi-ttapa

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es





Irudi ikusgarriak utzi zituen apirilko lehen larunbateko probak IrriSarrin. UTZUTAKOAK

65 txirrindulari lehian DH IrriSarri Bike txapeketan

Elite mailan hirugarren izan zen Zumai Txoperena Eugi igantziarra

TTIPI-TTAPA IGANTZI
DH IrriSarri Bike Nafarroako Txapelketa jokatu zen IrriSa-

rri Land parkean apirilaren 2an. Lasterketa pista gorritik egin zen eta egun horretako

parte-hartzaileentzat bakarrik ireki zen. Guztira 65 biker lehiatu ziren eta denborarik onena Martxel Oronozek egin zuen (1.41.23). Bera izan zen M30 kategoriako txapelduna. Leo Cazaux txirrindulariak egin zuen bigarren denborarik onena (1.41.93) eta 23 urtez beheitiko kategorian nagusitu zen. Elite mailan Jon Otamendi gailendu zen (1.42.31) eta kategoria honetan hirugarren izan zen Zumai Txoperena Eugi igantziarra (1.43.77).

SAILKAPENAK

ELITE	
1. Jon OTAMENDI	1.42.31
2. Xabier RUIZ	1.42.60
3. Zumai TXOPERENA EUGI	1.43.77

EMAKUMEAK	
1. Naroa PRIETO CUESTA	2.11.07
2. Haizea PRIETO CUESTA	2.18.81

KADETEAK	
1. Eneko IPINZA	1.52.29
2. Asier LEON	1.54.19
3. Ekhi MENDIZABAL	1.54.91

JUNIORRAK	
1. Alexix SALAUN	1.44.09
2. Oxel MINGUEZ	1.48.99
3. Martin GIBELALDE	1.52.10

M40-M50-M60	
1. Mario ADAN CEBALLOS	2.24.82

23 URTEZ BEHEITIKOAK	
1. Leo CAZAUX	1.41.93
2. Patxi CASEMAJOR	1.42.12
3. Ekhi MUNDUATE	1.45.94

M30	
1. Martxel ORONOZ	1.41.23
2. Markel URIARTE	1.44.14
3. David RAMIREZ	1.58.00

IGANTZIKO IGERILEKUA eta OSTATUA KUDEATZEKO DEIALDIA 2022

2022ko ekainaren 11tik irailaren 11ra.
 11:00etatik 21:00etara

ZER ESKAINTZEN DU UDALAK EMATEKO DAGOEN ZERBITZUAREN TRUKE

- 1.500€ arte.
- Igerilekuetako eguneroko sarreraren %25
- Ostatuaren etekina. (Argia eta ura dohainik)
- Soroslea eta piztaren kudeaketa Udalaren esku.

KUDEATU BEHARREKO ZERBITZUA

- Ostatuaren kudeaketa.
- Igerilekuetako **aldagela eta komun** garbiketa.
- Sarreraren **ardura**.

ESKAITZAK AURKEZTEKO EPEA

Apirilaren 18tik maiatzaren 9ra, baldintza plegua eta informazio gehiago: www.igantzi.eus

948 63 77 81

Apirilaren 28an Literatura Geraldia izanen da

Nerea Loiola idazlearekin, 'Epizentroa' bere liburuaren inguruan solasaldia antolatu dute

NEREA ALZURI

Joan den otsailean Literatura Geraldia abiatu zituzten Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitateak. Literatura solasaldiak eta lan-tegiak proposatzen dizkigu estreinako edizioa duen ziklo honek eta herrian, apirilaren 28an, geldialdia egingen du.

'Epizentroa' liburuaz

Nerea Loiola idazlearen *Epizentroa* liburuari buruzko

solasaldia antolatu dute. Idazlea bera ere bertan izanen da eta berarekin liburuari buruzko tertuliatxoa egiteko modua izanen da. Azken finean, horixe da ekimen honen helburua. Ez da nahitaezkoa solasaldira joan aitzinetik liburu leitua izatea. Hala ere, norbaitek aitzinetik leitzeko liburu maileguan hartu nahiko balu, jakin dezala Berako eta Lesakako liburutegietan badela aukera.

Hitzordua apirilaren 28an, ortzegunean, 17:30ean, Baskulan izanen da.



UTZITAKOA


Bertako gaztainari buruz ikasten

Apirilaren 9an talde ederra elkartu zen bertako gaztaina berreskuratzeko egitasmoaren baitan egindako saioan. Goizean Argatsoron, lehendik egindako txertoak nola doazen ikusi eta kimaketak egin zituzten. Ondotik txerto motak erreparatu zituzten. Arratsaldean, Baskulan ikastaro teorikoa izan zuten.

 <p>Denda. 948 631 217 T. 630 136 863 Julio Caro Baroja, 6 - BERA jaurenabera@gmail.com</p>	<p>Elektrizitate lanak orokorrean Erreformak, etxe berriak Lantegietako mantenu lanak</p> <hr/> <p>Exetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa Antenak, satellite bidezko instalazioak</p>
--	--

Apiril hasieran herria zuri-zuri

Apirilarekin batera herri kas-koa eta mendi tontorrak zurituta agertu zitzaizkigun. Negua giblean utzi genuen eta aspaldiko partez, apirileko elurrean, argazki ederrak atera genituen. Jose Ramon Amorošek ateratako argazki hauxe da horren adibide.



TTIPI-TTAPA ETA KORRIKA.EUS

Emozioz beterik lasterka Korrikarekin!

Apirilaren 8ko arratsaldea hunkigarria eta ederra izan zen. Korrika ttikia izanagatik, handia izan zen bizitutakoa. Apirilaren 9ko goizaldean, berriz, hamarnaka herritarrek parte hartu zuten Korrikan. Ederra izan zen eta lasterka aritu ondotik txokolate beroa hartu zuten elkarteetan.

<p>E D A R I A K</p>  <p>MANUEL TABERNA S.L.</p> <p>Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa) Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11 tabernabera@gmail.com www.tabernaedariak.eus</p>

Bortzirietako euskalgintzaren saioa larunbatean

Berako Kultur Etxeko erakusketa saioan egingen dute saioa apirilaren 23an, 10:00etan hasi eta 12:00ak arte

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, Bortzirietako euskalgintzaren gogoeta eta analisia egin zuten iazko udazkenean Bortzirietako hainbat euskaltzalek Lesakan. Euskalgintzaren egoera sakon aztertzeaz harago, bertze hainbat eskualdetako proiektuak ezagutu zituzten, Tolosaldekoa, eta Hernanikoa kasu.

Saio horien ondotik sortu zen Bortzirietako euskalgintza berrakibatzeke, eta eskualde mailako euskara talde bat an-

tolatzeko lan talde bat. Jardunaldiaz geroztik lanean ibili da talde hori, etorkizuneko Bortzirietako euskara taldearen oinarriak zehazteko asmotan. Udazkenetik orain arte egindako lana aurkeztea da asmoa Beran publiko aitzinean egingen duten saioa. Berako Kultur Etxeko erakusketa gelan izanen da, apirilaren 23an, 10:00etan hasi, eta 12:00ak bitartean. Euskaltzale orori egin diote gonbidapena bertan parte hartzeko.

Bi zatitan banatuko dute saioa. Saioaren lehenengo



lazko udazkenean Lesakan egindako gogoeta saioko une bat. UTZITAKO ARGAZKIA

zatian iazko udazkenean hasi, eta gaur egun arte egindako urratsak aletuko dituzte talde eragile horretako kideek. Ondotik, taldetan elkartuta, egindako lan horren analisia egingen dute, eta taldeetan sortutako proposamenak aurkeztu eta denen artean eztabaidatuko dituzte.

Adostasuna helburu

Behin taldetako jarduna bukatuta, ekarpenak jaso, elkar-

tearen oinarriak zehaztu eta denen artean adostea izanen da helburua.

Lan saioarekin bukatzeko, elkarrearen hurrengo urratsen eta etorkizuneko asmoan inguruan solastatzea da asmoa, eta hamaiketako batekin bukatzea.

Berako saioa irekia izanen da Bortzirietan bizi diren eta euskalgintzaren parte diren, edo izan nahi duten herritar guztientzat.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com















Korrika ttikia, merienda eta Korrika. ESKOLAK UTZIAK, GORETI ANIZAR ETA IXI MARTIARENA

Korrikaren inguruan gozatua hartu dute ttikiek eta nagusiek

Korrika Ttikia, txokolatea, Txan magoa, Egunean behin herrikoia, afaria eta Korrika trenabidean barna ibili zen

MAIDER PETRIRENA

Apirilaren 8an Korrikaren eguna ospatu zen herrian. Eguerdian eskolako irakasle eta ikasleek korrika ttiki egin zuten. Gelaka herriari buelta eman zioten eta plazan akitu zuten. Bertan familia argazki eder bat atera zuten. Arratsaldean berriz, guraso elkarteak antolatuta, txokolatea izan zuten Ulibeltzak Elkarteak. Ondotik, elkartetik udaletxe-raino korrika ttikia egin zuten bertan Txan magoaren ikus-

kizunaz gozatzeko aukera baitzuten. Illunabarrean, berriz, Ulibeltzak elkarteak, Antrotokik antolatuta, *Egunean behin herrikoia* jokatu zuten. Ondotik, afari autogestionatua eta euskal musikaz gozatzeko aukera ederra izan zuten. Goizeko 03:30ean labaderoan elkartuz, herriari zegokion kilometrorra, 2213ra, kuadrilla ederra joan zen. Labaderoan ere bertze kuadrilla bat gelditu zen eta Korrikaz eta giroaz gozatzeko aukera izan zuten.



MAIDER PETRIRENA

Jaione Otxandorena 'Biba zuek' saioan

Jaione Otxandorena Andiarena herritarra ETBko *Biba zuek* saioan atera zen. Jaionek eta Timoteo Etxeberriak Munduko mus txapelketa 2018an irabazi zuten Argentinan. Bere afizioa, musaz, hitz egiteko aukera izan zuten. Munduko mus txapelketa irabazi duen lehen emakumea izan da.



ANDER ZELAIA

Liher Lastiren denboraldiko lehena

Liher Lastiri Aranbarri herritarrek XIII. Rally Bidasoan parte hartu zuen apirilaren 2an Hondarribian. Denboraldiko lehendabiziko proba izan zen herriko auto gidariarentzat eta osorik eta gustura akitu zuen. Piloto lagun Doneztebeko Gorka Iribarren Gonzalez dabil. Zorionak.

Agirre anaiak 2020ko EHko mus txapelketan

2020ko Euskal Herriko mus txapelketako finala apirilaren 9an jokatu zen Leitzako kiroldegian. Sunbillako Jose Martin eta Jose Luis Agirre Iriarte anaiak jokatzeko aukera izan zuten. Goiza polita pasatu zuten, nahiz eta aitzinera segitzeko aukerarik ez izan.

Bertiz eta Herrera Superprestigio proban bikain

Apirilaren 10ean Caparrosen jokaturako Superprestigio nazioarteko proban bikain ibili ziren herriko bi txirrindulariak. Eneit Bertiz seigarren izan zen junior kategorian eta Koldo Herrera ere seigarren izan zen 23 urtez beheitikoetan eta 20. sailkapen orokorrean.

Aparkatzeko gune urdinik izanen denik ukatu du udalak

Sare sozialen bidez hedatu diren mezu faltsuei erantzun die Leire Ortuoste alkateak

TTIPI-TTAPA

Azken asteetan sare sozialetan eta mezularitza zerbitzuen bidez hedatu da Donezteben ORA edo aparkatzeko ordainpeko gune urdina ezartzeko tan direla. Gaztelera hutsean zabalduzako mezuetan, erabiltzaileek «beregala Doneztebeko Gune Urdineko APPa jausteko» modua dutela aipatzen zuten, baita «ordutegiak, prezioak eta isunak zein diren kontsultatzeko aukera». Gai honi buruz Leire Ortuoste alkateari galdetuta, «guztiz gezurra dela» aipatu digu: «Doneztebeko Udalak ez dauka inolako asmorik ordainpeko gune urdinik ezartzeko herri-gunean». Halere, gune urdinaren inguruko albiste faltsu hauen hedapena ez omen da Doneztebeko kontua bakarrik. Urte hasieran aurkeztu zuen

udalak herriko mugikortasuna hobetzeko plana, hiru ordenantza berritan oinarritua, baina inon ez da ageri ordainpeko gune urdina ezarriko duenik. «Ordu eta erdiko aparkalekuak badira, mugikortasuna hobetzeko helburuarekin, baina ez dugu ordainpeko gune urdinik paratu eta ez dugu paratzeko asmorik ere» azpimarratu du alkateak.

Aldi berean, herriko mugikortasuna hobetzeko planak dakarren berritasunei buruzko jakingariak emateko batzar informatubia egin zuen udalak herritarrekin hilaren 7an. Apirilaren 11tik maiatzaren 8ra bitarte, toki ezegokian dagoen kotxeak oharra hartuko duela azaldu du udalak. Maiatzaren 9tik aitzinera, berriz, toki ezegokian aparkatzeagatik isuna paratuko dute.



NAFARROAKO GOBERNUA

Ukrainako ikasleak ikastetxeetan

Jarkoveko bonbetatik ihesi Donezteben hartu dute aterpe Ukrainako hiru familiek eta bi ikasle berri dituzte San Miguel eta Mendaur ikastetxetan: Igor eta Alexia anai-arrebak. Argazkian, Ernesto Dominguez eta Bihotz Unanua zuzendariekin eta Galina itzultzailearekin ageri dira.



Errekako judokak apirilaren 2an Mendillorriko kiroldegian. ERREKA KE

Lau domina lortu dituzte Errekako judoek Nafarroako Kirol Jokoetan

TTIPI-TTAPA

Infantil eta kadete mailetan judoko Nafarroako Kirol Jokoen azken jardunaldia jokatu zuten apirilaren 2an Mendillorriko kiroldegian. Azken bi faseetan bezala, honetan ere Erreka elkarteak judo eskolako sei kirolari izan ziren lehian eta seirak podiumera igotzeko borrokan izan ziren. Horietaatik lau lortu zuten.

Kadete mailan, Maialen Maritxalar -63 kiloko kategorian eta Gaxuxa Zelaieta -57 kiloko kategorian aritu ziren. Biek lortu zuten podiumera igotzea. Maialenek bigarren postua lortu zuen eta Gaxuxak hirugarrena. Noelia Ariztia entrenatzaileak dioenez, «ehuneko ehuna utzi zuten tatamiaren gainean eta emaitzak iritsi zaizkie».

Bertze aldetik mutil infantiletan, Eneko Zulaika -60



Gaxuxa Zelaieta eta Maialen Maritxalar.

kiloko kategorian, Joanes Juanotena (-46 kilo), Xabat Maritxalar (-42 kilo) eta Unai Irigoieb (-38 kilo) lehiatu ziren.

Lauak borrokatu ziren brontzea lortzeko, eta Joanes eta Xabat izan ziren hirugarren postua lortu zutenak. Beraz, balorazio ona egin du Noelia Ariztiak: «Guztiak lan bikaina egin dute. Aitzinera eginez eta egindakoarekin aunitz ikasiz».

Maiatzaren 1eko manifestazioa deitu du LABek herrian

LAB sindikatuak deituta, maiatzaren 1eko langileen egunaren harira Baztan-Bidasoko manifestazioa Donezteben egingen da. 12:00etan abiatuko da Avia gasolindegitik, *Altxa! Egin dezagun posible. Zaintza lanak, enplegua, ondasuna banatu* goiburupean.

Lauko finaletik puntu bakarrera akitu du Errekak

Denboraldi polita burutu du Erreka eskubaloi talde nagusiak. Txapeldunen faserako sailkatzea lortu zuen, baina lehen fasean puntu gutti pilotuta. Horrela, zail zuen lau-ko finalean sartzea, baina puntu bakarrera gelditu da azkenean.



Pulunpa eskolako ttikienak Korrika Ttikian abiatzeko prest. PULUNPA ESKOLAK UTZITAKOAK

Korrikarekin bat herrian eta herritik kanpo ere

Korrika ttikia, Korrika handia, herriko bertsolariak Bertso-Korrikan, Trikidantza bukaera bestan...

ARKAITZ MINDEGIA

Martxoaren 31an abiatu zen Korrikaren 22. edizioa eta apirilaren 10ean Donostin akitu. Aurtengo edizioan ere herritik pasatu zaigu euskararen aldeko lasterketa handi hau. Malerrekako eskolako kilometroan eta Iturengo udalak harturiko kilometroetan herritar ugari hartu zuen parte, Iturengo joaldun eta hartzaeren artean.

Hala ere, Korrikaren bisita izan baino lehen, herrian ekin tzak egin ziren eta herritik kanpo ere, herritarrek han eta hemen parte hartu zuten hainbat ekitalditan. Alde batetik, apirilaren 8an, Pulunpa eskolan Korrika Ttikia antolatu zuten. Eskolatik atera ondok, irakasle eta ikasleak lekukoarekin herrian barrena ibili ziren lasterka. Akabaila bikaina eman zioten, lekukoak

barrenean zaukan esaldia irakurriz eta, nola ez, *HitzEkin* abestiaren koreografia dantzatzuz. Lekukoak barrenean zeraman esaldia irakasleek aukeratu zuten, 3. eta 6. maila arteko ikasleek sortutako artean gustukoena, hain zuzen.

Donostian ospatu zen amaierako besta erraldoira ere herritar ugari animatu zen. Bertan prestatutako guneetan adin guztietarako ekitaldiak zeuden eta horien artean kaian Trikidantz taldearen kontzertua izan zen.

Bertzetik, Alazne Untxalo eta Iker eta Egoitz Gorosterrazu bertsolariak aritu ziren Malerrekako bertso-eskolak Zubietan hilaren 7an antolatutako Bertso-Korrikan. Biharamunean Donezteben Gazte Burrenba antolaturiko triki bertso-poteoan ere izan ziren Gorosterrazu anaiak.



Trikidantz taldea Donostian.

Lupe Lekuona 'Liburuak Gozagarri' egitasmoan bisitan

Lupe Lekuona ipuin kontalaria izan zuten eskolako ikasleek, *Liburuak Gozagarri* egitasmoaren barrenean. Txikienak 45 minutuz eta koxkorrenak berriz ordubeteko saioan, gustura ibili ziren ikasleak eta artista. Ipuinen gaia *Animaliak* izan zen.

Aurtizko joaldunak Bergarako Erramu Zapatuan

Aurtizko joaldunak apirileko bigarren larunbatean Bergaran ospatu zen Erramu zapatu goizean beraien joare soinuak zabaltzen aritu ziren. Urte dexte daramazkitez hitzordu honetara joaten eta aski gustura bueltatu ziren aurtengoan ere.



PULUNPA ESKOLAK UTZIAK

Hondakinei buruzko prebentzio tailerrak

Malerrekako mankomunitatearen eskutik hondakinen trataerari buruzko tailerrak egin zituzten apirilaren 11n eskolan. Hondakina non eta nola bota jakiteko ikastaro baliagarria izan zen eta *Bokatona* bana oparitu ziren mankomunitateak ikasleei, ea honela aluminiozko papera gutxiago erabiltzen den.



Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Juan Telletxea doneztebarra kantari, Berto-Korrikam. UTZIAKOA

Bertsoak, solasaldia, afaria eta Korrika

Berto-korrika arrakastatsua izan zen, Iñaki Perurenaren solasaldia hunkigarria eta Korrikako kilometroak ederrak

FERMIN ETXEKOLONEA

Korrika girotzeko Bertso Korrika egin zuten apirilaren 7an, ostegun arratsaldean Herriko Ostatuan. Iturengo Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaia eta Alazne Untxalo, Juan Telletxea doneztebarra eta Irati Agesta eta Irati Arrieta sunbildarrak aritu ziren bertsotan, Maialen Belarra gai-jartzaile zutela. Saio polita egin zuten. Edorta Murua laguntzaile izan zuten, musikari eta teknikari lanetan. Ederra izan zen biharamunean Iñaki Perurenak Zubietan egin zuen bakarrizketa ere. Harria eta gizakiaren inguruko hausnarketekin hasi zuen bakarrizketa, harriaren lotura estua azalduz, Antzinarotik hasi eta gaur egun artekoa. Ondoren, bere bizi-penak nolakoak izan diren azaldu zuen, txiki-txikitatik aitona esker lortu zituen baloreak eta haien ondorioak aztertuz. Bertsotan aritzeko denbora ere izan zuen, esaterako, Ameriketara izan zenean bertara artzain bezala joandako baztandar batzuei botatakoa, edota, emazteari



Iñaki Perurena bakarrizketan.

lehenengo haurra izan zenean kantatutakoa. Bakarrizketa bukatzeko, harriaren aurrean jarri eta hitz egin zion. Ondotik, afarian 55 lagun egon ziren eta afalondoan giro ederra. Korrikaren txanda, udalaren eskutik Ainhoa Mutuberriak hartu zuen lekukoa. Gazte batzuk ere parte hartu zuten, erdibana hartua baitzuten kilometroa udalak eta gazteek. Jendetza bildu zen eta zenbaitzuk kilometro gehiago ere egin zituzten euskararen alde.



AITOR AROTZENA

Mendiburu eta Etxekolonea lehian

Ados pilota elkarteak eta Malerrekako Mankomunitateak antolatutako pilota txapelketan hasiak dira aita zubietarra duen Ane Mendiburu eta amaren abizena daraman Naroa Etxekolonea. Ekaitza taldean daude biak, Iera Iturriaga leitzarrarekin batera eta herrian ariko dira maiatzaren 15ean.



UTZITAKOA

Eskulan tailerra Iciar Mikelperizenarekin

Apirilaren 20an eta 21ean, asteazken eta ostegun honetan 10:30etik 12:30era eskulan tailerra emateko zuen Iciar Mikelperizenak Zubietako eskolan, 12 urtetik beheitikoentzat. Aste Santuko oporraldia aprobetxatzeko modu polita. Argazkia iazko margolan tailerrekoa da.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoko sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212



Jubilotekekako partaideak ariketa fisikoak egiten.

Adinekoentzako jubiloteka zerbitzua martxan jarri dute

12 emakume biltzen dira astelehenero jubiloteka zerbitzuan parte hartzeko

TTIPI-TTAPA

Azaroaz geroztik martxan da jubiloteka zerbitzua Donamarian. Astelehenero elkartzen dira 16:00etan hasi, eta 18:30ak arte eta 12 emakumek parte hartzen dute.

Bi zatitan banatzen dute bi ordu eta erdiko saioa. Saioaren lehenengo zatian ariketa fisikoak egiten dituzte bertarututakoek: artikulazioen mugimenduak, indarra, oreka... Horretarako pisuak, gomak, baloiak eta antzeko materialak erabiltzen dituzte, eta arreta eta erreakzionatzeko gaitasuna ere lantzen dute horien

bitartez. Lehen zati hori erlazazio ariketekin bukatzen dute.

Ondotik, musika kantak abestu eta ariketa mentalak egiten dituzte. Ariketa mental horiek idatziz zein ahoz egiten dituzte, idatziz letra zopa edo ariketa matematiko errazen bitartez, eta ahoz, kontzeptu beraren inguruko hitzak landuz. Mandalak pintatzen eta eskulanak ere egiten hasi dira berriki.

Azaroan hasi zen martxan zerbitzua, eta orain artean balorazio hagitz positiboa egin dute parte hartzaileek zein arduradunek.

Asteburu kulturala ospatuko dute apirilaren bukaeran

TTIPI-TTAPA

Apirilaren azken astebururako kultur ekitaldiak antolatu dituzte Donamarian. Asteburu osorako egitaraua izanen da, haur zein helduentzako. Ortziralean, apirilaren 29an, hasiko da egitaraua talo prestatzea eta jatearekin. Plazan egingen dute 19:00etan hasita.

Larunbatean izanen du jarraipena egitarauak Ruper Ordorika abeslari oñatiarraren kontzertuarekin. 19:30ean izanen da emanaldia Jauregian eta *Amours eta Toujours* bere azken diskoa aurkeztuko du

bakarka. Jauregiko atea emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago irekiko dituzte publikoarentzat.

Asteburuko ekitaldiekin bukatzeko, Ostomila txontxongilo taldearen *Alaia Galtzagarria: Mitoen bidaia* ikuskizuna izanen da igandean 17:00etan plazan. Euskal Mitologia eta musika herrikoia zuzenean nahasten ditu emanaldiak, txontxongiloen bidez musika klasikoa haurrengana hurbiltzea du helburu. Emanaldiaren ondotik, haurrentzako txokolatada izanen da plazan.

Malerrekako Egunean lan egiteko boluntarioak behar dira

TTIPI-TTAPA

Bi urtez egin gabe egon ondotik, maiatzaren 28an ospatuko dute aurten Malerrekako Eguna. Donamarian izanen da aurten, hala tokatua. Aizkora apustua, musika, joaldunak, herri bazkaria, dantzak... denetariko ekitaldiak antolatu dituzte egun horretarako, eta orain egunean bertan lanean aritzeko boluntarioak behar dituzte.

Lanak antolatu eta banatze-ko hiru talde sortu dituzte. Lehenengo boluntario taldea trafikoa gidatu, eta aparkale-

kuak antolatzeaz arduratuko da; bigarren taldea muntaia eta garbiketa lanak egin eta antolatzeaz, eta hirugarren taldeko kideak egun horretan egonen den txosnan lanean egonen dira.

Lan talde hauetan apuntatzeko zerrenda Ostatuan dago, eta bertan izena eman ondotik antolatuko da bakoitza zein lanetan arituko den. Udalak herritarrei parte hartzeko deia egin die, «Malerrekako Eguna 13 urtetik behin antolatzea egokitzen delako, eta besta polita izanen delako».



Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



BORDALARRIA



Gure Haragia
Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Ezurrako lehen jardunaldian aritu ziren pilotariak. JAIONE ZABALO

Malerrekako pilota erronkako lehen jardunaldia Ezkurran

Ados pilota elkarteak eta Mankomunitateak antolatutako txapelketan Mendaur nagusitu zaio Xarutari

JAIONE ZABALO

Ados pilota elkarteak eta Malerrekako Mankomunitateko gizarte zerbitzuek, berdintasunaren eta errespetuzko harremanen alde antolatutako

Malerrekako erronka pilota txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuten apirilaren 9an Ezkurran.

Mendaur nagusitu zitzaion bi partidatan Xarutari eta giro

bikaina eta ikusle ugari bilduzen Ezurrako pilotalekuan.

Lau eta erdiaren barrenean jokotutako partidatan Mendaurko Osesek 18-9 irabazi zion Xarutako Aldaregiari eta binaka, Mendaurko Arrietak eta Mujikak 22-16 irabazi zieten Xarutako Irantzu Iantzi beratarri eta Ruiz de Larramendi-ri.

Jaialdia irekitzeko pilotari ertainek jokotutako partidatan Goiuri Zabaleta leitzarrak eta Janire Sotilek 22-14 irabazi zieten Leire Oskoz eta Nahia Bertiz sunbildarrari. Hauek ere maila ederra erakutsi zuten.

Zazpi herritara ailegatuko da Malerrekako Erronka

TTIPI-TTAPA

Ezkurran hilaren 9an eta Donamarian hilaren 17an jokotutako jardunaldien ondotik, Ados pilota elkarteak eta Malerrekako Mankomunitateak antolatutako Malerrekako Erronkak segida izanen du datozen asteetan bertze bortz pilotalekutan: **apirilaren 23an**, larunbatean 19:00etan, Legasan, Axkin (Orbegozo, Ruiz de Infante eta Naroa Agirre) Xarutaren (Ruiz de Larramendi, Iantzi eta Aldaregia) kontra ariko da; **maiatzaren 1ean**, igandean 12:00etan Saldiasen Ekaitza (Iera Iturriaga leitzarra, Naroa Etxekolonea zubietarra eta Ane Mendiburu zubietarra) Mendaurren (Arrieta, Osese eta Mujika) kontra; **maiatzaren 6an**, ortziralean 19:00etan Urrozzen, Mendaur Axkinen kontra; **maiatzaren 15ean**, igandean 12:00etan Zubietan, Ekaitza Axkinen kontra eta finala **maiatzaren 22an**, igandean 12:00etan Sunbillan.

Maite Mujikak, Doneztebeko Santamarian egindako aurkezpenean, emakumeen pilota plazara ateratzearen garrantzia azpimarratu zuen, «ez baita gizonen kirola bakarrik, duela ehun urte aritzen ziren emakumeak, orain ere ari gara eta etorkizunean ere ariko dira. Aurtizko eskolan 24 neska ari dira eta bada etorkizuna. Ilusioz ari dira lanean eta oinordekotza segurtatua dugu».

Jon Telletxea, Malerrekako Mankomunitateko presidentek adierazi zuenez, «Mankomunitatean hainbat urte daramazkigu berdintasunaren alde eta hainbat ekitaldi antolatzen. Aurten, kirolarekin lotutako zerbait egin nahi genuen eta Adoseki elkarlanean prestatu dugu txapelketa hau».



JAIONE ZABALO

Korrika arrakastatsua izan da Ezkurran ere

Korrika egiteko ordurik egokiena suertatu ez bazen ere, apirilaren 9ko goizaldean Ezkurran ere parte hartu zuen Korrikaren 22. edizioan. Udalak eta Barranka jatetxeak erositako kilometroetan herritar asko izan zen.

MALERREKA/BERTIZARANA



Korrika Ttikian parte hartu zuten neska-mutikoak. ARANTXA ITURRALDE



Jubilotekekako partaideak ariketa fisikoak egiten.

Korrikaren besta handia ospatu dute Beintza-Labaienen

Goizaldean Lozabianen Korrika egin ondotik, Korrika Ttikia, pala txapelketa, herri kirolak eta afaria izan zuten

ARANTXA ITURRALDE

Beintza-Labaiendarrek ere euskarari bultzadatxo bat eman nahi izan diote eta, hala, alde batetik, ibilbideko kilometro bat erosi zuten, eta bestetik, Korrika Ttikia egin zuten.

Larunbat goizaldean, apirilaren 9ko 02:30 aldera, Korrikako 2.198. kilometroa korri-

tzeko aukera izan zuten herritarrek Lozabiandik pasatu zen 22. Korrikan.

Egunez, berriz, haurren txanda izan zen eta Korrika Ttikia bizitu eta ospatu ahal izan zuten. Herritarren arteko pala txapelketa ere jokatu zuten Beintzako frontoian eta bitartean, lehenik Labaienen eta



Jubilotekekako partaideak ariketa fisikoak egiten.

ondotik Beintzan gogotsu eta ilusioz egin zuten Korrika Ttikia. Atsedean tiki baten ondotik, herri kirolak jokatu zituzten haurrek euren artean: lokotzak, zaku lasterketa, txingak, zankoak, lasterketak...

Euskararen aldeko ospakizun honi amaiera emateko, Beintzako Orbela ostatuaren eta Zubietako talogileen eskutik, afari eder bat eskaini zuten Beintzako frontoian. Egun borobila izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Korrika Ttikia egin dute Legasan

Aurten Korrika Legasatik pasa ez bada ere, herriko haurrek lasterka egin zuten hilaren 8an Korrika Ttikian. Gelaka herriko zenbait gunetan kokatu ziren, eta herriari itzulia eman ondotik, ibilbidea plazan bukatu zuten. Bertan aperitibo goxo batekin eman zioten bukaera Korrika Ttikinari.



MAITE BERTIZ

Narbarteko eskolan ere Korrika Ttikia

Eskualdeko hainbat herritan bezala, Narbarteko eskolan ere Korrika Ttikia egin zuten apirilaren 8an, ortziralearekin. Gogotsu eta kontent, haurrek herrian barna egin zuten euskararen aldeko lasterketa. Bukaeran mezuak leitu eta dantza egin zuten.



Maria Txibite presidentea eta Jose Mari Aierdi kontseilaria, Baztan-Bidasoko udal ordezkariekin Bertizen. UTZITAKOIA

176 milioi Belateko eta Almandozko tuneletarako

Oronozko LH ikastetxe berriaz ere aritu zen Maria Txibite presidentea Bertizen apirilaren 11n egindako bileran

TTIPI-TTAPA

Maria Txibite, Nafarroako presidentea, buru izan zen apirilaren 11n Bertizko jauregian tokiko erakundeekin Gobernuak egindako Elkarrizketa Konferentziaren seigarren topaketan. Bertan Nafarroako Gobernuak eskualdeko garapenarekin duen konpromisoa agertu zuen. Egiten ari diren jarduera nagusien artean, Belate eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektura bideratuko diren 176 milioiak nabarmendu ditu.

Ekitaldi horretan, Baztan-Bidasoko alkateak eta udalordezkariak ere joan ziren, eta Baztan, Malerreka eta Bortziariak eskualdeetan egiten ari diren jarduera nagusiak berrikusi ditu, Jose Mari Aierdi presidenteorde eta Lurralde Antolaketa kontseilariarekin batera. Horien artean, N-121-A errepeidea Oronoz-Sunbillako eta Sunbilla Enderlata tartean 2+1 bihurtzeko lanak aipatu zituen, baita Oronozko Lanbide Heziketa zentro berria, eskualdeko osasun zentroetara zazpi mediku berri etorriko direla eta Beran errentan

emateko eraikitzen ari diren zortzi babes ofizialeko etxebizitzaren promozioa ere.

Belate eta Almandozko tuneletarako 176 milioi

Belate eta Almandozko tunelak bikoizteko 176 milioi euroko inbertsioa aurreikusia du Nafarroako Gobernuak: 90,4 milioi Belateko tunel berrirako, 19,5 milioi tunel arteko zatirako, 43,3 milioi Almandozko tunel berrirako eta 22,6 milioi gaur egungo tunelak egokitzeko.

N-121-A errepeidea 2+1 bihurtzeko lanen barrenean, Oronoz eta Sunbilla arteko zatirako 13 milioi euro inbertituko dituzte aurten, Espainiako Aurrekontu Orokorretatik etorriko direnak. 2021 urte bukaeran hasi ziren lan hauek eta 2023 urte erditsurako bukatzea espero dute. Bi biribilgune egi-

**22 MILIOI EURO
INBERTITUKO DIRA
ORONOSKO LH
ZENTRO BERRIAN**

nen dituzte Oronozen eta Donezteben eta Sunbillara sartzeko eta ateratzeko pasabidea bertze altuera batean egiten dute. Jakina denez, Sunbilla eta Enderlatsa bitarteko zatia egokitzeko 30 milioi euro bideratuko dituzte, hasieran aurreikusiak zeuden 15 milioien bikoitza.

Oronozko Lanbide Heziketa ikastetxe berria

Hezkuntzaren arloan, Maria Txibitek eskualdeko Lanbide Heziketa berrantolatzeke beharra azpimarratu du. Gaur egun, Berako Toki Ona BHIren eta Elizondoko LHIren artean dago. Hala, Nafarroako Gobernuak 22 milioi euro erabiliko ditu Oronozen LHko zentro bakarra eraiki eta ekipatzeko, «prestakuntza-eskaintza hobe planifikatzeko, inguruko beharrak kontuan hartuta».

Txibitek adierazi zuenez, «gaur egun Nafarroan martxan dauden hezkuntza-azpiegituretako inbertsio handienetako bat» den zentro honen lizitazioa hilabete honen amaierarako dago aurreikusita. Bertan zazpi lanbide arlo eta hamabi heziketa ziklo eskainiko dituzte, Lanbide Hezike-

**BABES OFIZIALEKO
15 ETXEBIZITZA
SUSTATU NAHI
DITUZTE IRURITAN**

tako etapa guztiak biltzen dituztenak».

Zazpi mediku berri

Osasunari dagokionez, Txibitekinguruko osasun-zentroetan zazpi mediku sartuko direla iragarri du: lehen mailako arretako lau mediku, landa-larrialdietako bi mediku eta pediatria bat Elizondon. Horrek «osasun-arreta hobea ekarriko du, plantilletan egonkortasun handiagoa baitago».

Era berean, presidenteak nabarmendu du Nafarroako iparraldeko osasun zentroen ebazpen-gaitasuna eta horrek alferrikako joan-etorriei aurre hartzeko duen eragina. Osasun-zentro horietan gero eta ekografia eta kirurgia txiki gehiago egiten ari direla adierazi du, eta Doneztebeko osasun zentroko erretinografia- eta erradiografia-zerbitzua, Lesakako osasun zentroaren errehabilitazio-zerbitzua eta Elizondoko larrialdi-egoerei erantzuteko erizaintzako prestakuntza-programa aipatu zituen, bertzeak bertze.

Eskualdeko alokairuko lehen sustapen publikoa Beran

Azpiegiturei dagokionez, naturguneak eta bide berdeak suspertzeko proiektuak aipatu zituen Txibitek; zehazki, Bidasoako Bide Berdea, Leurtzako urtegiak eta Zugarramurdiko leizeak. Proiektu horiei 100.000 euro eman zaizkie jarduera txikiak egiteko, eta bertze 300.000 euro eraikin historikoak birgaitzeko, hala nola Igantziko Elizatea eta Amaiurko Ostautua.

Etxebizitzaren arloan, Beran Navarra Social Housing-en sustapen bat egiteko obrak aipatu zituen, babes ofizialeko zortzi etxebizitza eraikitzeke, 2,1 milioiko inbertsioarekin, «bailara honetan egiten den alokairuko lehen sustapen publikoa». Txibitek adierazi zuenez, bertze batzuk hasi nahi dituzte, hala nola Iruritan babes ofizialeko 15 etxebizitzaren sustapen bat.

Andaluzian bidaiariak izan dira elkarteko 92 bazkide

Zortzi egunez Espainia hegoaldeko tokiez disfrutatzen aukera izan dute bidaiariak izan direnek

P. IRASTORTZA

Pixkanaka pandemia aitzineko ohiturak errekuperatzen ari da elkarrekin. 2021eko urriko lehenengo ateraldia Benidormen izan zen, eta pandemia ondorengo bigarrena eta aurtengo lehenengoa Andaluzian. Zortzi egunez —martxoaren 25etik apirilaren 1era— elkarteko 92 bazkide Iberiar penintsulako hegoaldean izan ziren. Goizean goiz atera ziren martxoaren 25ean etxetik Toledoko Consuegra aldera. Han bazkaldu eta Ciudad Realen hartu zuten ostatu. Valdepeñas izan zuten hurrengo geldiduna, eta bertan upategi batera egin zuten bisita. Handik, Andaluziara joan ziren, Sevillara.

Sevillan, erdiguneko kaleak bisitatu zituzten: Espainiako plaza, Katedrala, Giralda... Guadalquivir ibaian txangoa ere egin zuten. Sevilla atzean utzi eta Cordobarako bidea hartu zuten, bertako mezkita eta juduak bizi izan ziren herriak ikusteko aukera izan zuten. Cordobatik Granadara joan ziren. Goizean goiz Alhambra ezaguna bisitatu zuten,

eta arratsaldean Albaicin auzo historikoak ezagutu zituzten. Eguna bukatzeko, Sacomonte auzoko *La Rocio* tabernara joan ziren, Andaluziako folkloreak gozatzera. Granadan Alpujarrako inguruak ere ezagutu zituzten, eta bartz herri-tan ibili ziren: Lanjarón, Órgiva, Pampaneira, Pórtugos eta Trevelez. Andaluzia gibelean utzi aitzinetik, Granadako Carmenes patioetan izan ziren.

Buertarako bidean Guadalajaratik pasa ziren, eta bertan lo egin ondok Erdi Aroko aztarnak dituen Sigüenza herria bisitatu zuten. Handik, bazkaldu ondok berriz ere eskualdera itzuli ziren.

Parte hartzaileei eskerrak

Elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie, bidaiari ahalik eta ongien igarotzen lagundu duten guztiei, antolatzaileei, herri eta hiri bakoitzeko gidariei, Baztasena eta Leitzarango autobus gidariei, eta txalo handi bat bidaiari taldeko 92 lagunei, azaldu duten ulermen, zuzentasun eta arduragatik.

udazkenara atzeratzea. Arrazoia nagusia apirilatik aurrera Espainiar hegoaldean dagoen klima da, bidean bero sapa pairatu behar du luketeelako. Udatik aurrera izanen du Zilarraren bidea egitekotan den taldeak informazio guztia. Eutsi animoak!



92 laguneko taldeak hartu du parte bidaiariak. P. IRASTORTZA



Bidaiariak parte hartzaileetako batzuk Sevillan. P. IRASTORTZA



Hainbat bisita gidatu egin dituzte. P. IRASTORTZA

Udazkenara atzeratu dute Zilarraren bidea egiteko proiektua

P. IRASTORTZA


Bertze aldizkari batzuetan aipatu izan dugun bezala, elkarteko jende talde bat Sevillatik Santiago de Compostelarako Zilarraren bidea egitekotan da. Bilera batzuk egin dituzte dagoeneko, eta azkenekoan erabaki zuten irteera

Delegatu eta laguntzaile berriak lagantzin

Iazko udan Amador Txopere-na zendu ondok, ordezkaria aukeratzeko deialdia egin dute Igantzin. Elkarteko bi kide hauek arduratuko dira hementik aitzinera: Joxe Javier Urtegi izanen da delegatua (678 897 944) eta Iñaki Goienetxe laguntzailea (650 413 673).

Antzerki tailerra paratu dute martxan Iruritan

Maitzaren 3an hasita, adinekoentzako antzerki tailerra izanen dute Iruritik Gizarte Bilgunean. Ikastaroa asteartetan emanen da, 10:00etan hasi eta 12:00ak arte. Izen ematea Doneztebeko bulegoan egin daiteke, edo elkartera deituta.



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



AITOR ELEXPURU EGAÑA
BERAKO UDALA

«Berak turismo lasaia eta jasangarria du, masifikaziorik gabekoa»

Berak turismo «lasaia eta jasangarria» duela adierazi du Aitor Elexpuru alkateak, «herri-gunean bisitariak ditugu, baina ez dugu masifikaziorik». Leku eta monumentu «interesgarriak» daude ikusteko, «eta historia handiko herria denez hainbat toki memorialistiko ditu». Larhun da interes turistiko handiena duen lekuetako bat, «baina bisitari aunitz ditu eta ez da erraza kudeatzeko». Bisitari kopuruak goiti egiten du sasoi honetan; «jende jariora etengabea da

baina ez itogarria, gustura gaude. Herria ongi komunikatua dago, muga hementxe dago eta toki turistiko inportantea da ingurugiro ederrarekin». Zerbait hobetzekotan, «ostatu hartzeko lekuen falta» nabarmenduko luke Elexpuru.



MAITE ILUNDAIN ETXEBERRIA
GOSHUA ESNEKIAK – IRAIZOTZ

«Behi, ardi eta ahuntz esnea erabiltzen dugu, bertakoa eta freskoa»

Lizasoko saralegitarrak denda ttiki bat ireki zuten 50eko hamarkadan Iruñean, eta handik sortu zen Goshua. «Jatetxeentzako esnekiak egin ohi zituzten, eta behin gaztanbera eskatu zieten. Lourdes Satrustegik, Saralegiren emazteak, ez zuen kaikuan betiko moduan aurkeztu nahi, eta buztinezko pototan paratu zuen. Berak sortu zuen gaztanbera buztinezko ontzietan jartzeko tradizioa». Gaztanberaz gain, ardi, behi eta ahuntz-gasnarekin egindako bertze hainbat produktu dituz-

te; «arroz esnea, natillak, behi, ardi eta ahuntz jogurtak... esne guztia freskoa eta bertakoa da». Iberiar penintsula osoan saltzen dituzte produktuak, «eta 20 herrialde baino gehiagotara esportatzen dugu, Lituaniara eta Marokora, adibidez».



JOSE LUIS IBARLUZEA ALDALUR
IBARLUZEA HARATEGIA - LEITZA

«Inguruko baserrietako produktuak saltzen ditut»

Urtarrilaren 14an ireki zuen Jose Luis Ibarluzeak Leitza Ibarluzea harategia; «aurrekoak utzi egin zuen eta animatu egin nintzen. Betitik egin dut lan harategietan». Leitza inguruko baserrietako produktuak saltzen dituzte bertan; «aratxea, txerria, ardi gazta, solomoa, saltxitxak, txistorra... elaboratuak dira gehien eskatzen dizkidatenak, etxean ondutako solomoa, hanburgesak... dena etxekoa eta hemengoa». Negozioa ongi doala dio Ibarluzeak, «pandemia bukatzen ari dela nabaritzen

da baina baita gerra eta prezioen igoera ere, dena nabaritzen da hemen». Aurrerago harategia Interneten ezagutzera emateko asmoa du, «nahiko esperientzia daukat horretan eta gaur egun sare sozialak erabiltzen jakitea garrantzitsua da».



IÑAKI BENGOTXEA AIZPIOLEA
OLA SAGARDOTEGIA – IRUN

«Sagardotegia 800 urteko historia duen burdinola batean dago eta badu bere xarma»

1999an ireki zuen Iñaki Bengoetxeak familiarekin Ola Sagardotegia Irungo Meaka auzoan. Sagardotegi garaian, urte hasieratik maiatzera arte, «betiko» menua eskaintzen dute bertan; «pintxoak, bakailao tortilla, bakailao tomatearekin, txuleta, gazta eta intxaurrek, sagardoarekin, noski». Aurten sagardo botilatuta dute, «% 100 euskalduna eta ekologikoa». Ekainetik aitzinera, berriz, «jattetxean denetik ematen dugu, arraina, etxeko oilaskoa... kupletegiak gain erretegia eta te-

rraza ere baditugulako». Gainera, bisita gidatuak egiten dituzte sagastietan eta sagardotegian barna; «800 urteko historia duen burdinola batean dago eta badu bere xarma, jendearen interesa pizten du».



Burujabetza energetikoa lortzeko bidean

Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko lanean ari den lantaldeak aurkezpena eginen du maiatzaren 6an

TTIPI-TTAPA

Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko bidea abiatu du herritar talde batek udalaren eta Goienerren laguntzarekin.

Herritarrak eta herriko erakundeak bildu nahi dituzte, «publikoak zein pribatuak elkartuz», eta «energia sektorearekin zerikusia duen edozein jardueratan lankidetzan aritzeko asmoz» sortu nahi dute, gisa honetara, «bertako kideei edo tokiko komunitateari zerbitzuak edo bestelako onura sozioekonomikoak eta ingurumenarekin lotuak onurak emateko». Eta hori «burujabetza energetikoa lortzeko bidean» egin nahi dute.

Aurkezpena maiatzaren 6an

Herria dauden baliabide energetikoak aztertu, beharrak

identifikatu eta epe motzeko, ertaineko eta luzeko helburuak finkatu nahi dituzte. Horretarako, maiatzaren 6an, ostirala, 19:00etan, Herri Aretoaan aurkezpena eginen du lantaldeak.

Jakinarazi dutenez, «aurkezpenaren ondoren edonork izanen du hausnarketa prozesuan, komunitatearen sorreran eta abiapuntua izanen den proiektuan parte hartzeko izena emateko aukera».

Kiroldegian proiektua

Egin nahi duten aurreneko proiektua udal kiroldegian instalatuko den autokontsumo fotovoltaiako partekatua izanen dela adierazi dute. Eta bertan sortuko den energia udal erakinean eta interesa duten herritarren artean kontsumitze-ko aukera izanen da.



Independentziarako Indarra dinamikaren aurkezpena.

Independentziarako Indarra dinamikaren baitan aurreneko saioa maiatzaren 4an

TTIPI-TTAPA

«Nor bere eremutik, independentzia eta eraldaketa soziala gauzatzeko baldintzak ereiten ari gara egunerokoan. Gure mundua mugiarazteko ahaleginean gabilta». Halaxe uste du Leitzako Sortuk, eta «indarrak bildu eta bizitzeko», Independentziarako Indarra dinamika jarri du abian. «Esku artean proiektu sendoa» dutela adierazi du, «amets handiak buruan eta oinak lurrean» dituela. Eta «nazio susperraldi berria abian jarriko dugunaren konbentzimendu osoz» dinamika honetan parte hartzeko deia egin du.

Maiatzetik aurrera hainbat solasaldi eta ekintza prestatu ditu. Maiatzaren 4an *Langile borroka gaurkotuz solasaldia* izanen da Igor Arroyo LABeko idazkari nagusi ondokoarekin eta Lur Albizu Sortuko Nafarroako arduradunarekin. 19:00etan Torrean egin dute hitzordua; ekainaren 1ean *Nafartasuna Europako burujabetza aro berrian* solasaldia izanen da; irailaren 22an *Zaintza(k)* solasaldia; urriaren 6an *Gatazkaren ondorioak, konponbideranzko euskal bidea* solasaldia; urriaren 12an, mural margotzea eta urriaren 29an Independentzia Eguna.



PABLO FEO ETA UTZITAKOIA

Udaberriko pestan giro ederra

Ongi pasatzeko gogoz zegoen jendea eta nabaritu zen apirilaren 8ko udaberriko pestan. Diana, erraldoiak eta buruhandiak, txaranga, herri bazkari jendetsua, Tio Teronen semeen ikuskizuna, Jeiki abesbatzaren emanaldi ederra... Egun ederra izan zen.

Kultur egitarau zabala ondoko egunetan

Apiril bukaeran eta maiatz hasieran Herri Aretoko kultur ekitaldiek ez dute geldialdirik eginen. Apirilaren 23an *Tipularen sehaska kanta* dokumentala ikusgai izanen da 18:00etan; apirilaren 29an Geuretik Sortuak programako bost film laburretan oinarritutako *Bost teilatu* lana, 19:00etan; eta maiatzaren 8an, Geuretik Sortuak proiektuaren barne, Trapu zikinak taldearen *Lore More* antzezlan, 19:00etan. Maiatzaren 7an, berriz, Atekabeltzen Ibil bedi eta Pelaxen kontzertua izanen da, 22:30ean.



Langilearen eguneko manifestazioan parte hartzeko deia egin dute.

Maiatzaren 1ean manifestazioa egingen du LABek

Euskal Herrian barna hainbat mobilizazio egingen dituela iragarri du sindikatuak eta horietako bat Leitzan egingen du

TTIPI-TTAPA

Altxa! Egin dezagun posible. Zaintza lanak, enplegua, ondasuna banatu lelopean kale-aterako da LAB Maiatzaren Lehenean. Euskal Herrian hamahiru mobilizaziotarako deia egin du, eta horietako bat izanen da Leitzako plazatik 12:00etan aterako den mani-

festazioa. «Banaketa hirukoitzen alde» egin du sindikatuak langilearen egunean, «zaintza lanak, enplegua eta aberastasuna banatzearen alde, alegia». LABen ustez, «altzatzea da bidea», eta horixe aldarrikatuko du maiatzaren 1ean herriko kaleetan. Herritarrei parte hartzeko gonbita egin die.



UTZITAKOA

13/13 auziko epaia salatu dute

Espainiako Auzitegi Nazionalak 13/13 auziko lau auzipeturi ezarritako espetxe zigorra salatzen elkarretaratzea egin zuten apirilaren 1ean Karrapen. Epaia «herri honen etorkizunaren aurkakoa» dela adierazi zuten, «herritarren gehiengoa egiten ari den elkarbizitza eta bakeranzko bidearen aurkakoa».



LEITZAKO UDALA

Lasterketa baino gehiago izan da Itzulia

Apirilaren 5ean Leitzatik atera zen Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapa, eta horren harira, egun berezia izan zen. Herriak Mikel Nieve eta Ibai Azurmendi herriko txirindulak omendu zituen, eta zinta mozteaz Maite Iturrarte arduratu zen. Datorren urtean ere Euskal Herriko Itzuliak Leitzan geldialdia egingen du.



KORRIKA.EUS

Euskararen alde Korrikan!

Irudi ederrak utzi zituen 22. Korrikak Leitzako lurretan. Kaxkabeltza elkarateak, Atekabeltz Herriguneak, udalak, eskolak, Abordatzera kuadrillak, Sarrioko langileak, institutuak, Guratz mendi elkarateak, Zirate kuadrillak, Aurrera elkarateak... Denek ibili zuten lekukoa.

80 haur eta gaztetxo futbol campusean

Adinaren arabera bost taldetan banatuta, aste honetan biltzekoak dira

TTIPI-TTAPA

Iker Bengoetxea eta David Delgado herritarren bitartez, bigarren aldiz futbol campusa antolatu du Aurrera Kirol Elkartek, eta bigarren edizio honek ere arrakasta bikaina izan du: bost eta hamabi urte bitarteko 80 neska-mutiko apuntatu dira.

Futbolari ohiak eta futbolzaleak dira biak, Bengoetxea Aurreran eta Txantreako taldean hirugarren mailan aritutakoa, eta Delgado Osasunan, Eguesibarren, Peña Sporten eta Alfaro taldean bigarren B mailan ibilia. «Leitzan haurrentzat futbolarekin lotutako zerbait antolatzeko gogoia aspalditik» zutelako hasi ziren «proposamena garatzen». Eguberrietan egin zuten estreinaldia, «Karlos Agirre Aurrera Kirol Elkarteko presidentearen laguntzarekin. Udalak, Anikote kiroldegia eta eskolak ere dena erraztu ziguten». Pandemia tarteko, positiboak gora eta behera, ibili baziren ere, «bukaeran oso pozik gelditu ginen. 43 haur apuntatu ziren, gustura ibili ziren eta gu ere bai».

Aste honetan lau egunez

Eguberrietan hasitako bideari segida eman nahi izan diote egunotan. Hortaz, azken orduko aldaketarik ez bada, apirilaren 19tik 22rako goizak futbol campuserako dituzte. Aldi honetan ere, Aurrera elkartearen bitartez egin dute, baina adin tarte zabaldua: «Eguberrietako campusa sei eta hamabi urte bitartekoentzat egin genuen, eta kasu honetan lau eta bost urtekoentzat hiru orduko saioa antolatzen ahal genuela pentsatu genuen; sei eta hama-

bi urtekoentzat, berriz, 09:00etik 14:00etara». Erantzuna espero baino hobea izan da: «Ezusteko handia izan da, ez genuen halakorik espero».

Gehienak leitzarrik

Lau urtekoetan inor apuntatu ez bada ere, bost urtekoetan sei haur apuntatu dira; sei urtekoetan bederatziz; zazpi urtekoetan zortzi; zortzi urtekoetan 21; bederatziz urtekoetan sei; hamar urtekoetan hamar; hamaika urtekoetan sei eta hamabi urtekoetan hamalau. «Bat edo beste Aresokoa, Lekunbe-

rrikoa eta Ultzamakoa bada ere, gehien-gehienak leitzarrik dira».

Adinaren arabera, bost talde osatu dituzte eta talde bakoitzak bere monitorea du, Delgado argitu duenez, «denak leitzarrik». Horrez gain, «bi lagun koordinazioaz arduratuko dira».

Saioak kiroldegian, frontoian eta eskolako gimnasioan egitekoak dituzte, eta alderdi teorikoa pixka bat lantzeko kiroldegiko ispiluen gelan biltzekoak dira. 11:00etan, berriz, atsedenaldia, «eskolako jantokian gosari osasuntsua egiteko». Horrez gain, «futbol campusean parte hartzen dutenei aseguruua egingen diegu eta oparia jasoko dute». Delgado esan duenez, «baloiaren bueltan ibiliko dira, baina horrekin batera psikomotritizitatea, koordinazioa, alderdi sozioafektiboa, kooperazioa... landu nahi ditugu. Futbolaren bitartez harreman onak sustatu nahi ditugu».

Hori guztia egin ahal izateko, «Karlos Agirri, udalari, esko-

lari eta Anikoteri eskerrak eman nahi izan dizkie: «beraiengatik izan ez balitz, ez bailitzake futbol campusa aurrera aterako». Eta elkarlanean segitu nahi dute, «udan, Eguberrietan eta Aste Santuan» campusari segida eman nahi baitiote.

Belar artifizialeko zelaia

Delgadoen hitzetan, «belar artifizialeko futbol zelaia» izatea dute beste erronka nagusia, futbollean «instalazio egokirik ez izatea muga» baita bere irudiko. Hori begiz jota, «komisio bat» sortu omen dute, «belar artifiziala duen futbol zelai bat sortzeko proiektua lantzeko».

Bide beretik, «gaur egun Aurrerak dituen erregionaleko eta kadeteen mailako futbol taldeez gain, eta areto futboleko taldeak mantenduz, ahalik eta kategoria gehienetan futbol taldeak ateranahi ditugu etorkizunean». Bestela esanda, «futbolari bultzada eman nahi diogu».



Eguberrietako campusean. D. DELGADO



Eguberrietako campusean lehen sorospenei buruzko ikastaroan. D. DELGADO



Eguberrietan egin zuten campusean 43 haur eta gaztetxo apuntatu ziren. Egun hauetan 80k eman dute izena.. DAVID DELGADO

Herriko festak antolatzen bilerak egiten hasiak dira

Abuztuaren 14tik 18ra izango dira aurtengo festak eta hainbat berrikuntza izango dira

TTIPI-TTAPA

Bi urtez festarako aukerarik gabe egon ondotik, gogotsu hartu dute herritarrek aurtengoak antolatzen lana. Dagoeneko hainbat bilera eginak dituzte, azkena apirilaren 13an egitekoa zuten, eta pixkanaka guztien artean egitarauari forma ematen ari dira.

Berrikuntzak

Festarik gabeko denbora tarte honetan badirudi jendeak izan duela hausnarketarako tarte, hainbat berrikuntza proposatu dituzte eta.

Abuztuaren 14an, igandearekin, hasiko dira festak eta abuztuaren 18an bukatu. Festetako lehenbiziko eguna indartzeko asmoa dute eta besteak beste, guraso elkarteko afarria egun horretara aldatzeko asmoa agertu dute. Segidan, Amabirjinaren eguna, umeen eguna, herritarren eguna eta borobiltzeko kuadrillen eguna izango dituzte. Festa batzordean biltzen direnek herritar guztiei bileretara agertu eta beraien iritzia eta proposamenak egiteko gonbidapena luzatu nahi izan diete.



Eskolako gaztetxoak Zuriñe Goikoetxearekin. ESKOLAK UTZITAKOIA

Erizain lanbidearen sekretuak ezagutu dituzte eskolako ikasleek

TTIPI-TTAPA

Eskolako txokoa Osasun Etxe bihurtu dute Nazabal eskolako Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleek. Gaiarekin lotuta, bisita berezia izan zuten apirilaren 7an.

Zuriñe Goikoetxea Saizar herritarra joan zitzaizen eskolara eta bere eskutik erizainaren

lanbidearen nondik norakoak ezagutzeko aukera izan zuten eskolako gaztetxoek.

Zauriak nola sendatu behar diren, kolpe baten aurrean zer egin behar duten... irakatsi eta ikasleen jakin-mina asetzeko haiek egindako galderak erantzun zituen Goikoetxea.

Fruta eta barazkien kanpaina hasiko dute eskolan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuakhauren obesitateari aurre egiteko eta kontsumo ohitura osasungarriak sortzeko fruta eta barazkiak kontsumitzeko kanpaina abiatu du eta beste hainbat ikastetxetan bezala, Nazabal eskolan ere kanpainarekin bat

egin dute. Zehazki apirilaren 11ko astean hasi zuten ekimena eta ekainaren 20ko astera bitartean iraungo du.

Hori horrela izanda, astean hiru egunetan banatuko diete ikasleei fruta eskolan: asteartetan, asteazkenetan eta ostiraletan.

Korrikarekin bat egin dute aresoarrek

TTIPI-TTAPA

Zapatilak oinetan eta euskararen aldeko mezuak ezpainetan; Korrikaren lekukoari segika gustura ibili ziren herritarrak. Apirilaren 8ko eguerdian, eskolak antolatutako Korrika Ttikian parte hartu zuten irakasleek, ikasleek eta gurasoek.

Gauerdirako indarrak berreskuratu eta euria ez zen aitzakia izan Korrikaren furgonetaren esperoanegoteko. Urtoinguruan berastegiaren eskutik hartu zuten lekukoa aresoarrek eta bi kilometro korrika egin ondotik, Kaxkabeltza elkartearen eskuetan utzi zuten.



Korrika Ttiki koloretsua egin zuten hurrek, gurasoek eta irakasleek. JAIONE OLAZABAL



Ea bi urte barru ere ingurutik pasatzen den Korrika. KORRIKA.EUS



Ikasturte honetako Goittikiko protagonistak. IÑIGO ELIZEGI

Goittikik aurrera jarrai dezan gogotsu lanean

Apirilaren 30ean egingen den Garagardo festako dirua Goittikira bideratuko dute

TTIPI-TTAPA

Duela hamabi urte hasi zuen ibilbidea Goittiki haurtzaindegiak. Herrian «eskolara sartu aurreko haurrentzako zerbitzuaren beharra bazela ikusita» pausoa eman zuten hainbat gurasok, eta «hiritako edo herri handi bateko gaitasun ekonomikorik gabe, eskura ziren baliabideekin egin zuten aurrera». Halaxe kontatu du Iñigo Elizegi Goittikiko gurasoak.

Geroztik 0 eta 3 bitarteko ume asko pasatu dira Rosa Olaizola hezitzailearen magaletik. Urte batzuetan gehiago, besteetan gutxiago, «haurren kopuruak gorabehera asko izan dituelako. Urte batzuetan zortzi-hamar haur izan dira, beste batzuetan, bi edo lau...». Horrek ekonomikoki ere badu eragina: «Ume asko daudenean kuotekin betetzen dira gastuak, baina ume gutxi daudenean ezinezkoa da. Langileaz gain, bestelako gastuak ere izaten baitira: materialak, instalazioa...», dio Elizegik.

Urteetan «festetako bingoa» izan dute diru iturrietako bat eta «oraindik bingoaren diruarekin bizirauten du Goittikik». Azken urteotan iturri hori itxi-

ta, eragina bistakoa izan da: «Pandemiarekin ezin izan dugu horrelakorik egin eta ahal dugun moduan egin dugu aurrera».

Garagardo festa dirua biltzeko

Horregatik erabaki dute apirilaren 30ean egingen duten Garagardo festako dirua Goittikira bideratzea: «2019an garagardoa maite dugun kuartillatxo bat elkartu, eta besterik gabe, garagardo dastaketa bat egin genuen. Aurten, pandemia atzean uzten arigarenez, berriz egitea pentsatu genuen, baina garagardoa edateko hitzordua zerbait gehiago egiteko aitzakia izatea nahi genuen, eta Goittikirentzat dirua biltzea pentsatu genuen».

Halako ekimenak garrantzitsuak iruditzen zaizkio Elizegiri, helburua zerbitzua mantentzea delako, «herri ttikietan zerbitzu guztiak oso garrantzi-

«ZERBITZU OSO GARRANTZITSUA DA GOITTIKI»

IÑIGO ELIZEGI, GURASOA

tsuak direlako, baita Goittiki ere». Bere ustez, «bi zentzutan da garrantzitsua»: «Alde batetik, herri ttikiek zenbat eta zerbitzu gehiago eduki, orduan eta aukera gehiago jendea bertan gelditzeko edo kanpotik etortzeko. Herri ttikietan biztanleria behera doa eta zerbitzu gehiago izateak herria bizirik mantentzen laguntzen du. Bestetik, berdintasuna lortzeko bidean, Goittikik familiei kontziliaziorako aukera ematen die, gurasoei lanarekin beste askatasun bat».

Ikasturte honetan lau haur dira Goittikin, baina hurrengo urteei begira, «etorkizun ona» espero du Elizegik, «haur gehiago jaio dira eta ea...». Beraien aldetik, «ahalik eta zerbitzurik hoberena izan dadin, lanean jarraituko dugula» berretsi du. Onartu du, «bidean traba asko» izaten direla, besteak beste, «legeak eta araudiak hiriburu eta herri haundietara bideratuak direlako», baina «gure artean gogoia eta borondatea baldin badago, modu batera edo bestera, aurrera aterako gara».

Bestalde, honela gaineratu du Elizegik: «hainbat arrazoi-erengatik Goittikiko umeek ez dute behar bezalako lokal finkorik eduki azken urteotan. Gure helburua, eskolan, kalitatezko zerbitzua ematen jarraitzeko espazioa egokitzea da, egoitza egokiagoa delako eta azken aldiaren izan ez dugun beste zerbitzu bat berriz eman ahal izateko: Eskolan dauden ume ttikiak zortzietan eskolara sartu aurretik Goittikin uzteko aukera. Horretan ari gara».

'Munduko orden berria' hizpide duten hitzaldiak apirilean

TTIPI-TTAPA

Agenda 2030. Munduko orden berria eta guk nolako mundua nahi dugu? Izenburu horrekin jardunaldi bat prestatu du herritar talde batek eta horri hasiera emateko, bi hitzaldi antolatatu dituzte ondoko bi larunbatetan. Bi saioak herriko etxeko ganbaran izanen dira.

Larunbat honetan, apirilaren 23an, Mikel Altzuart abeltzaina gonbidatu dute. Altzuartek *munduko orden berriko nekazaritzaren eta abeltzaintzaren politika* izanen du hizpide, 18:00etan.

Apirilaren 30ean, berriz, Juanjo Martinez zirujaua izanen da hizlari eta Covid-19ari eta osasunari buruz hitz egingen du. Bigarren hitzaldi hau ere 18:00etan hasiko da.

Ikuspegiak partekatzeko

Sarran baserriko Teresa Lopez de Munain da antolatzailetako bat eta TTIPI-TTAPARI adierazi dionez, «azken bi urteotako osasun krisialdia eta kudeaketa, mitoak eta errealtatea» landu nahi dituzte. Gaineratu duenez, «gure herritarrekin elkarrizketa zabaldu nahi dugu denon ikuspegiak partekatuz denon ongia erakitzeko».

'Urak aske' dokumentala apirilaren 29an

Artikutzako urtegiaren hustuketari buruz egin duten *Urak aske* dokumentala ikusteko aukera izanen da apirilaren 29an, ostirala, udaletxeko ganbaran. 18:30ean izanen da hitzordua eta Arturo Elosegia biologoa ere aurkezpenean izanen da.

Aranolara mendi irteera maiatzaren 14an egingen dute

TTIPI-TTAPA

Eguraldi iragarpena tarteko, Arainburu Mendi Taldeak bertan behera utzi behar izan zuen apirilean Aranolara egitekoa zuen mendi irteera. Baina prest da berriz ere bideari ekiteko eta maiatzaren 14an Aranolara joan direla adierazi du. Aurreko hitzordurako iragarritako ordutegia mantenduko dute.

Lau orduko itzulia

Mendizaleak 08:30ean herriko plazatik abiatuko dira eta 12,05 kilometro eta 590 metroko



Arainbururen otsaileko irteera.

malda duen ibilbidea egin beharko dute. Irteera «erraza» izanen dela eta 12:30erako herrira itzuliko direla esan dute. Hurrengo hitzordua ekainean egingen du Arainburuk.



KORRIKA.EUS / FELIX LOIARTE

Korrikarekin bat egin dute herritarrek

Apirilaren 9ko goizaldean, Basakabitik pare bat kilometrotara hartu zuten goizuetarrek lekukoa, eta lau kilometrotan, hainbat herritarren eskuetatik pasatu zen euskararen aldeko lasterketako lekukoa. Biharamunean, berriz, eguerdian, Korrika Ttikia izan zen herrian barna.

Eskolen arteko topaketa maiatzaren 28an Leitzan

Oraingoz ospakizuna noiz izanen den aurreratu dute eta xehetasun gehiago aurrerago emanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Aurten bai, aurten eskolen arteko topaketak ez du hutsik egingen. Pandemia tarteko bi urtez ezin izan da Aresoko Nazabal, Goizuetako Andres Narbarteko Xaltoa eta Leitzako Erleta eskoletako ikasleak eta gurasoak biltzeko hitzordurik

egin, baina aurtengoa prestatzen hasiak dira. Maiatzaren 28an egingen dela aurreratu dute eta xehetasun gehiago aurrerago emanen dituzte.

Normaltasunerako bidean, aurten ere besta giroan elkartzeko aitzakia polita izanen da eskolen arteko topaketa.

Mendialdeko Azoka Ibiltarien hirugarren edizioa igandean hasiko da Arriben

TTIPI-TTAPA

Aurreko bi edizioek izandako arrakasta errepikatze asmoz, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren hirugarren edizioa antolatu dute. Igande honetan, apirilaren 24an, egingen dute denboraldi-ko aurrenekoa, Arriben, 10:30etik 14:30era.

Guztira bederatzi azoka izanen dira eta horien artean, ekainaren 5ean Goizuetan, ekainaren 19an Leitzan eta abuztuaren 13an Areson egingen dituzte. Azoka bakoitzean 25-30 postu inguru izanen dira, gehienak nekazaritzako elikagaienak eta besteak tokiko artisauenak.



EHMUS

Leitzako frontoia muslarrien topaleku

Apirilaren 2an Leitzako frontoian jokatu zuten Euskal Herriko Mus Txapelketako XII. finala, 2020an Covid-19agatik atzeratutakoa. Elurrak ere ez zuen galdu nahi izan hitzordua. Txapela Oriora joan zen. Finalean, Ibai Esoain eta Jon Ubegun nagusitu ziren Arraiozko Beñardo Alunda eta Joselu Retegiren aurka.



AEK

Korrika arrakastatsua Baztanen

Apirilaren 5eko goizaldean Izpegitik sartu zen Korrika bailarara eta 40 kilometro egin zituen Ultzamarako bidean. Hotza egin bazuen ere dozenaka lagunek parte hartu zuten euskaren aldeko lasterketa erraldoian, hainbat herritan lekukoa eskuz esku pasatuz.

Erdiz UGEP gisa ez tramitatzeko eskatu du Udalak

Erdiz Bizirik plataformak Magnak egindako txostenaren «manipulazioa eta gezurrak» salatu ditu

TTIPI-TTAPA

Magnetas Navarra enpresak Erdizko meategiaren proiektua UGEP gisa tramitatu nahi du eta horretarako partaidetza prozesua egin dute telefono bidezko inkestarekin. 379 inkesta egin dituzte, horietatik 160 Baztanen, eta emaitzen arabera, erdiak proiektuaren alde egin du.

Baztango Udalak herri-galdeketa baten beharra berretsi du, «gaia demokrazian sakonduz bideratu nahi dugu, eztabaida publiko eta garden batekin eta herri-galdeketaekin». Baztandarren iritzia «erakunde publikoen kontrolik gabeko telefono bidezko inkesta batekin» ez ordezkatzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari, «bereziki Ekonomia eta Enpresa, Etxebizitza eta Lurraldearen antolaketa eta Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaritzei, hiruak Geroa Baiokak». Baztango «autonomia eta ahalmenak errespetatzeko» eskatu diote, «Aroztegiko egoera» ez errepikatzeko, «gatazka bertzerik ekarri ez duena».



Baztango Udalaren agerraldia.

Erdiz Biziriken balorazioa

Enpresak egindako txostena «manipulazioa eta gezurra oinarri dituela» salatu du plataformak. «Elkarrizketa irekietan Erdiz Bizirik eta Sustrai Erakuntzaren parte hartzea izan dela irudikatu dute, biek boikot egin diogunean».

«Enpresaren bozgorailu diren komunikabideen jarrera» ere gaitzetsi dute; «baztandarren erabakitze eskubidearen urratzea justifikatu nahi dute».

Proiektuak Baztango lurrik barne hatzen dituenek, erabakia baztandarrei dagokiela nabarmendu dute, «ez dugu multinazionalik behar gure izenean solastatzeko. Hemen bizi garenok erabaki nahi dugu eta erabakiko dugu».

Husqvarna
AUTOMOWER®

BB BLOK BAT
TALLERES biokbat.com
Santiago 85. ELIZONDO 948 580 898

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



UTZITAKOA

Amaiur-Txantrea Nafarroako txapeldun

Nafarroako Herri kirol Jokoetako laugarren jardunaldia Igantzin egin zen apirilaren 3an eta aitzineko jardunaldi guzietan bezala nagusitu ondotik, Amaiur-Txantrea sokatira taldea txapeldun izan zen kadete mailan, Andra Mari eta Antsoainen aitzinetik. Zorionak!

LGTBI+ film laburren proiektzioa apirilaren 26an Arizkunenean

Ikusgarritasun Lesbikoaren Nazioarteko eguna dela eta, Bilboko Zinegoak zinema eta arte eszenikoen jaialdiko film laburren proiektzioa antolatu du Baztango Berdintasun Zerbitzuak apirilaren 26an, 18:00etatik 19:30era, Arizkuneko hitzaldien aretoan. Bortz film labur proiektatuko dituzte, «LGTBI+ kolektiboaren errealitateak ezagutzeko eta sexu eta genero aniztasuna balioan paratzeko»: *Elsa*, *Berak baleki*, *Azaletik azalera*, *Ilunabarrean esan* eta *Ocupa*.

Sei lanpostutarako deialdia egin du Baztango Udalak

Pertsona langabetuei zuzendutako sei lan eskaintza egin ditu udalak; sastrakak kentzeko traktore-gidari lanpostu bat eta zerbitzu anitzetarako eta mendiko lanetarako laguntzaile izateko bortz postu. Ekainaren leantanean hastea aurreikusi dute eta interesatuek apirilaren 29ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak, telematikoki edo udaleko erregistroaren bidez. Lan deialdiak, baldintzak eta informazio guztia eskuragarri daude baztan.eus atarian.



JOXE ETA ANJEL ERREGERENA

Jendetza Erratzuko antzerkietan

Apirilaren 8an eta 9an *Erratzukoak ere ez ziren sorginek* antzezlanaren bi taularatzeak egin zituzten erratzuarrek. Horretarako espresuki goratutako karpa «jendez lep» bete zen. Erratzuko Kultur Elkarteak balorazioa «arras positiboa» egin du eta eskerrak eman die herritarrei parte hartzeagatik.

Skakeitan, The Lio, Drunken Barrels eta Tirri&Tery aurtengo Arizkun Rocken

TTIPI-TTAPA

Arizkundarrak prestatzen hasiak dira Arizkun Rock jaialdiaren zortzigarren ediziorako, ekainaren 24an herriko plazan ospatuko dena. Lau talderen partaidetza iragarri dute: Drunken Barrels baztandarrak, The Lio punk rock

talde iruindarra, Skakeitan ska talde gipuzkoarra eta jaialdia hesteko, Tirri&Tery DJ baztandarrak izanen dira oholtzan.

Jaialdia guztiz doan izanen da, «musika horrela ulertzen dugulako; handia, zabala, libre». Kanpaleku aukera ere izanen da nahi duenarendako.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Langileak hitzarmena lortu dutela adierazi zuten prentsurrekoan. UTZITAKOIA

Zahar etxeko langileek akordio berria lortu dute

Baztango Udalak zaharren egoitza berritzeko proiektua aurkeztu du

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 5ean egindako prentsurrekoan adierazi zutenenez, «8 eguneko greba egin ondotik, zahar etxean zein herrian mobilizazio ugari egin ondotik... gaur hitzarmen kolektiboa berritzeko akordioa lortu dugula iragarri dezakegu. Borrorak merezi du».

Baldintzei dagokienez, «aurrerapauso nabarmenak» eman dituzte; soldata igoera, lanaldi murrizketa, baja eta eszedentzien hobetzea, laneko arropa bertan garbitzeko aukera... LABeko lau kidek eta ELAko batek osatzen duen

enpresa batzordeak aurkeztutako plataformaren «puntu gehienak» bildu ditu hitzarmenak eta «aho bateko babesa izan du».

Adierazi zutenenez, «akordioa lortzea ez da erraza izan», Covid egoeraz, inflazioaz eta «nazioarteko ziurgabetasun egoeraz gain, batere enpatikoa ez den eta negoziatzeko borondaterik ez duen enpresa bati egin behar izan diogulako aurre, IDEA zerbitzu sozio-sanitarioak».

Eskerrak eman zieten «langileon batasunari, Baztango eskualdearen laguntzari, egoi-

liarrei eta haien senideei». Sektorearen lan baldintzak duintzeko «lan aunitz» gelditzen da, «ez enpresek ezta instituzioek ere ez baitute inolako aitortzarik egiten. Baina, gaurko akordio honekin, apur bat aitortuagoak sentitzen gara».

Honez gain, «zuzeneko kontrol eta kudeaketa izanenduen egoitza publiko baten beharra» aldarrikatu zuten, Baztango Udalak zahar etxea publikatzeko hartutako konpromisoarekin bat eginez.

Egoitza berritzeko proiektua

Elizondoko zahar etxea berritzeko proiektua aurkeztu du Baztango udalak. Berritzeak eraikin osoan eraginen du eta «pertonetan ardazturiko arreta ereduaren arabera espazioaren antolaketa izanen du, bizikidetza unitateetan». Inbertsioa 10.800.000 eurokoa izanen da eta proiektua Lino Plaza arkitektura bulegoak idatzi du.

Zahar etxe berria zazpi bizikidetza unitatetan antolatuko dute, bakoitza bere jangela eta egongelarekin. Logela gehienak, 83, bakarkakoak

izanen dira eta 8 binazkakoak. Denera 99 toki eskainiko ditu eta larrialdietako irizpideak ospitaleetakoak izanen dira legeak agindu bezala. 80. hamarkadan egindako hegala botako dute, «zerbitzu sistemak bertikalean antolatutako dituelako eta solairuak arunt apalak direlako, edozein berritze aunitz zailtzen duena», eta berria egingen dute bertan. Horrela, zahar etxeak hiru zati izanen ditu: «eraikin berria, oraingo eraikin historikoa eta zaharra eta berria lotzen dituen».

Sotoa, eraikin historikoa, sukaldea eta kanpoko eremua ere berrituko dituzte. Sototik lixutegia eta xukalekua kenduko dituzte eta erdiko eraikineko beheko solairuan egonen dira. Eraikin historikoaren lehenbiziko solairuan bizikidetza unitateak egingen dituzte eta behekoan eguneko egoitza, zerbitzu komunak, jangela eta erabilera anitzeko gela. Berokuntza sistemari dagokionez, gasolio eta pellet galdarak kendu eta aerotermia erabiliko dute. Sistema eraikin berriko teilatuan paratuko dute.





ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharri Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Hainbat herritar Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aitzinean. AINTZANE ARIZTEGI

Elkartasuna Aroztegiko zazpigarren auzipetuari Auzitegi Nagusian

TTIPI-TTAPA

Obrak gelditzea egotzita, zazpigarren herritar bat deklaratzera deitua izan zen apirilaren 7an Nafarroako Auzitegi Nagusian, Gorka Lournaga baztandarra. Pentsaren aitzinean adierazi zuenez, «obrak modu erabat baketsuan eta zibikoan gelditu genituen eta alde horretatik lasai gaude. Uste dugu ongi egin genuela eta gainera gure alternatiba bakarra izan zen. Baztandarroi hitza, lurrak eta bide komunalak kendu dizkigute eta momentu horretan gelditzen zitzaigun alternatiba bakarra horrelako basakeria gelditzea izan zen».

Lanak baimenik gabe hasi zituztela azpimarratu zuen; «obrak ilegalak zirela berretsi egin da. Joan den urteko maiatzaren 6ko plenoan Ayerdi jaunak obrak legalak zirela erran zuen, eta orain ikusten

dugu horren sinesgarritasuna nahiko eskasa dela».

Aroztegiko obra «zentsugabea» dela adierazi zuen Lournagak; «lurren jabetza herritarretatik elite ekonomiko batera desbideratzea da bilatzen duten gauza bakarra. Proiektuak zerikusi handiagoa du Espainian izandako burbuila inmobiliarioaren modolarekin, haiek erraten duten mugimendu sozial-berde batekin baino».

«Bailara okerrarekin sartu dira, ez gara zazpi, milaka bai-zik. Herri baten borondatea ezinen dute makurtu, ezinen dutelako herri osoa kartzelan sartu». Proiektua hau gelditu dezaketena «Geroa Bai eta PSN dira, baina ez dute deus egin nahi, ez zaielako interesatzen. Ez dakit zein interes duten, baina baztandarren iritzia errespetatzea ez».



UTZITAKOA

Caparrosoko makroetxaldearen kontra

TTIPI-TTAPA

Caparrosoko behi-ustiategiaren jabea den Valle de Odieta-HTN enpresak deituta, 14 elkartetako ordezkariak deklaratu zuten martxoaren 30ean Iruñean, Nafarroako epaitegian. Haiei elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten Elizondoko plazan. 50 bat lagun bildu ziren Baztango Talde Ekosozialak deitutako hitzorduan.

Mahai-ingurua apirilaren 29an

Talde Ekosozialak makroetxalde eta abeltzaintza intentsiboari buruzko mahai-ingurua antolatu du Elizondon, apirilaren 29an 19:30ean Fantxikeko plazan, eta eguraldi txarra eginez gero Arizkunean. Hizlariak Greenpeaceko bozeramaile den Lorea Flores lesakarra eta Anizko Jauregia etxalde ekologikoko Mikel Azkarate izanen dira.

Jubilatuendako antzerki tailerra egingen dute Iruritan

Apirilaren 25ean aurkeztuko dute ekimena eta maiatzaren 3an hasiko da tailerra Josema Langara era Amaia Iriondoren eskutik. Iruritako Harremanak jubilotekak eta Arkupeak antolatua, Gizarte Bilgunean elkartuko dira asteartero 10:00etatik 12:00etara.

Kontaketa Erotikoen lehiaketan hirugarren izan da Ernesto Prat

Kaixomaitia.eus atariak eta Elkar argitaletxeak Kontaketa Erotikoen lehiaketa antolatu dute bigarrenez. Oihana Iguaran izan da irabazle, Irati Gokoetxea bigarren eta Ernesto Prat leharoztarra hirugarren *Bihotza lapurtu zidan Panpayruna* lanarekin. Zorionak!

ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean





Bederatzi lagunek osatzen dute Elizondoko alkatetza taldea. UTZITAKOIA

«Herriarendako lan egitea da alkatetzaren gauzarik politena»

AITOR BAZTERRIKA ZELAIETA ELIZONDOKO ALKATEA

Elizondoko alkatetza taldeak hainbat erronkari aurre egin die joan den urtean agintaldia hartu zuenetik, eta etorkizunera begira berteze hainbat proiektu dituzte buruan. Bertzeak bertze, turismoaren problematikaz eta auzolanaz mintzatu da Bazterrika alkatea TTIPI-TTAPAREKIN

R. OSKARIZ | ELIZONDO

Elizondoko alkatetzan lehenbiziko agintaldia du aurtengoa Aitor Bazterrika Zelaietak (Elizondo, 1979). Alkatetza hartu duenetik, hainbat kontutan ibili da lanean herritarrekin eta herritarrendako.

Zergatik erabaki zenuen alkate izatea?

Nire erabakia herriaren alde lan egitea izan zen. Bederatzi lagun elkartu ginen, denon artean bozketa egin genuen eta ni suertatu nintzen aukeratu. Orain kargua txandaka aldatzea da gure asmoa.

Nortzuk dituzu kargudunak?

Ane Ballarena, Itxaso Iriarte, Imanol Arretxea, Antton Mu-

jika, Aitor Jaen, Jaime Fagoaga, Tomas Garmendia, Hasier Azurmendietanigaudetaldean. Hamabortzero biltzen gara normalean, eta lan gehiago baldin bada, astean behin.

Nola banatzen dituzue lanak?

Bakoitzak bere eginbeharrak ditu; hiruren artean kontuak eramaten dituzte, bat kanposantuz arduratzen da, bertze batek auzolanak eramaten ditu, bertze bik sare sozialak, kartelak, bileretako aktak... Besta komisioaz herriko gazte kuadrilla bat arduratzen da.

Zeintzuk dira alkatearen ardurak?

Herriko ordezkaria naiz eta harreman zuzena dut udalarekin. Zorionez, udalan egiten

du lan eta hemengo funtzionamendua ulertzeak aunitz erraztu dit lana. Herriko bes-tetan eta ekitaldi garrantzitsuetan ere ni naiz ordezkaria kargudunekin batera, denak talde bat garelako.

Basozaina zara, beraz, herri-lurren kudeaketaren funtzionamendua lehenagotik ezagutuko zenuen...

Bai. Alkatetza hartu eta lehenbiziko ekitaldi ofiziala Batzar Nagusia izan zen, herri-lurrak kudeatzen dituen. Hiru hila-betetik behin egiten da eta hor gaude 15 alkateak, udaleko 13 ordezkariak, kuarter bakoitzeko juntero bat eta mendiko ordezkariak, guztira 40 pertsona inguru. Baina mendiko

ordezkariak ezin dute bozkatu, horregatik, orain alkatea naitzela ardura handiagoa dut.

Alkatetzaren alderik zailena?

Zailena Batzar Nagusia iruditzen zait, bozkatzeko ordua. Behatza goititu behar izatea, nire ustez denon hoberaizanen den zerbaiten alde edo kontra, norbaiti kalte egingen ote dioten jakin gabe.

Eta hoberena?

Gehien gustatzen zaidana herriarren beharrak udalera ekartzea eta bertan zuzentzen edo konpontzen saiatzea da, hori da niretako errazena. Herriarendako lan egitea da alkatetzak duen gauzarik politena. Eta alde polit gehiago dituela deskubritu dut; auzolana berreskuratu dugu eta horrek jendea elkartzen du. Gero egiten den gosari, merienda, afa-ri edo dena delakoan sortzen den giroa polita izaten da. Gainera, hainbertze konponketa egin ditugu Elizondon udalaren laguntzari esker.

Zer behar ikusten dituzu herrian?

Elizondok duen beharrik handiena herriko sarrera da, 2012tik bueltaka ari gara Baztan Berri-tik egin nahi den zubiarekin. Orain arte ezin izan dugu proiektua aitzinerat eraman zubiak ez zituelako konfederazioaren neurri eta baldintzak betetzen. Orain Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesio-ko Departamentuari esker proiektua enpresa bati esleitu diogu eta martxan dago. Proiektuan, enpresaz gain, udal ordezkariak egonen gara, hau da, arkitekto munizipala, lan publikoen zinegotzia eta herriko ordezkari pare bat. Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta konfederaziokoak ere bertan izanen dira, zubiaren diseinua eta nondik norakoak denon artean adosteko eta afera gehiago ez luzatzeko. Horrez gain, argien sarea hobetzeko eta argi kutsadura murrizteko 550.000 euroko aurrekontua onartu dute Baztan osorako. Kristoren berri ona da, herritar aunitz ez daudelako konforme argiaren kudeaketarekin.

Udaberrian turismoa goiti egiten hasi da. Erraza da kudeatzea?

Elizondoren etorkizuneko egoerak kezkatzen nau. Gaur egun ostatuak eta jatetxeak nahiko larri dabiltzajendez eta jende aunitz etortzen den sasoietan ez da denendako lekuri bazkaltzeko eta afaltzeko. Hemendik hamar urtetara aunitz erretiratuko dira eta ikusi beharko da nolako etorkizuna izanen duen herriak.

Nola konpondu daiteke arazoa?

Turismoa ezin da itoko gaituen olatu bat izan guretako. Baztanendako diru sarrera bat da, baina guk egoerak eskatzen duen mailan jardun behar dugu, hau da, Elizondon badira hotelak, apartamentuak, landetxeak... baina zein da turisten iritzia? *Herrira ailegatu gara, buelta bat eman dugu baina ez dugu bazkaltzeko tokirik aurkitu eta Etxalareraino joan behar izan dugu.* Hor lana egin beharko da, baina ez dago gure esku bakarrik, jendea ez baita Elizondora etortzen, Baztanera baizik. Egia da herri handiena garela, Dolores Redondoren liburuetan Elizondoko leku aunitz agertzen direla eta bailarara etortzen diren guziak Elizondo bisitatzen dutela, baina inguruan baditugu bertze etxe, mendi eta lekuak bisitatzeko, eta turismoa gehiago banatu beharko litzateke. Alde horretatik turismo bulegoa aunitz hobetu da eta zerbitzu hobea ematen du. Jendea sakabanatzeko gai izateak aunitz lagunduko du turismoa kontrolatzen, bailara osoan ibil dadin. Bertzenaz betikoa pasatuko da; denak Xorroxinera, Amaiurrera... Hau saihesteko proiektu bat egin genuen joan den urtean elbetearrekin auzolanean, Oinaskako ibilbidea. Aurten bidea txukuntzeko ideia dugu eta proiektuan gehiago sakondu nahi dugu; seinalizazioez gain panelak paratu daitezke, informazio gehiago eman... ibilbideari etekin gehiago ateratzeko.

Horrelako proiektuetan auzolana garrantzitsua da?



Elbetearrekin batera auzolanean egin zuten Oinaskako ibilbidea 2021ean. UTZITAKOA

Dudarik gabe. Joan den urtean aunitz zentratu ginen herria hobetzen auzolanaren bidez. Udak Nafarroako Gobernua eskatutako dirulaguntza bati esker. Espaloi zabalago eta seguruagoak paratu genituen eta jendeak aunitz eskertu zuen lana. Aurten ere hainbat karriketako garbiketak esleitu ditugu, eskolako bidean adibidez, eta zubiak lixatu, bernizatu eta pintatzeko asmoa dugu. Herritar guziak ordezkatzen dituen taldea gara eta denen beharrei erantzuten saiatzen gara. Adibidez, zahar etxean badaude bakarrik dauden adinekoak, bisitarik ez dutenak, eta astebururen batean 20-30 boluntario elkartu eta buelta bat ematera atera nahiko genituzke.

Auzolanaz gain, zein bertze asmo dituzue?

Aunitz dira. Adibidez, herritar batek arras guti ikusten du eta espaloi bat egokitzeko eskatu ziguten, arras irregularra delako, toki batzuetan zabalago

eta bertzeetan meharrago. Dirua lortu dugu espaloi hori egokitzeko eta guretako arras proiektu inportantea da. Honez gain, Elizondoko eta Beartzungo bide batzuetan brea paratzeko proiektua prestatu digu Asier Zabazak eta aunitz eskertzen diogu. Proiektu hauek gauzatzeko lehengo alkatetza taldearekin harremanetan jarri gara, haiek horrelako hainbat proiektu egin zituztelako, eta egin gabe gelditu zirenak aurten aitzinera ateratzeko aukera izanen dugu. Bertze hainbat proiektu ere egin ditugu; herriak 2.500 euroko saria lortu zuen egindako konpostagatik eta edukiontzi berriak paratu ditugu diruarekin. Kanposantuan ere lanak egin ditugu, bi espaloi berri ditugu, nitxoetan teilak paratu nahi ditugu eta kolunbarioak egiten ditugu.

Etxebizitza aurkitzeko ere zailtasunak ditugu Baztanen gaur egun. Bai, gazteendako batez ere arazo larria da. Horregatik,

«HERRITAR GUZIEN BEHARREI ERANTZUTEN SAIATZEN GARA»

«HERRIAREKIN KRISTOREN KONPROMISOA DUTE GAZTEEK»

udalarekin eta Nasuvin sarekin batera bilerak egiten ari gara herriko etxea barnetik moldatu, egokitu eta alokairu sozialak egiteko. Ez dugu aurten eginen baina aurrerapauso batzuk eman ditugu dagoeneko eta Europako dirulaguntzak ditugu. Asmoa 11 etxebizitza egitea da, baina herritarren beharretara bideratuko dugu. Gehienez zazpi urte bizitzeko izanen dira, dirulaguntzak izanen dituzte ordaintzeko eta Nasuvin sare inbertitutakoa berreskuratzean, diru sarrerak herriarendako izanen dira.

Nola baloratuko zenuke zeure agintaldia?

Uste dut hori herritarrek baloratu beharko luketela. Ahal dugun guzia ematen ari gara eta kontent gaude. Gainera, aunitz pozten naiz talde gazteak garelako. Herriko gazteek badute konpromisoa, aurten besta komisioan lau pertsona gehiago sartu dira, denak gazteak. Belaunaldi berriek herrirekiko kristoren konpromisoa dute eta eskertzekoa da.

Elizondori etorkizun ona ikusten diozu?

Gazteak inplikatzeko badira, bai, dudarik gabe. Lan egiten utzi behar zaie, ilusioa eta ideia berriak ekartzen dituzte eta horrek aunitz laguntzen du.

Hurrengo agintaldirako alkatetzan segitzeko prest egonen zinateke?

Elizondoko hurrengo alkatea emakume bat izatea gustatuko litzaidake. Gure taldeko bi neskek ez dute nahi, baina adibidez, besta komisioan gehienak neskak dira, eta alkatetzan sartzera animatu behar ditugu. Helburua odol berria sartzea da, jende eta ilusio berriak. Hala ere, herriarekin dudak konpromisoa lau urtekoa da, eta bi urte alkate izanda bertze bi urte kargudun gisa segituko dut. Baina oraingoz ez gara horretan pentsatzen ari, bestak antolatzen ari da herriko komisioa buru-belarri. Kristoren lana egiten dute, isilpekoa, inork ikusten ez duena. Jende hain gaztea horrelako ardurak hartzen ikustea ikaragarria da!

Mugaz gaindiko turismoko langileen topaketa egingen dute

Maiatzaren 12an egingen dute herrian, mugaz gaindiko eskualdeetako turismo bulegoen arteko lotura ezartzea xede

ARANTXA ETA IRAIA

Turismo Profesionalen Mugaz Gaindiko III. topaketa egingen dute Urdazubin, mugaz gaindiko turismo bulegoen arteko harremanak sendotzeko eta parte hartzen duen herri baikoitzaren inguruko informazio turistikoa elkarrekin trukatzeko. 18:00etan hasita, arratsalde osoko egitaraua prestatu dute.

Egitaraua

• 18:00etatik 18:30era Dokumentazio gordailua Turismo Bulegoan.

- 18:30etik 19:30era Trikuharry animalien parkera bisita gidatua eta magia ikuskizuna.
- 19:30etik 20:30era Turismo-helmugen aurkezpena Kultur Etxean.
- 20:30ean mokadutxoa turismo bulegoan, dokumentazio trukaketa eta jardunaldiaren amaiera.

Parte-hartzea gonbidapen bidez egingen da eta gonbidatuek 948 59 90 70 telefonora deituta edo turismo@urdax.es helbide elektronikora idatzita baieztatu beharko dute agertuko direla.

Ukrainara laguntza bidaltzeko kanpaina egin dute Dantxarinereko merkatariak

ARANTXA ETA IRAIA

Dantxarinereko merkatarien elkarteak, Berako Ibardingoa-ekin batera, Ukraina laguntzeko produktuz betetako kamioi bat bidaltzeko kanpaina sortu zuen apirilaren 2-3ko eta 9-10eko asteburuetan. Bertan, janaria, osasun mate-

riala, higiene produktuak eta bertzelakoak bidali zituzten Dantxarinereko erosleen laguntzarekin. Elkarte honek 25 urte baino gehiagoz Ivankiv-eko eskualdetik umeak ekartzen dituen Txernobylen Lagunak elkatearekin batera eraman du aitzinera kanpaina hau.



ARANTXA ETA IRAIA

Korrika Kulturala arrakastatsua izan da

Apirilaren 3an Korrika Kulturala ospatu zen herrian. Ion Martinez "Txiki" ren bakarrizketa umoretsuarekin irri egin zuen jendeak. *Herriari Kantuz* kantaren bideoak ikusi ahal izan zuten herritarrek. Zenbait herritarrek egindako kanta honen bideoa ere dagoeneko Youtuben dago ikusgai.



ARANTXA ETA IRAIA

Korrikako herriko kilometro jendetsuak

Apirilaren 9an Korrika herritik pasa zen eta hainbat kilometrotan herriko jendea lasterka ibili zen euskararen alde. Gauñara elkarteak eta bi herrietako gurasoen elkarteak erositako kilometroaz gain, aurten Urdazubiko herriak ere kilometroa erosi zuen eta korrikalari aunitz hurbildu ziren.

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
- Sagardo ekologikoa
- Sagardotegiko menua
- Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zolain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Montxo
JATETXEA · ERRETEGIA
[@asadormontxo](https://www.instagram.com/asadormontxo)

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 · Antzanborda · URDAZUBI · Tel.: +34 848 85 00 21



Korrika herrigunetik pasatzerakoan. Pastoralak ere bere kilometroa hartu zuen eta korrika egiteko adinik ez dela ikusi zen.

Hogeita bigarreanean lehen aldiz pasatu da Korrika herritik

Sekulako giroa izan zen herrian eta larunbata zela profitatuz zikiroa eta kontzertuak ere antolatu zituzten

MARIFA ETA KORO

Aitzineko 21 edizioetan Korrika ez zen sekula gure herri-

tik pasatua, eta aldi honetan bai, erdi-erditik pasatu zaigu, jende oldea ibili zen eta seku-

lako giroa bizitu dugu. Bestak zirela ematen zuen. Gainera, larunbata zela profitatuz, zikiroa eta kontzertuak antolatu zituzten, eta jendeak ongi pasatzeko manera ezin hobea izan zen. Larunbat goiz horretan, Xaretako lau herriak kurritu ziren, Saratik sartu eta Ainhoatik ateraz, tartean Zugarramurdi eta Urdazubi gurutzatuz. Xaretako pastoralak ere kilometro bat erosi zuen. Enekek eta Garazik eraman zuten lekukoa.

Bikote gazte batek gozokiak prestatzen ditu Haitzondon

MARIFA ETA KORO

Hainbertze urtez hutsik egon ondotik, bikote gazte bat etorri da bizitzera Haitzondorat. haietako bat Nuria Aranguren dugu, eta berari esker, herrian bizkotzak, pastak eta gisa hortako gozokiak erosteko aukera izanen dugu.

Nuria historia polit batekin etorri da: bere biraitatxi nafarra zen, baina Argentinara emigratu behar izan zuen. La Pampan gozotegi bat jarri zuen, eta geroztik 110 urte irekita dago gozotegi hura, eta han ikasi zuen Nuriak. Orain bere aitzinakoen lurraldera itzuli da, Euskal Herrira, eta Zarautzen urte batzuk egon ondotik, Zugarramurdirat etorri dira Iban eta biak.

Argentina eta Euskal Herriko zaporeak fusionatzen ditu, eta garrantzi handia ematen dio hurbileko produktuak erabiltzeari, baita ekologikoan egiten direnei ere. Asteburu aldatzen du eskaintza, eta enkarguz ere prestatzen du.



Nuriaren gozokietako batzuk.

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Apirilaren 3an elizan bildu ziren Euskal Herriko koralak. GANEX

Joakintxo Jauregi omendu dute Euskal Herriko koralek

Apirilaren 3an Saran egin zuten bi urteroko 'Kanta Jaunari' topaketa eta Saran sortutako apezpea ohoratu zuten

GANEX

Euskal Herriko Elizetako koralak bi urtetik behin elgarretaratzen dira, 'Kanta Jaunari' topaketan. Aurten apirilaren 3an Sarako elizan izan zuten beraien eguna eta apez ordenatu zutela 50 urte bete direla ospatzeko, Joakintxo Jauregi saratarra omendu zuten. Jean Elizagarai, Larrungo Santa Ispiritu Parropiako erretoreak 10:30ean meza nagusia eman zuen, bere apez lagun batzurrekin. Bederatzi baziren eta Euskal Herriko koraletako 300 kantarik meza ongi kantatu dute, Gerard Ravon zuzendaria eskutik eta Jean Marie orngano jotzailearekin.

Omenaldia

Saran sortua da Joakintxo Jauregi eta herrian apez ordenatu zuten 1972an, duela 50 urte. Koralek egun hori baliatu zuten bere omenaldia egiteko. Denak eskertu zituen Jauregik, bai bere familia guziaz baita Elizako lagunak ere, «bere apeztasunean laguntza handia ekarri diotelakoz». Oraino ere Kanboko parrokiak aitzinera ongi eramaki du. Meza bu-



Joakintxo Jauregi.

katu eta Prebaigne elkarteko buruzagiak ere denak eskertu zituen, Herriko etxea, borondateko jende on guziaz eta, bistan da, kantariak. Hurrengo elgarretatzea Ortzaizen egingen dute 2024ko hazilaren 10ean.

Elizkizunaren ondotik denek Lur Berri gelan egin zuten bazkaria, Tristan eta Marianne Sagek egina. Denak izigarri kontent ziren, zintzurra piska bat busti eta jende horiek gela ongi airostu zuten kantu eder batzuk emanez. Larrungo Santa Ispirituko parrokiak denak eskertu ditu horrelako eguna antolatzeagatik.



72 lagun bildu dira ondotik Lur Berri gelan egindako bazkarian. GANEX

Beti Gazte elkarteak egin du urteko biltzar nagusia

GANEX

Beti Gazte erretretatuen elkarteak apirilaren 2an egin zuten bere biltzar nagusia eta, ondotik, bazkaria Lur Berri gelan. 72 kide baziren elkarretaratutako Haragitegiko Marianne eta Tristan Sage senar-emazteek egindako bazkarian.

Jeannot Etxeberrigarai lehendakariak denek ongi etorria egin zien, «zeren kiderik gabe ez baita elkarerik», eta galdera egin zien denek orai bezala etortzea elkarretaratze horietara. Bertzea egina izanen da ereiroaren 25ean Pikassaria jatetxean.

Michel Ferraz diruzainak eman zituen kontuak, eta gogoratu zuen nola gan den urtean ohoratu zuten elkartearen hogeita hamargarren urte betetzea eta hor gastu handiak izan zituztela, baina herriaren dirulaguntzarekin kontuak positiboan dituztela. Lehendakariaren azken hitzetan pentsamendu handi bat ukan du mundu honetatik joanak diren guzientzat eta denek zutik eman eta *Agur Jaunak* kantatu zuten. Bazkaria ongi airostu zuten Ttote musikariak eta euskal kantu eder batzuk eman zituzten denek artean.

Beharrez den jendea laguntzeko Sarako zentro soziala antolatu dute

GANEX

Sarako zentro soziala CCAS elkarteak antolatu dute apirilaren lehenean. Herriko kontseiluko lau kide eta kontseilukoak ez diren bertze lauk osatzen dute zentro soziala eta beharrez den jendea laguntzen lan egingen du.

Kontseilutik Sophie Elizalde Garbiso, Maritxu Arizkoretta, Maritxu Berasategi Ameztoi eta Marie Pierre Pradere hautetsiak dira elkartearen. Kontseilutik aparte lau kideak, berriz, zenbait elkartetako ordezkariak dira: Jeannot

Etxeberrigarai (Beti Gazte erretretatuen elkartearen presidentea), Isabelle Veillet (Lavallée Hazpeko borden departamenduko familien elkartekoa), Bernard Meszaros (Itsasuko Ezinduen elkartekoa) eta Bruno Bagarde (Plaza auzokoa Estabaden elkartekoa), Lehendakaria Battite Laborde auzapeza da eta lehendakari ordeza Sophie Elizalde Garbiso.

Bazuen urte batzuk elkarteak egin beharra zela, eta mementoa etorri zaio, beharrez den jendea laguntzeko.

2021eko kontuak onartu ditu herriko kontseiluak

Oposizioa abstenitu egin zen afera honetan, baina bertze hamabi gaietako erabakietan denen onartzea ukan zuten

JL BESSONART

Herriko kontseiluaren azken bilkuren aitzinetik, Tolosatik (Toulouse) etorria den Nicolas Combediac, zerbitzuetako zuzendari nagusi berriak, aurkeztu zuen bere ibilbidea honat hurbildu aitzin. Bilkuran 13 gai aztertuak zituzten, haue-tatik 12 erabakixedeetan denen onartzea ukan zuten. Finantzeri buruz, 2021ko kontu administratiboen onartzea, hemen oposizioa abstenitu zen. Xifrek erakusten dute, herri finantzak sanotzen ari direla, alde batetik alor guzietan ekonomiarik tinko atxikiz eta iazko zergen emendatze horiek eta lur eta etxe salerosketek sortu dituzten diru iturriek eragin-korraz zuzen direla. Haatik, azpimarratu zuten espekulazioaren bidez sartzen den dirua ez dela seinale ona. Dena

den zorrak ere ttipituz doaz, etorkizuna hobekiago iragar-tzen ahalko da.

Azpimarratzeko ere lanpos-tu berri batzuk sortuko direla hobekiago erantzuteko 7.200 biztanlek (azken kontaketa) behar dituzten zerbitzueri. Bertzalde emazte eta gizonen arteko berdintasunaren alde-ko Europako Gutunaren sinatzea onartua izan zen.

Azkenik, garai honetan mi-gratzaileek bizi dituzten irainak gogoan izan zituzten, estatuek funtsezko giza-eskubideak ez errespetatzeak sekulako krisi humanitarioa sortzen baitu. Honen aitzinean, Senperek, gizakiaren duintasunaz axo-latua delakoz, ahalmen mate-rialak eta logistikoak plantan ezarriko ditu. Aldi berean, herritarrei elkartzatza erakutsi dezaten galdegina zaie.

Kultur Topaketen bukaerarako zeremonia egingen dute apirilaren 22an

JL BESSONART

Kultur Topaketen garaia eki-menaren inguruan, eskerrak emateko, Herriko etxeak bu-ruratzeko zeremonia antolatu du, herritarrak gonbidatuz aperitibo baten inguruan, api-rilaren 22an, ortziralean 19:00etan Larreko kultur-gunean.

Halere, oraindik asteburuan segida izanen dute kultur ekin-tzek. Larunbatean, 08:30ean, Lehoiaren klubaren eta sukaldari-ekin gizen mesedetan zopen salmenta eskainiko dute Merkaturako plazan.

17:00etan Lapurdi 1609 elkar-teak, herriko kantariekin abes-tiz betetako arratsaldea pro-posatu du, Akerreta Plazako Errotan. Arratsean, berriz, 20:00etan, Larreko Antoine Bataille kontzertua emanen du, bi musikari lagunekin. Ameriketako musika alterna-tiboa aurkeztuko dute, *De l'indécence* goiburuarrekin.

Igandean, 11:00etan, fan-dango erakustaldia egingen dute Xan Ithourria plazan Zirikolatz eta Zarena Zarelako taldeek. Oraindik zenbait era-kusketa ere zabalik daude.



Korrika ttikian ere euskara bultzatu nahian ibili ziren ikasleak. JL BESSONART

Korrika ttikian nahiz handian jende ainitz ibili da herrian

JL BESSONART

Ortzirale goiza haizetsuarekin, hamarnaka haurrek parte har-tu dute beren irakaslekin eta burasoekin euskara bultza-tzeko Korrika Txikia hitzordu alai honetan. Hiru ibilbide antolatuak ziren haurren adi-nen arabera. Herriko eskoletan diren klase elebidunetarik eta Zaldubi ikastolatik etorriak ziren. Pilota plaza bilakatu da denen topagunea. Larunbat goizean, berriz, Korrika naga-sia ailegatu zen, olatu handi batiduri, abiadura azkar batean ordu erdiaren beranta erre-kuperatu nahian. Giro izuga-



Auzapeza lekukoarekin.

rrian, jendetza bildu zuen, ai-zer poza denendako.



UTZITAKOIA

Lapurdikoko Rallyan Dronde garaile

Apirileko lehen asteburuan iragan da Lapurdiko Rallyaren 44. edizioa, biziki arrakastatsua izan da bai lehiaketaren aldetik baita publikoaren erantzunagatik ere. Faborito nagusia zen Louis Dronde zuberotarrak garaipena erdietsi du, Stephan Barthe eta Benoit Bersans-en aitzinetik.



Txapeldun eta txapeldunordeak Martxelo Otamendirekin. MAIALEN ANDRES

Berria txapelketa irabazi du Goizuetako Oier Apezetxeak

Aldaberekin bikote eginez 35-29 irabazi zieten apirilaren 9an Galarretan jokaturako finalean Loitegi eta Zaldúa I.ari

TTIPI-TTAPA

Aldabe eta Oier Apezetxeak 35-29 gairabaz zituzten Loitegi eta Zaldúa I.a apirilaren 9an Galarretan jokaturako Berria Erremonte Txapelketaren finalean eta, beraz, Martxelo Otamendi Berria egunkari zuzendariaren eskutik txapela jantzi zuten Lekunbe-

rrikoak eta Goizuetakoak. Partida gogor eta berdindu batean gorriak beti aurretik joan ziren eta merezimendu osoz eraman zuten garaipena.

Aldaberen partida izan zen gakoak. Txapelketako erremon-tistari onena izan da eta finalean ere bere nagusitasuna erakutsi zuen. Gainera, Oier

Apezetxeak ederki lagundu zuen. Goizuetarrak lau partida jokatu ditu profesionaletan eta laurak irabazi ditu. Horrek txapela lortzera eraman du.

Aldabe erasokorraro arituz eta horri esker bideratu zuten finala. Loitegirekin alderatuta tanto kopuru bikoitza egin zuen. Partida berdindu izan zen. Bosna eta seina berdindu eta gero gorriak aldegin ziren markagailuan 14-6. Hala ere, urdinek erreakzionatu eta hemezortzina berdindu zuten. Lehia gogorra zen eta 23nako berdinketa eta gero, gorriek berriz ere ihes egin zuten, 29-23. Sei tantoko abantaila hori erabakiorra izan zen. Sei tantoko alde mantentzea lortu zuten 32-26, 34-28 eta 35-29.

Aldabek 20 tanto egin eta bost pilota galdu zituen eta Loitegi berriz bederatzi tanto egin eta bost pilota galdu zituen. Atzelarien borrokan Zalduek ongi jokatu zuen, baina Apezetxeak ez zuen hutsik egin. Sakearekin biak ere zarpina tanto egin zituzten eta akatsetan ere pareko zenbakia izan zuten, pilota bakarra galdu baitzuten. Merezitako txapela lortu dute Aldabek eta Apezetxeak, partidurik galdu gabe.

Amaiur-Txantrea txapeldun eta Igantzi bigarren herri kirol jokoetan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Jokoe-tako bosgarren eta hondarreko jardunaldia jokatu zuten apirilaren 10ean Betelun. As-tebete lehenago Igantzin banatu zituzten kadete mailako txapelak (Amaiur-Txantrea txapeldun izan zen sokatiran eta Igantzi txapeldunorde proba konbinatuan) eta Betelun kimu eta haur mailakoak eman zituzten.

Haur mailako proba konbinatuko finalean Araxes nagusitu zen (8.07), Igantziko taldea bigarren izan zen (8:59), Antsoain hirugarren (9.11) eta Menditarrak laugarren (9:26). Kategoria honetako sokatira txapelketan Antsoain izan da txapeldun.

Kimu mailako proba konbinatuan, aitzineko lau jardunalditan, 21 talderen artean Igantziko bi talde, Menditarrak eta Basaburukoa lehiatu ziren, baina ez zuten finalerako txartelik lortu. Maila honetan ere Araxes izan zen txapeldun.

Iruñerriko II. erremonte txapelketako finalaren bila ari dira bartz bikote

TTIPI-TTAPA

Euskal Jai Erremonte Fundazioak antolatutako Iruñerriko II. Erremonte Profesionaleko Txapelketa aurkeztu zuten apirilaren 6an Atarrabiako San Andres errotan. Bartz bikote hasiak dira lehian: Xanti Uterga doneztebarra eta Barricart, Zeberio II.a eta Otano, Aimar Jabalera doneztebarra eta Ion, Matxin III.a eta Agirrezabala eta Eloi Otxandorena doneztebarra eta Aimar Saldias oiztarra.

Denak denek kontrajokatzen ari dira ligaxkan. Apirilaren

9an Ezkabarten jokaturako lehen jardunaldian, Xanti Utergak eta Barricartek 35-24 irabazi zieten Matxin III. ari eta Agirrezabalarri eta Zeberio II.ak eta Otanok 35-20 irabazi zieten Eloi Otxandorena doneztebarrari eta Aimas Saldias oiztarrari.

Apirilaren 16an Zubirin aritzekoak ziren eta ondotik etorriko dira **apirilaren 23an** Uhartan (Jabalera-Ion/Uterga-Barricart eta Zeberio II.a-Otano/Matxin III.a-Agirrezabala), **apirilaren 30ean** Antsoainen (Jabalera-Ion/Zeberio II.a-



Saldiasak eta Otxandorenak galdu egin zuten Ezkabarten. UTZITAKOA

Otano eta Matxin III.a- Agirrezabala/Otxandorena-Saldias) eta **maiatzaren 6an** Iruñean (Zeberio II.a-Otano/Uterga-Barricart eta Jabalera-Ion/Otxandorena-Saldias)

jokatuko dituzten ligaxkako jardunaldiak.

Ligaxkako sailkapeneko bi lehenbiziko bikoteek jokaturako dute finala **maiatzaren 14an** Atarrabian.



Oier Ariznabarretak zazpigarren aldiz segidan irabazi du Berako Mendi Maratoi Erdia. UTZITAKO ARGAZKIAK

Ariznabarreta eta Ordoñez irabazle Berako Maratoi Erdian

Lasterketan hirugarren izan zen Joseba Larralde beratarra eta Maria Ordoñez bera Nafarroako txapeldun izan dira

TTIPI-TTAPA BERA

Oier Ariznabarreta, ordu bete, 39 minutu eta 51 segundoko denborarekin, eta Maria Ordoñez, 2 ordu, 3 minutu eta 54 segundorekin, Beran jokatuak hamaseigarren Mendi Maratoi Erdiko txapeldun izan ziren apirilaren. Durangoko korrikalariak ez zuen arazorik izan zazpigarren aldiz jarraian nagusitzeko gizonen kategorian, Imanol Goñiren eta Joseba Larralde beratarren aitzinetik, 21 kilometro eta 2.700 metroko desnibela dituen ibilbidean.

Ariznabarreta lasterketaren lehen metrotik joan zen buruan, eta Larhunena lau minutuko tarte ateratzen zion Goñiri. Irabazleak ezin izan zuten 2014tik duen bere errekorra hobetu (ordu bete, 37 minutu eta 30 segundo). Tarteko helmugako 150 euroak ere Ariznabarretak irabazi zituen.

Emakumezkoetan, Berako maratoi erdian debutatu zuen Maria Ordoñezek irabazi zuen. Naiara Irigoien bigarren sailkatuari ia minutu bateko tar-



Bere estreineko parte-hartzean garaipena loru du Maria Ordoñezek.



Osasun langileak omendu zituzten antolatzaileek.

tea, eta Oihana Kortazar hirugarrenari lau minutuko tarte ateratzen.

Joseba Larralde Nafarroako txapeldun

Nafarroako banakako txapelketari dagokionez, Joseba Larralde beratarra suertatu zen txapeldun, Xabi Zarranz eta Iñigo Macíasen aitzinetik. Emakumezkoetan, Maria Ordoñez bera izan da txapeldun, Naiara Irigoien eta Ainara Alcuaren aitzinetik. Beteranoetan, Gure Txokoako Joseba Lasarte beratarra hirugarren izan da, Mikel Beunza eta Jose Luis Berazaren gibeletik eta emakumezkoetan, Beti Gazteko Ana Reina lesakarra txapeldun, Garbiñe Solano bigarren eta Irene Matxiarena beratarra hirugarren.

Gazte Trailen Beñat Albisu eta Oihana Arruti garaile

14 eta 17 urte bitartekoei zuzendutako Gazte Trailean, Beratik ateratzen eta Beran bukatzen zen 10 kilometroko ibilbide berrian, Beintza-Labaien Go Beñat Albisu (Manttale) izan zen irabazlea, Markel Barrio eta Manttaleko Oihan Pikabea beratarren aitzinetik. Emakumezkoen kategorian Manttaleko Oihana Arruti lesakarrak irabazi zuen.

Taldeakako sailkapenean Txurregi taldea gailendu zen, Hiru Herriren aitzinetik.

Guztira 530 korrikalarik parte hartu zuten proban, eta horietatik 459 helmugaratu ziren. Jende aunitz izan zen lasterketa ikusten

Osasun-langileei omenaldia

Sari banaketan, Manttalet, Agerra Mendi Taldeak eta Gure Txokoak osatzen duen antolakuntzak osasun langileei omenaldia egin zien, bai lasterketaren 16 urteetan emandako laguntzagatik, bai Covidaren pandemiaren egindako lanagatik. Osasun langileak podiumera igo ziren, eta kamiseta oroigarri bana eta hainbat opari eman zizkieten.

APIRILAK 21 - MAIATZAK 5

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

MUSIKA

LESAKA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Harriondoan, apirilaren 21ean, 19:30etan. Sarrerak 6 eurotan.

'Aventuraband' Nafarroako Banda Sinfonikoa

Harriondoan, apirilaren 24an 12:30etan. Sarrerak 8 eurotan.

BERA

Velutine taldearen kontzertua

Katakun, apirilaren 22an, 21:00etan.

Muxikoak

Toki Onako estalpean, apirilaren 23an 18:00etan.

SENPERE

Senpere Kantuz

Lapurdi 1609 elkatearekin. Akerreta Plazako Errotan, apirilaren 23an, 17:00etan.

'De l'indécence' Antoine Batailleren kontzertua

Larrekon, apirilaren 23an 20:00etan. Sarrerak 16 eurotan.

ELIZONDO

Thierry Biscaryren kontzertua

Arizkunenean, apirilaren 24an, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

LESAKA

'Etxepare sariak' haurrentzako album ilustratuak sortzeko erakusketa

Herriko liburutegian, apirilaren 25etik maiatzaren 6ra, 14:00etatik 20:00etara.

BERA

Azienda erakusketa feria

Apirilaren 30ean, goizean.



ORQUESTADENAVARRA.ES

LESAKA Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia

Cibrán Sierraren zuzendaritzapean. Mozarten 25. sinfonia sol menorren eta Haydnen 78. sinfonia do menorren. Harriondoan, apirilaren 21ean, 19:30etan. Sarrerak 6 eurotan lesaka.eus-en.

LITERATURA

BERA

'Ahoz urez' liburuaren aurkezpena

Mikel Antza egilearekin. Herriko liburutegian, apirilaren 22an, 18:00etan.

'Hamazazpigarrenean aidanez' liburuaren aurkezpena

Behelainoak errezitaldi musikatua. Beralandetan, maiatzaren 5ean, 19:00etan.

LESAKA

'Gogoan dut' liburuaren irakurraldi musikatua

Aritz Galarraga eta Ibon RGrekin. Harriondoan, apirilaren 23an, 19:00etan.

ERRATZU

'Nirliit' liburuaren aurkezpena

Aiora Jaka itzultzailearekin. Lixutegian, apirilaren 28an, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK

BERA

'Harri minak' antzerkia

Bonbon Beltz taldea. Kultur etxean, apirilaren 24an, 18:30etan. Sarrerak 5 eurotan (aitzinetik Agara prentsan).

'Altsasu' antzerkia

La Dramatica Errante konpainia. Kultur etxean, apirilaren 30ean, 19:00etan. Sarrerak 7 eurotan (aitzinetik Agara prentsan).

LESAKA

'Viva la república' antzerkia

Harriondoan, maiatzaren 1ean, 19:00etan. Sarrerak 6 eurotan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Herriko plazan, apirilaren 23an eta 30ean, 10:00etatik 14:00etara.

ERRATZU

Baztango Artisauak

Herriko plazan, apirilaren 24an, 11:00etatik 15:00etara.

LESAKA

Artisau azoka

Behoko plazan, maiatzaren 1ean, 10:00etan.

ZINEMA

LEITZA

'Tipularen sehaska' dokumentalaren proiektzioa

Herri aretoan, apirilaren 23an, 18:00etan. Sarrerak 5 eurotan Torrean, Maimurren eta leihatilan.

'Bost teilatu' filmen zikloa

Geuretik Sortuak programa. Herri aretoan, apirilaren 28an, 19:00etan. Sarrerak 3 eurotan leihatilan 45 minutu lehenago.

'LHL dokumentala' proiektzioa

Herri aretoan, apirilaren 30ean, 19:00etan.

Nire aukera

«Gazteak entrenatzea ederra da eta harreman hagitz onak egiten dira»

JOEL GIL GOIENETXE LESAKAKO FUTBOLARIA



23 urteko Lesakako gaztea da Joel Gil Goienetxe. «Lagunekin edozein plan egitea» du gustuko; «mendira egun batzuk pasatzera joatea, bizikletan irteera batzuk egitea, asteburu pasa joatea... baina batez ere futbola da nire zaletasunik handiena».

Ttikitatik baloiari ostikoka

Futbola ikusteko eta bizitzeko modu aunitz daude, bakoitzak bere modura ulertzen du baina Gilek argi du: «niretzat taldean lehiatzeko kirol hoberena da, familia bat sortzen duen kirol ederra baita». Hala ere, «lehiatzeko orduan dena ematen dut eta ez zait inoiz galtzea gustatzen».

Ttiki-ttikitatik aitarekin parrera edo «edozein lekutara» baloi batekin joaten zen, eta «Mastegi futbol zelaira edo Sadarrera eramaten ninduen ahal zuen guzietan». Hortik heldu zaio futbolerako duen zaletasun handia. 6-7 urte zituela hasi zen Beti Gazten jokatzeko, eta geroztik baloiari ostikoka aritu da gelditu gabe.

Beti Gazteren gorabeherak

Azken urteetan, «Beti Gaztek salto handia eman du. Aitzinako denboraldian 3. mailako igoera ikaragarria izan zen eta aurtun jubenilen taldea Euskal Ligara igotzeko lehiatzen dago itxura ederra emanez. Nesken lehenbiziko taldea hagitz futbol polita erakusten ari da eta lehenbiziko hiruretan sailkatzeko borrokan daude. Kadeteak igoera fasean daude eta infantilak berriz Txapeldunen Ligan. Nesken bigarren taldea, alebinak eta benjaminak lan handia egiten ari dira eta horren ondorioz jokalaritza aunitz ateratzen ari dira. Jendea esfortzu handia egiten ari da eta emaitzak ikustekoak dira».

Erregionalean debuta «zaila» izanzen zela argi zuten, «adin aunitzetako gazteak gara, hainbat egoeratik heldu garenak, batzuk jokatu gabe egon direnak, bertzeko batzuk lehenbiziko taldeetik jaitzi direnak... baina gehienok kategoria altuetan jokatu izan dugu eta maila aldetik ez dut salto handirik ikusi. Denon artean ahal den hobekiena egin dugu, giro hagitz ona izan dugu eta

otordu eder batzuk egin ditugu».

Futbolak «momentu polit aunitz» eman dizkio, «kadeteetan kategorizazio ginen urtea ez dut inoiz ahanzikiko, ezta aurtun 3. mailan egindako debuta ere». Hala ere, dena ez da ona izan, «jubenila nintzenez Tolosan belauna puskatu nuen. Momentu zaila eta luzea izan zen».

Belaunaldi berriak

Duela sei urte Beti Gazteko entrenatzaile egin zen, «aukera eman zidatenean ez nuen bi aldiz pentsatu». Alebinak eta infantilak entrenatu izan ditu, baita Arantzako Osasuna Fundazioko gaztetxoak, «campus batean monitore izan nintzen eta horren bidez hasteko aukera izan nuen».

Talde osoa kontrolatzea «ez da erraza, baina garrantzitsua gazteekin lan egitea eta irakasten duzuna gustatzen da. Bi gauza horiek gustatzen bazaizkizu eta pazientzia pixka bat baldin baduzu, lan erdia egina dago».

Futboleko jokatzeko eta entrenatzea «parekatuak» daudela dio, «fisikoki ongi bazaude futboleko aritza gozamen bat da, baina bertzelan nazkatuta bukatzen ahal duzu, eta entrenatzaile gisa aunitz gozaten ari naiz». Bere adineko gazteak talde bat entrenatzen animatu ditu Gilek, «gauza ederra da eta harreman hagitz onak egiten dira jokalaritza, entrenatzaile eta gurasoen artean».

Etorkizunera begira

Beti Gazteri «etorkizun hagitz ona» ikusten dio, «ttikienetik zaharrenetaraino egiten duten lanarengatik. Arantzako ere gogo aunitzekin ikusten ditut eta Lesakan atekariak izanzen dituzte».

Berari dagokionez, «ez zait gustatzen etorkizunean pentsatzea, baina dudarik gabe futbolaren inguruan segituko dut».

LESAKA Zinema

Guraso elkarteek antolatua.
*Harriondoan, apirilaren 24an
17:00etan. Sarrerak 2 eurotan.*

ELIZONDO Zinegoak LGTBI+ film laburren proiektzioak

Arizkunenean, apirilaren 26an,
18:00etan.

GOIZUETA 'Urak aske' dokumentalaren proiektzioa

Arturo Elozegi biologoarekin.
*Udaletxeko ganbaran, apirilaren
29an, 18:30ean.*

SOLASALDIAK

GOIZUETA 'Mundu orden berria eta guk nolako mundua nahi dugu?'

Herriko etxeko ganbaran,
*apirilaren 23an Mikel Altzuart
abeltzainarekin eta apirilaren
30ean Juanjo Martinez
zirujauarekin, 18:00etan.*

LEITZA Energia Berriztagarrien Komunitatearen aurkezpena

Herri aretoan, maiatzaren 6an,
18:00etan.

KIROLAK

BAZTAN Baztango mendigoizaleen ateraldiak

*Apirilaren 23an Erratzutik
Baigorriara eta maiatzaren 1ean
Elizondotik Infernuko errotara
itzulia. Elizondoko plazatik
07:30ean abiatuta.*

LESAKA Nafarroako goma gaineko 4x4 sokatira txapelketa

*Udal pilotalekuan, apirilaren
30ean.*

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gaeuz. ☎647 58 81 63.



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

ELIZONDO. Pisua salgai, erdigunean, arkitektura tradizionalako etxean, Baztan ibaira eta Txokoto auzora begira. 3 logela bikoitz. Egongelajangela zabala, begiratokiarekin. 2 bainugela, bat bainuontziarekin eta bestea dutzarekin. Berokuntza eta ur beroa gas naturalarekin. Iaz pintatua eta bernizatua. ☎658 75 81 73.

EROSI

Etxea, baserria, borda edo terrenoa erosiko nuke. Berdin dio zein egoratan dagoen, baita zein lekutan dagoen ere. ☎693 69 49 76 (Jose-mari).

ERRENTAN EMATEKO

IGANTZIKO BENTETAN etxea errentan emateko. Bi gela, terraza eta terrenoa. Denboraldi luzerako. ☎695 51 07 54.

ERRENTAN HARTZEKO

IRUÑEA. Arrosadia auzoan edo unibertsitate inguruan, lau neskek pisua errentan hartu nahi dute datorren ikasturteko aurrera. ☎617 80 88 48.

DONEZTEBE, ELGORRIAGA, LEGASA, DONAMARIA edo **SUNBILLAN** 32 urteko emakumezkoa, 9 urteko semearekin, etxebizitza edo errentan hartzeko pisu bila. 2-3 logelakoa, argitasun onarekin eta terrazarekin. Epe luzerako. Astelehenerdik ortziralerara deitu 16:00etatik aitzinera eta asteburuetan egun osoan. ☎616 47 42 75.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Beola Etxea Bentan zerbitzaria behar dute igandetan lanaldi erdian aritzeko, eguerdiko zerbitzuan. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera edo deitu. ☎948 63 07 09.

ITUREN. Tresanea jabetxean asteazkenetik larunbatera zerbitzaria behar dute egun erdiz lan egiteko. ☎624 61 81 43.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

BERA. Zalain jabetxean sukalde laguntzailea behar dugu. ☎948 63 09 67.

Esperientzia duen igeltsero bat behar dute eskualdeko enpresa batean. Lanaldi osoan aritzeko. ☎ 675 34 79 74.

BERA. Zalain jabetxean harraskan, fregaderan, aritzeko langilea behar dute. ☎948 63 09 67.

IBARDIN. Sukaldari laguntzailea behar dute egunero lan egiteko. ☎948 63 15 51.

IBARDIN. Asteburuetan jabetxean lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎948 63 15 51.

LESAKA. Lindurren borda sagardotegian asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎948 63 72 12.

ARANTZAko Aterpean goizetan eta astean bortz egunez garbiketarak egiteko pertsona bat behar dute. ☎948 63 41 79 / 647 75 91 40.

BERA. Beola Etxea Bentan asteburuetan egun erdiz aritzeko zerbitzaria behar dute, frantsesez dakiena. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera. ☎948 63 07 09.

URDAZUBI. Irigoiena landa hotelean garbiketara lan egiteko langile bila ari dira, 10:00etatik 15:00etara, astean sei egunez. Bidali curriculumak reservas@irigoiena.com helbidera edo deitu. ☎948 59 92 67.

BERA. Ibardingo Benta Gorrian zerbitzaria behar dute asteburuetan eta jai egunetan lanaldi erdian aritzeko, eguerdiko zerbitzuan. Frantses pixka bat dakiena. Bidali curriculumak

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

- Idixkoak: €/kg kanal**
- Extra 4,88
 - 1.koa 4,76
 - 2.koa 4,64

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,99
- 1.koa 4,74
- 2.koa 4,57

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,68/4,78
- Zaldi-behorrak 2,00/2,17

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,20
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,50

ZERRI-AZIENDAK

- Zerrikumea (19 kilo): 67 €
- Zerri gizona 1,530 €
- Zerramak 0,790€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)

benta.gorria@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎618 00 27 31.

ESKARIAK

BERA. Haur Hezkuntza ikasten ari den neska batek arratsaldetan haurrak zaindu eta heziko lituzke. ☎629 77 55 72.

Emakume bat adinekoak eta haurrak zaintzen eta etxeko lanetan ariko litzateke. ☎611 24 70 54.

Gizonezko bat lan bila. Zerbitzaria lanetan, sukaldari laguntzaile, erailkuntzan, adinekoak zaintzen, base-rikko lanetan... ariko litzateke. ☎631 98 83 99.

ANIMALIAK

SALGAI

OIZ. 2 urteko ahari mutur gorria, adarrak gabea, eta 8-10 ardi salgai. ☎606 01 93 37.

Hiru **ahari** mutur hori eta gazteak salgai. ☎697 44 05 90.

DENETARIK

SALGAI



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. Deitu konpromisorik gabe. ☎690 08 56 65.



Mendiko eskiak salgai, Movement Apex Carbon, ia berriak. 1,69 luze eta 94mm zabal. Dynafit Starlite. Fokak eta kutxilak barne. 750 euro. ☎618 41 11 14 / 628 15 70 84.

Etzerako egur loteak egiten dira, etxera eramateko aukerarekin. Bertze lanak ere egiten dira. Belai ibxiturak, lorategien apainketa edo mozketak, mantentze lanak... ☎618 20 21 95.

GALDU-AURKITUAK

BERA. Agerra auzoan giltzak aurkitu dituzte. Aloiñaren botikan daude.



GANIX
Tallerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

IRAGARKIAK

Sail honetako iragarkiak gure webgunean: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>



ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181



DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA


CLUB AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian
eta %5eko deskontua dendako produktuetan

Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net


HILBERRIAK

- **Juana Etxeberri**, Sarakoa, martxoaren 21ean, 92 urte zituela.
- **Rita Gorosurreta**, Sarakoa, martxoaren 21ean, 81 urte zituela.
- **Eduardo Marti**, Sarakoa, martxoaren 24an, 80 urte zituela.
- **Dolores Gonzalez Domingez**, Leitzakoa, martxoaren 30ean.
- **Agustin Aleman Korteia**, Zigakoa, martxoaren 31n, 75 urte zituela.
- **Isabel Lucia Juanenea Lasarte**, Saldiaskoa, apirilaren 2an, 87 urte zituela.
- **Maria Cordoba Lizasoain**, Elizondokoa, apirilaren 3an, 97 urte zituela.
- **Meltxora Etxebeste Zozaia**, Lesakakoa, apirilaren 4an, 90 urte zituela.
- **Julita Salaberria Salaberria**, Goizuetakoa, apirilaren 6an, 92 urte zituela.
- **Bernardo Martinez Merino**, Berakoa, apirilaren 7an, 87 urte zituela.
- **Miguel Migeltorena Etxenike**, Urdazubikoa, apirilaren 8an, 90 urte zituela.
- **Jose Rios Santxez**, Doneztebekoa, apirilaren 8an, 84 urte zituela.
- **Jose Francisco Zozaia Irigoien**, Erratzukoa, apirilaren 9an, 81 urte zituela.
- **Jesus Arraztoa Apezetxe**, Iruritakoa, apirilaren 11n, 86 urte zituela.

URTEBETETZEAK



Leitzako **Egoi Bidart** eta **Peio Zabaletak** martxoaren 16an eta apirilaren 17an, 13 eta urte bat bete dituzte. Zorionak txapeldunak!! Bikain ospatu elkarrekin bikote. Muxu erraldoi bana familiarren partetik. Asko maite zaituztegu.



Narbarterko **Iraia Martin Argainek** marxoaren 24an 10 urte bete ditu eta amaxi **Kontxik** apirilaren 8an 72 urte. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partez, baina bereziki Juneren partez.




Lesakako **Silbia Etxarte Abuinek** 6 urte bete ditu apirilaren 20an. Zorionak familiarren eta bereziki Gorka anaiaren partez.



Peio Zabaleta Mariezurrenak urtea bete du apirilaren 17an. Zorionak zure lehenbiziko urtebetetzean, bihurri! Besarkada bat zure lagun Aritzen partetik!

Doneztebeko **Ainhize Arnedo Mitxelena** 8 urte beteko ditu apirilaren 26an. Aunitz urtez! 8. urtebetetze egun polit bat pasa dezazula! Muso bat familiarren partetik!



Mikel Barrenetxe Alzuri aranztarrak apirilaren 28an 5 urte beteko ditu. Mikel!!! Morroxo!! Aunitz urtez!! Bortz muxu haundi Arantzako eta Erratzuko familien partez!! Egun polit bat pasa!

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senideak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz

Koskontako bidea, 7-1-31770
LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.

Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.



TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

URTEURRENA

**Mikaela
APEZETXEA ARRIBILAGA**

Leitzan, 1921-06-04 / 2021-04-21
I. urteurrena

Ereindako haziak dituzu loretan zurekiko maitasuna dugu bihotzean egunero zaitugu oroimenean aintzetan jaso ezazu gugandik muxu bat airean.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Bernardo
REKALDE BARRENETXE**

1926-12-14 / 2017-04-15
V. urtemuga



Bizitorea eta bizizalea izan zinen.
Halaxe ezagutu zintugun;
halaxe izan nahi genuke.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Julita
SALABERRIA SALABERRIA**

Goizuetan, 2022ko apirilaren 6an,
92 urte zituela



Eskerrik asko urteetan emandako maitasun guztiagatik.
Beti egonen zara gure artean.
Asko maite zaitugu.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Joakin
MORTALENA SALABURU**

Zugarramurdin, 2019ko apirilaren 25ean
III. urteurrena



Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

RAMONTXO, JAIONE, ONINTZA ETA OIHAN


OROIGARRIAK



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira


BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokia
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritarra

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es


IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO



Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak


TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

 24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe


948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HITZ GEZIDUNAK

	Nafarroako udalerria	Ulerzeko ahalmena	Xakela	Zain egon	Laidoa
	Irulegiko herritar	Upela, kupela	Ezeztatzeko hitz	Arnas ezak hil	Lehen 2 bokalak
◆ Deitura					
Arrats					
Larba	Txinparta, pindar		Gauerokoa		Bokal mehea
◆ izena	Harlauza		Baita		Hausnarkari lirainak
		Minerala		Edari bizi	
		Azkeneko letra		Noka, gara	
Bi eta bi		Galdetzaile bat		Biba!	
Gipuzkoako udalerria		Buruhauste		Kirol elkarte	
		Emakume izena			Gizon izena
		Txakur			
Urteko 11. hila			51		Iridioa
Arabako herritar			Lehen bikoitia		Sexu eme
			Gas mota		
			Zinka		
Kontso-nantea	Lehena eta azkena	Ez militarrek ez erlijiosoak			
Zutabea, pilarea	Kontso-nantea	lodoa			
				Neukake	

◆ Ohorezko euskaltzain goizuetarra/etxalartarra


GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Nafarroako udalerria, Erronkarribarren.
- [2] Gure lurraldeko herria, Baztanen.
- [3] Ikuskizun mota.
- [4] Pertsonen mintzatu, faltsua.
- [5] Beldur handia.
- [6] Arantzako mendia (829 m.).
- [7] Epaile batek ebatzi beharreko arazo.
- [8] Adi ezazue!
- [9] Zerbait bere errotik, edo ezarririk dagoen lekutik bereizi.
- [10] Bizkaiko udalerria, Arratian.
- [11] Txerrizain.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN



BILATU

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Ajuurri)



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>




Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



SUDOKU HANDIA

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederra, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).



HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, letik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



Ttapi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

803 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera

Felisa Irungarai Urreaga | IRURITA

Buatxabal - Kamiseta bat

Ainhoa Telletxea Astiz | LEITZA

Salting Iruña - Bi sarrera

Kontxi Agerre Agerrebere | ALMANDOZ

Mendukilo - Bi sarrera

María Jesús Almandoz Larregi | ARRASATE

Irrisarri Land - Sarrera bat

Kristina Mindegia San Martin | DONEZTEBE

Manuela Ariztela - Txapela

Juan Bautista Igoa Irigoien | ERATSUN

Wow Park - Sarrera bat


Marian Susperregi Arruti | BERA

Airaka - Bi disko

Gema Lukanbio Gonzalez | ARANTZA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

KIMETZ

www.kimetzbelardenda.com



Saski bat

WOW PARK

www.wowpark.fr



Sarrera bat

Wowpark
Votre Parc Aventure



**LI
BU
RU
AK**



Argiantza
Epizentroa

erein
argitaletxea www.erein.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



ikaselkar

www.ikaselkar.eus



ARKUPE
Txokolataak

www.arkupegozotegia.com